Jaungoiko - Zale

VII' urtia
Amabosterokua

Zornotza 1918'g. Urtarrilla 1.n

89'g zenbakija
Arpidea laurleko bi

Jaungoiko - Zale

VII' urtia
Amabosterokua

Zornotza 1918'g. Urtarrilla 1.n

89'g zenbakija
Arpidea laurleko bi

Urte barri

Oĩura onak jaŕaĩubaz, urte baŕija askaldijan, bazkide, aŕpide, irakuŕle ta gure-aldez zelanbait lan-egin daben gustijei **Jaungoiko - Zale**'*k zorun ugari-ugarija opa dautse, amaĩu dan urtian baño atsegintsubaguak dagiketsezala, Jaunaren guraz, aurten igaro - biaŕ dabezan egun gustijak*

Obarantz auŕera egiĩeko gogoz gagoz beti, auŕtengo asmo baŕi onuragiñak ixan doguz, iraŕkoletarako diran aldi txaŕak baña gauŕ goĩu ezin doguzan zoztaŕak ekaŕi dauskubez ta, oinguaz beintzat, gure asmuok ez dagikeguz bete.

Lasteŕ baña auŕera urtengo garala uste dogu.

Oin aŕtiau lez, edo obeto, zubek lagun egiskuzube—bakotxak aŕpide bat zuzendu egixube — ta zubentzako opa dogun Jaunaren zoruna, **Jaungoiko-Zale**'*ri be elduko yako, ta urte baŕija gustijuentzat onuragiña ixango da.*

Euzkeldunei Euzkeraz
Ta euzkeldunak Euzkeraz

III

Kistar-ikastia ta Eleiz-itzaldiak erri bakotxari bere elez, ta euzkeldunei euzkeraz azaldu biar yakezala argiro ikusi gendun lan onen lenengo atal bietan, baita be, agindu au bete ezitetik ondoren gustiz kaltegarriak kistar siñiztearentzat sortzen zirala. Onetarako ipiñi genduzan Torra eta Bages Gotzain argiaren irakaskixun eder-mamintsuak. Ikusi daigun orain Vich'ko Gotzain jakintsu onek otoyatzaz diñona.

Kistar bizitzan adindunentzat otoya biar-biarrekoa dala zeruratzeko, ziñizteko egia da. Otoi egiten dogunian geure ezereztasuna autortzen dautsogu Jaungoikoari. Otoi dagigunian, biotza jasoten dogu Jainkoa'gana, zeruratzeko biar-biarrekua dogun laguntza eskatzeko. Otoya seme gaxo batek aitarik onenari egiten dautson eskari samur eta ustetsuena baño ezta. Ta semiarentzat bere gogoko naigabe ta samintasunak agertzeko, Aita onagandik artu dituan laguntza ta eskarrakaitik eskar-ona agertu, ta maitasun samurra azaltzeko, amaren altsuan ikasitako izkuntza baño egokiagorik ete da? Beraz euzkeldunentzat otoi egiteko euzkera bigun-samurra baño izkuntza oberik ete da? Euzkeldunak ba, bere otoyetan euzkera erabilli biar dau. Euzkeldunak Jainkoa'ri euzkeraz itz-egin biar dautso, otoi egiteko norbere elia egokiena da-ta. Ara gai onetzaz Torras ta Bages argiak irakasten dauskuna.

«Jayotzetiko norberen elez otoi egitia biar-biarrekoa da. Norberena eztan elez egiten dan otoya beti otza izango da; itz ederrez jantzia izan leiteke: au da; Goizpar edo Ebanjelio deunak *gentillen* otoñari ezarten dautsozan baldintzak (condiziño) edertasuna ta luzetasuna euki legiz, baña euraen otoyen antzera azal-azalekoa baño ezta izango; ez baña Jesu-Kisto'k irakatsi euskun itz zintzo ta garbia. Eta gure izatia goi-eskarragaz alkartu biar dala Jaun-zaletasuna sendoa ta biguna izango ba'da, ta ganorabako erdera baten egiten diran otoyen barregarrikeria azaldu ondoren diño: «Atzerri-izkuntzaz otoi egitetik sortzen da geyenetan jaun-zaletasunian oztutia, eraskun edo *deboziño* azalekoa, ta gogo-bizitzako argaltasuna. Onan egiten dan otoya ba, ezta oldozpenduna; lagundu biar dautzien biotz-naikun (afecto) indarrik eztauko: eztau goguan lorrats iraunkorrik irarten: itz baten; ezta geure biotzeko lurrian berez sortzen dan lora usain-usaintsua, Jesu-Kisto Gure Jaun Zuzendasun eguzkiaren izpiak biztuta; lore zañari erositako atzerriko lora baño: biar ba'da guri ta ederra, baña usain eta bizitza bakoa ta laster igartuko dana». (Traditio Catala. cap VII 54-55'ing)

Augaitik diño beste toki baten, «Kistarrak Jainko'aren irakaskixun eta jarraibideari jarraituten zintzoak izan daitezala: ta Berak erri bakotxari bere jatorriko izkuntzaz itz-egin gura izan ba'dautso, ezpeite erria Jainkozko irakatsi onetatik aldendu, Jauna'ri atzerri elez itz-eginda». (Ib. 66) Beste irakaskintza eder batzuk be ba'dakaz baña geyago luzetu ezitearren amaitu biar dot.

* * *

Beraz Jaupari maitia Kisto'ren irakaskintza zerutarrak zeuen ardurapekoen biotzetan sustrai sakon eta sendoak botatia gura ba dozue, *euzkel-errian euzkeraz itzaldiak egin;* eta kistar euzkeldunak; gogoko kistar bizitzan aurrera egin gura ba'dozue, *euzkeraz otoi-egin Aita zerukoari.* Gure ikurritza (lema) auxe izan biar da «Euzkeldunei euzkeraz ta euzkeldunak euzkeraz».

M. Iar G.

¡GENTZA, JAUNA!

Gentza: bai, gentza, Jaungoiko ona,
biotz - biotzez deskatzut!
¡Arren ludiaz erruki Jauna!
¡¡Erruki!! otoi dagitzut!
Jaungoikuari eiten nengola
otoi au gogo - gogotik
irudi baltz ta bildurgarria
igaro yatan burutik.

Zer neu - begiak dabe ikusten?
Zer belarriak entzuten?
Ludi gustia sotinka eta
odol ta malkoz itotzen.
¿Zer dala baña ainbeste negar?
¿Nundik ain malko samiñak?
¿Nok egin dituz ainbeste odol
eder betezko oxiñak?

Ekaitz - aldian iñusturiak
odei baltzaren erdian
eiten daun baño gogorragua
dantzut orrua ludian.
Suaga mota gustitakuak
izkillu bildurgarriak
biotz - gogordun eriotzari
zabaltzen dautsoz bidiak.

Erri gustiak apurtu eta
zugasti danak zuzitu,
solo gustiak naspildu eta,
¡Gudari danak zatitu!
Gau eta egun aspertu barik
lan baltz onetan diñardu.
Onen ondoren negargarriak
¿nok ete leikez zenbatu?

¡Zenbat alargun! ¡zenbat umezurtz!
¡zenbat naigabe samiñak!
Nok barriz neurtu luze ta zabal
negar - malkozko oxiñak?
¡Zenbat etxetan sendi - zoruna
beti - betiko galdu da!
¡Zenbat umezurtz aitarik gabe
zer janik gabe ete da!

Naigabe latza samintasunaz
erri ondatzez batera,
ekarri dituz guda gogorrak
girñak indartzez gañera.
Gizon gaxuen biotz bigunak
girña zitalez sututa,
atxa gogorra biurtu dituz
maitetasuna ostuta.

¡Guda ankerra! ¡guda zitala!
¡guda gorrotogarria,
baster danetan erain dokana
trisku ta odol gorria!
Esan egidak egi - egia,
erantzun eidak bertatik
Nundik ludira agertu azan
gextoki ala zerutik?

«Ni Jaun on-onak, erantzun eustan,
bialdua naz ludira,
gizon gaiztoen biotz lurkoyak
goraztuteko zerura,
ez nindun baña ni bialduko
izan ez - palitz obenik
ez - palitz emen Jauna'ren naya
ausi eztaben gizonik.

Gizonen girña ta oben andiak
ekarri nabe ludira,
ez nindun baña ni bialduko
zuzenak izan ba'lira,
Jaungoikua'ren errukiak ba,
zuzentasunaz batera
oben gustiak zigortu arte
bialdu nau zeu artera».

Itz oneixekaz neure gogua
gustiz zan bare - baretu,
Jaungoiko onan erabagia
bai - nebalako ulertu.
Orduan baña, biziroago
samurtu yatan biotza,
Jaun on - onari zuzenduteko
garrez beteko otoitza.

¡Aita samurra! ¡Aita errukitsu!
neurri bagarik on - ona!
Ainbeste iltzek eztau asetu
Zeure asarre gogorra?
Eztira odol tantatxu barik
gizon geyenak gelditu?
Eztira alargun eta umezurtzen
begiak gustiz leortu?

Gentzaren Aita zaran Jaun onoi
¡Erruki! ¡gutzaz erruki!
Bialdu etzeban Zeuk ba Semia
gentza ekarten apalki?
¡Gentza ba, gentza! Jaungoiko ona
biotz-biotzez deskatzut!
¡Arren! ¡ludiaz erruki Jauna!
¡¡Erruki!! ¡otoi dagitzut!— **Gabirel.**

Jaungoiko - Zale

VII' urtia
Amabosterokua

Zornotza 1918'g. Urtarrilla 15.n

90'g zenbakija
Arpidea laurleko bi

Jauna - Irakuskunde osteko bigarren igandeko Goizparkia

Aldi atan: Eztegu bat egin zan Galileako Kana'n eta bertan aurkitzen zan Maria, Jesus'en Ama. Jesus eta bere ikaslariai be dei-egin eutsen ezteguetara. Eta ardo barik geratzen zirala Jesus'i esan eutson bere Ama'k: «Eztauke ardorik»: Jesus'ek erantzun eutson: «Anderea, zer dausku zuri ta niri? Oraindik neure aldia ezta eldu». Ama'k esan eutsen otseñai: «Berak esango dautzuena egikezue». Bertan egozan judatarrak garbiketarako oi ebezan sei urontzi, bakotxa metreta bi edo iru neurridunak (metreta 39 litro inguruko neurria zan). Jesus'ek esan eutsen: «Urontziok urez bete egikezuez» :eta gonburu bete ebezan. Eta Jesus'ek esan eutsen: «Atara orain eta eroan egiyozue otsein nagosiari». Eta eroan eutsoen.

Otsein nagosijak txastatu ebaneko ardo biurtutako ura, eta nondikoa zan ez ekiela (atara eben otseiñak bai-ekien baña), senar gasteari deitu ta itandu eutson: « Gustiak oi dabe lenen ardo ona ataratia: eta maikidiak naikotxu edaten dabenian ardorik indargeena ataraten dabe: zuk barriz onena azkenerako itxi dozu.» Onantxe Jesus'ek Galilea'ko Kana'n bere aintza agertzeko egin eban lenengo alatz edo miraria: eta bere ikasleak beragan ziñistu eben (Joan. II-11)

* * *

Kistar maite: Beste irakaskixun askoren artian auxe da gaurko Goizparkian ikasi geinken eder-ederra: Ama Maria'ren bitartekotasunian uste osoa ipinten.

Argiro agertzen yaku Ama maite onen biotz on biguna. Eskonbarriai laguntzen dautse euren estutasuna iñok oartu baño lenago, iñok ezer eskatu baño lenago. Auxe ber-bera egiten dau berari eraskun bizia dautsienakaz: baña ardura andiagoaz batez be gogo-biarrizenetan. Eztago ba, Jesus'gana eltzeko bitarteko oberik eta indartsuagorik. Bere biotz on bigunak guri laguntze'ko gurari bizia dauko. Bere otoya gustialtsua da, bere Seme maitiagandik nai daben gustia lortuten dau, *Omnipotentia supplex* deitzen dautsogu, eta geure estu aldietan ¿ez-ete gara beragana zuzenduko? Beti ba, maitatu egizu Ama errukitsu au, bere Seme Jesus'en aizkidetasunian beti bizi gura ba'dozu.

GABIREL

Doibatz - Egutegija

IGANDIAK: 20'gn.; 27'gn. Deun-Jon Kixostoma, gotzaña ta irakaslia.

Igandietan kistar orok jaupa osua entzunbiar dogu ta otsein-lanik ez dagikegu,

EGUN IXENDABAK

15'gn. Deun-Paul, lenengo lekautija.
17'gn. Deun-Andoni, lekaipuruba.
25'gn. Deun-Paul-Donekundia.
29'gn. Deun-Pantzeska Salestara, gotzaña, iraslia ta irakaslia.

Donokijan Deun bakotxa gure Jaunak gai bakotxatzaz berarizko altsu, eskubidedun egin dau.

Euzko - Deun Ixendegija

Ila	Eguna	Ixena	Zeindasuna	Abeŕija
1) Urtaŕila	22	Bingen Deuna (1)	Ziñopea.	Bizkaitaŕa odolez.
2) Otsala	2	Adabalda Deuna (2)	Ziñopea.	Laburditaŕa odolez.
3) »	5	Martin Deuna	Ziñopea.	Gipuzkoaŕa.
4) Epala	16	Eusebe Deuna	Neskutsa.	Laburditaŕa.
5) Joŕala	28	Purdentzi Deuna	Gotzaña.	Arabartaŕa.
6) Oŕila	5	Adamanda Deuna	Gotzaña.	Laburditaŕa·
7) »	5	Mauronda Deuna	Lekaipurua	Laburditaŕa.
8) »	12	Eŕiturde Deuna	Alaŕguna.	Laburditaŕa.
9) Bagila	13	Andoni Deuna (3)	Autoŕlia.	Bizkaitaŕa odolez.
10) »	21	Orose Deuna	Neskutsa.	Laburditaŕa.
11) »	30	Koltsende Deuna	Neskutsa.	Laburditaŕa.
12) Garila	4	Balendin Zorunduna	Ziñopea.	Bizkaitaŕa.
13) »	7	Pirmin Deuna	Ziñopea.	Napaŕtaŕa.
14) »	30	Iñaki Deuna.	Iraslia.	Gipuzkoaŕa.
15) Irala	12	Toma Zorunduna	Ziñopea.	Arabartaŕa.
16) »	19	Albontsa Zorunduna (4)	Autoŕlia.	Bizkaitaŕa odolez.
17) Lotazila	3	Pantzezka Deuna	Autoŕlia.	Napartaŕa.
18) »	25	Adalsende Deuna	Neskutsa.	Laburditaŕa.

(1) Iñake, Bingen deunaren ama, Bizkai'ko Kaŕantzataŕ baten alabia zan.

(2) Ezkonduta egon zan Eŕiturde deunagaz, eta beronen seme - alabak ixan ziran Mauronda, Eusebe, Adalsende ta Koltsende Laburditaŕ deun ospetsuak.

(3) Tabera'taŕ Terese, beronen ama, Sukaŕieta'ko Abiña'taŕ baten alabia zan.

(4) Orozko'taŕ Albontsa zorunduna, Orozko-Zubiauŕ'en ondorengua zan.

— *Mazelagan'daŕ Aya.*

Jaungoiko - Zale

VII' urtia
Amabosterokua

Zornotza 1918'g. Otsailla 1.n

91'g zenbakija
Arpidea laurleko bi

Sexagesima edo Seigarren igandia

GOIZPARKIA.

Aldi atan: Gizozte andiak bildu ta urietatik arinka Jesus'gana eltzen zirala, irudiki auxe esan eutsen:

«Urten zan azi-erellea bere azia ereiteko, ta ereitzian batzuk bidian jausi ziran eta zapalduak izan ziran eta txoriak jan ebezan. Beste batzuk arriartian jausi ziran, eta erne ziranian igartu ziran ezkotasunik ezeukelako. Ta beste batzuk arantza artian jausi ziran eta batera arantzak jagirik ito ebezan. Eta beste zati bat lur onian jausi zan, eta erne ta bateko eun emon eban. Au esanda deadar egin eban: Belarriak entzuteko dituanak, aditu».

Irakaslariak itandu eutsoen irudiki onegaz zer adirazi eban. Berak esan eutsen: «Zeuoi Jainko - bakalderria adierazo yatzue». Bestiai barriz irudi bidez: «Ikusi-ta ikusi ezteyen: eta entzun-da ulertu ezteyen».

Ba, irudiki onek auxe adirazten dau: Azia Jainko'aren itza da. Bidian jausi zanak adirazten dauz entzuten dabenak, baña gero txerrenak kentzen dau euren biotzetik itza, siñiztu ta gaizkatu eztaitezan. Arri artian jausten danak adirazten dauz entzunda pozik itza artzen dabenak, oneik sustarrik eztauke, alditxu baten siñizten dabe baña ziltzaldian (tentaziñoan) atzera egiten dabe. Eta arantza artian jausi zanak adirazten dauz entzun ebenak baña ardura, aberaztasun eta bizitzako atsegiñakaz itoten dabenak, eta igalirik (fruturik) iñoz eztabe emoten. Lur onean jausi zanak barriz dira, biotz on eta zintzoagaz entzunda, itza zaintzen dabenak, eta eruapenez igalia emoten dabe. (Luk. VIII - 4 - 15).

* * *

Kistar maite: Gaurko Goizparkiak edo Ebanjeliuak eztau azalben bearrik, Jesus berberak azaldu euskun eta.

Arretaz irakurri ta, geure buruari galde au egin biar dautsogu: nire biotza Kistoren irakaskixun zerutarrak artzeko, bidelur gogorra, arriartea, arantzaz beteko lurra, ala lur astin ta apatza, azia onuraz artzeko gertaua, ete - da? Kistar - ikasti, itzaldi, ta ikurton edo sakramentu bidez Bere eleiza'k neure biotzian ereiten daben eskarrezko azi ederrak bateko eun emoten ete dau? Ezetz ba'diñotzu biotzak, zeintzuk dira ernetzia galerazoten daben eragozpenak? ¿Girna gaiztoak? Zetan zagoz ba zuzentzen alegindubarik? Oben edo pekatuak lur - gogorra biurtzen dautzue biotza? Damutasunetik sortzen diran malkoakaz bigundu ta astindu zengi zeure biotza, bateko eun emoteko. Auxe naitez egin biar dozu betiko zoruna lortu gura ba'dozu

MANTEROLA.

Jaungoikua maite ba - dozu,
Beratzaz sarri itz egingo dozu.

Sales'tar Pantzeska deunak.

Artzañak eta seintzañak, jaupa bat baño geyago egiten dan errietan, aldizka jauparatu leitekez.

Igandez lan egin biarra ez da naikoa, jaupaldira ez eltzeko. Uztaroan (gari-ebaitzia) lan egin leike, baña jaupara eldu biar da.

Gurutz.

BIDEZTIA

Bide zidor ta
latzetik ziar
nekau-nekauta
bai 'doa,
Nekauta doa
aberrirantza
bidezti gaxo
gaxua.

—

Baso itun ta
lekaro ziar
gorantza beti
ta beti,
Igesi doa
aberrirantza
beria eztan
erriti.

—

Bide ertzeko
arantza latzak
ez jarraitzeko
diñotse;
Sarritan erpe
zorrotz - zorrotzaz
soñetik eltzen
ba deutse.

—

Berak arantza
erpe artian
jantzi atalak
itxiaz,
Aurrera darrai
jaramon barik
erri maitian
goguaz.

—

Norantza zoaz
bidezti ori
norantza oso
nekauta?
—Donokirantza
arin-arinka
bertan zoruna
dago-ta.

GABIREL

Urtarrilla'n, 18'n.

EŔAZTO IÑARDU DAGIKEGUZAN OTURA ONURAGIÑAK

16.ª — Gabeuki (ordu) osua jo dagi janian esan: *Aguŕ Miren garbi - garbija.* — *Eŕuge Sortuba* ta Begoña'ko Andra Miren'eri *Aguŕ Miren...* bat otoi - egin.

17.ª — Miren'en antzeski-auŕetik igarotian, buruba makuŕtutiaz aguŕtu ta esan: *Ene Ama, zeure-zeuria naz: zaindu nagixu.*

18.ª — Leyo-sapaluak idegitian, esan: Gure etxia Jaungo - eskaŕez gonburu bete bedi.

19.ª — Sutia irazaditian, esan: Jaunak nire bijotza bere matasunez gaŕtuagotu begi.

20.ª — Bazkal - apalaldi - auŕe ostian, jakija onetsi ta Jaunari eskaŕak egiñaz, otoi - egin.

BIDEZTIA- J.Z. 1918-091-20

Bide zidor ta latzetik zear
auldu-nekauta baidoa,
nekauta doaaberrirantza
bidezti gaxo-gaxoa.

Oyan itzaltsu lekaro-zear
goirantza betim ta beti,
aberrirantza igesi doa
atzerri yakon luditik.

Biden ertzeko arantza latzak
ez yarraitzeko dirautse,
eta sarritan erpe zorrotzaz
soñetik eltzen dautsoe.

Berak arantza erpe artean
yantzi atalak itxiaz,
aurrera darrai yaramon barik,
erri maitean gogoaz.

Norantza zoaz bidezti ori,
norantza oso nekauta?
-Donokirantza yoran-yoranez,
bertan zoruna dago-ta.

Jaungoiko - Zale

VII' urtia
Amabosterokua

Zornotza 1918'g. Otsailla 15.n

92'g zenbakija
Arpidea laurleko bi

Berrogeikaro'ko lenengo igandia

GOIZPARKIA.

ALDI atan: Goteuna'k (Espiritu Santuak) basartera eroan eban Jesus, gokaiztoak zirikatua izateko. Eta zirikatzallia urreratu yakon eta esan eutson: Jainkuaren Semia ba'zara esan egizu arriok ogi biurtzeko. Erantzuten esan eban: Idatzita dago: gizona ogiaz bakarrik ezta bizi; Jainkua'ren agotiko itz - gustiakaz baño. Orduan gokaiztoak (diabruak) eroan eban uri deunara ta elexaren tontorrean jarrita esan eutson: Jainkua'ren Semia ba'zara buruz bera egizu: idatzita dago ba; Bere gotzonai (aingeruai) zure ardurea emon dautse: ta eskuekaz artuko zaitue zeure oñak arrian topo-egin eztayen. Jesus'ek esan eutson: Baita be idatzita dago: Ez dozu zeure Jaun eta Jainkua ziltzalduko (tentauko). Barriro gokaiztoak artu ta mendi guren-gurenera eroan eban, eta munduko bakalderri gustiak eta arein aintza edo gloriya erakutsirik esan eutson: Gustiok emongo dautzudaz auzpeztuta gurtuten ba'nozu. Orduan Jesus'ek esan eutson: Ken ortik Satanas, idatzita dago ba: «Zeure Jaun eta Jainkua gurtu»ko dozu, ta Berari bakarrik men-egingo »dautsozu». Orduan gokaiztoak itxi eban: eta gotzonak urreratu yakozan eta morroi egiten eutsoen. (MATTH. IV. 1 - 11).

* * *

Kistar maite: Arritu zaitu bear - bada, Jesu-Kisto Jainko-Semia izanik, zirikatua izateak, ta egiz Jainkua zan eta barruan iñok ezin eikian zirikatu: baña geure eredu izateko gizondu zan eta azaletik zirikatuteko lakemena emon eutson txerrenari, kistarroi bere kaltez burruka egiten irakasteko.

Gure bizitza ba, kistar bizitza, illarteraño iraungo daun burruka da. Zeruratzeko naitez egin biar dogu burruka gogorra. Geure etsayak ba, ugariak dira; gokaiztoa, leoi amorratua letxe geure inguruan dabil nor iruntziko; geure girñak gastearotik txarrera makurtuta daukaguz: arrokeriak, zikoizkeriak eta aragikeriak geure biotz barruan dauke iturburua: mundu gaiztoa gokaiztoagaz alkartuta dago geu Jauna'gandik aldendu ta betiko zoriona galdu - erasteko. Au onan dala barriz, ezteritxazu ames dagiala, bake - bakian, burruka barik zerura eltzea uste daunak? Legea emonda dago, lege gogorra, baña legea: *Dura lex, sed lex.* Eta burrukau onurakorra be bai yaku. Lenen geure Jauna'ganako zintzotasuna agertzeko. Geroz apaltasuna ikasi, geure argaltasuna ezagutu ta zerurako irabaziak pillatuteko. Burruka onetan Jauna geure aldez daukagu bere eskar ta laguntasun ugariakaz: ez gara ba, bildurtu biar.

Baña ziltzaldiak ain ugariak ta gogorrak izanda, zelan aspiratuko dozuzan diñozu? Berak irakasten dautzu. Ernai bizi, otoi egin: laztasun eta baru-bidez ezi girña zitalak. Itxaropen osoa Jainkua'gan ipiñi. Iges oben-arriskuetatik eta ez koldartu ziltzaldian, eta Kisto lez garaitzalle urtengo zara. — **Gabirel.**

PULVIS ES... J.Z. 7(1918-92) 27

Auts zaralako austuko zara;
egi au ondo gogaldu
Auts egunean Ama Eleizak
kistar orori diñosku.
Egi au zarra oso dala be,
beti da barri-barria
itxaropena kistar onentzat
txarrentzat bildurgarria.

Arrokerizko axez biotza
gustiz dozuna puztuta,
danak menpean euki nai dozuz
egi onegaz aztuta?
Buruan autsa ezarri eta
Ama Eleizak diñotzu:
Auts zaralako austuko zara;
gizon arroa, gogaldu.

Aberastasun ugaltasunak
biotza dautzu dollortu?
geide gaxoai sorositeko
errukibako biurtu?
Entzun Amaren egi sakona
eta biotza samurtu:
Auts zaralako austuko zara;
gizon dollorra gogaldu.

Lizunkerizko ekandu txarrez
biotza dozu lotuta?
beti lurrera begira zagoz
Yaungoikoagaz aztuta?
Entzun Amaren egi garratza
eta biotza goratu:
Auts zaralako austuko zara;
gizon lizuna gogaldu.

Doipuru ala Bakaldun izan
yakinge nai yakintsua,
txiro gaxorik bizi dan ala
aberats osasuntsua;
entzun gustiok egi garbi au,
Eleizak oroi diñosku:
Auts zaralako austuko zara;
egi au, gizon, gogaldu.

PULVIS ES...

Auts zaralako austuko zara,
egi au ondo gogaldu,
Auts - egunian Ama Elexa'k
kistar orori diñosku.
Egi au zarra izan arren be
beti da barri - barria:
pozgarria da kistar onentzat,
txarrentzat bildurgarria.

Arrokerizko axez biotza
gustiz dozuna puztuta,
danen nagosi izan nai dozu
egi onegaz aiztuta?
Buruan autsa ipiñiagaz
Ama Elexa'k diñotzu:
auts zaralako austuko zara
gizon arroa gogaldu.

Aberastasun ugaltasunak
dautzu biotza dollortu?
geide gaxoai lagunduteko
errukibako biurtu?
Entzun Ama'ren egi sakona
eta biotza samurtu:
Auts zaralako austuko zara
gizon dollarra gogaldu.

Lizunkerizko ekandu txarrez
dozu biotza lotuta?
lurrera beti zagoz begira
Jaungoikoa'gaz aiztuta?
Entzun zuk bere Ama'ren deya
estuntz gogorrok apurtu:
Auts zaralako austuko zara,
gizon lizuna gogaldu.

Doipuru izan nai Bakalduna,
jakinge nai jakintsua,
txiro gaxorik bizi dan ala
aberatz osasuntsua:
Entzun gustiok, egi garratzau;
Elexa'k oroi diñosku:
Auts zaralako austuko zara,
egi au gizon gogaldu.

GABIREL.

Jaungoiko - Zale

VII' urtia
Amabosterokua

Zornotza 1918'g. Epalla 1.n

93'g zenbakija
Arpidea laurleko bi

Berrogeikaro'ko irugarren igandia

GOIZPARKIA.

Aldi atan: Jesus'ek gokaiztoa (diabrua) jaurtiten eban, eta gokaiztoa mingea (mutua) zan. Ta gokaiztoa jaurtita mingeak itz-egin eban eta gizoztiak arritu ziran. Eta euretariko batzuek esan eben: *Belzebu gokaizto nagosiaren izenian gokaiztoak jaurtiten ditu.* Eta beste batzuk zirikatzen goi-alatza (miraria) berak egitea gura eben. Baña Berak euren buru asmuak ikusita esan eutsoen: «Edozein Bakalderri (erreñu) buru kaltez bananduta ba'dago, ondatuko da, ta etxiak etxien gañera jausiko dira. Ta etsayak buruaren kaltez egiten ba'dau, bere bakalak (erreiñua) zelan zutunik iraungo dau? zuek diñozue ba, nik Belzebu izenian gokaiztoak jaurtiten dodazala. Baña nik Belzebu - izenian gokaiztoak jaurtiten badodaz: zuen semiak noren izenian jaurtiten dituez? Augaitik eurak izango dira zuen epaikariak. Baña nik Jaungoiko - indarrez gokaiztoak jaurtiten ba'dodaz, eldu da ziñez zeuokana Jainko ala (erreñua). Gizon indartsu izkilludunak (armauak) atartia zaintzen dabenian, daukezan gustiak bakez dagoz. Baña bera baño indartsuagoa ba'dator ta goituten ba - dau, ustea (confiantza) emoten eutsoen izkillu (arma) gustiak kenduko dautsoz, eta gudakiñak bananduko ditu. Nigaz ez dagona nire aurka da: ta nigaz biltzen eztabenak banatuten dau. Gokaizto loya gizonagandik urten danian, lur-liorrez dabil atseden billa eta idoro ezta diño: urten nintzan, neure etxera atzera biurtuko naz. Eta etorrita, iñarraz garbitu ta apainduta aurkitzen dau. Orduan bai-doa, ta beragaz beste saspi gokaizto bera baño loyaguak artzen ditu, ta sartuta bertantxe biziten dira. Eta gizonaren azken egoera lena baño txarrago egiten da. Ta jazo zan itzok esaten zitualan, gizozteriko emakume batek deadar egin eta esan eutsola: Zu eroan zaitun sabela dan zoruntsua, ta zuk artutako bularra zoruntsuagoa. Baña Berak esan eban: *Ain zuzen be, zoruntsuak Jaunaren itza entzun eta zaintzen dabenak.* (Luk. XI, 14 - 28).

* * *

Kistar maite: Gaurko Goizparkian Jesus'ek irakasten dausku oben - bidez geure barruan sartzen dan etsaya Satanas jaurtiten. Geure barruan gokaiztoa sartzen danian, adimena illunduten dausku, zerutar egia ikusteko, ta miña lotuten dausku geure obenak aitortzeko; Goizparkiko gaixoa lez itsutu ta mutututzen gaitu. Ta zelan jaurti geure biotzetik? Aitorkuntza onen bidez, ta erabagi zintzoen bidez, Kisto geure barruan sartuko da, ta Satanas baño sendoago dalako, izkillu gustiak kendu ta jaurtiko dau geure biotzetik; ta bein ori egin ezkero, zain barriro iñoz obenik egin eziteko ta gokaistoari biotzian tokirik emon eziteko. Beti Kisto'gaz bat eginda egon, beti bere laguntzagaz jardun etsayen aurka. Jesusek diño ba, Beragaz eztagona bere aurka

dagola, ta Bera'gaz biltzen eztabenak banantzen dabela. Jaurti kistar - bizitzan epelkeria, ta, Jesus'ganako maitasun zintzoaren bidez, itxi etsayari zeure biotzeko atiak. Satanas'ek beste gokaizto batzuk, lagun dituala zeure barruan barriro sartzeko egingo dituan alegiñak ezereztu ta beti garaitu daizun.

GABIREL

Doibatz - Egutegija

IGANDIAK: 3'gn.; 10'gn.

Igande gustijetan kistaŕ orok jaupa osua entzun - biaŕ dogu ta otsein lanik ez dagikegu.

EGUN IXENDABAK: 1'gn. Ilaren lenengo barikuba: barau ta aratuzte-eguna.

Ilaren lenengo bederatzi bariku jaŕaĺubetan, biaŕ dan eraz, Jaunaŕtza ba'dagixu—Josu-Kisto'k esan eban—donokija zeuria dozu.

2'gn. Barau-eguna.

4'gn. Deun-Pantzeska Jabier'taŕari bederatziuŕen eskaŕtsuba asteko eguna.

6'gn. Barau-eguna.

8'gn. Barau ta aratuzte-eguna.

9'gn. Barau-eguna.

10'gn. Deun - Joseba, Miren Deunaren Eskonari bederatziuŕena asteko eguna.

13'gn. Barau-eguna.

15'gn. Barau ta aratuzte-eguna.

Aratuzte diñogunian, buldadunentzako be aragija izteko eguna ixendatzen dogu. Aratuztez ba, saspi urtedun díran kistaŕak aragirik ez aragi-saldarik ezin jan daike. Koipia baña, edozetarikua, lapikokuaz naiz aŕañaz jan daike.

Jokin.

Guzurraz goratzen diranak, egijari kalte-egiten dautsoenak dira, baña bere edertasuna ezagutzen dabe.—*Aparisi.*

Kistar - Tkasti atzalbena

Jainko-Legeko irugarren agindua

III

JAYEGUNEKO GOGO - ARAZOAK

g) *Ikurtonak* (Sakramentuak) *artu.* Jayegunez aste barruan egindako utsak ordaindu, ta urrengo asterako gogoak sendotu biar ditugu. Onetarako biderik onena pekatuak autortu ta Jaunartzia da. Lenengo kistarrak jaupaldira (mesara) eltzen ziran gustian, Jaunartzen eben. Oitura eder au barristau nai dau gure Eleiz Amak. *Ogi au jaten daunik ez da ilgo*, agindu eban Josu-Kisto'k. Gure biotzak garbitu, zerutartu, ta gure girna txar gustiai eutsiteko indarra damosku Jesusen Gorputzak.

i) *Otoi egin.* Igandeko otoya, Kistarbatzaren otoya da. Ez dira *bi* edo *iru* Jesukisto'ren izenez otoi egiteko batzen diranak, gizadi osoa da igandez Jainkoaren aurrian belauniko jarri, ta bere besuak, eta bere biotzeko oyua ta diarra Goikoaganaño jasotzen dituana.

Igandez Doipurua (Aita Santua) Erroma'n, Gotzaña goterkian eta txaunburua (parrokoa) ta kistarrak Jauna'ren Etxian batzen dira, organuaren ots itzal gozuaz ta kedatzaren usañaz, Jainkoa'ri otoirik ederrena egiteko, Jauna'k beti atsegiñez aditzen daun otoya.

Doibatzak (Eleizak), Jesukisto'ren Ezkon maitiak, kistar gustioen izenez dagi otoi au: Kistar gustioen biotzeko oyuak, eskariak, pozak eta negarrak bere eskuetan artu ta Jainkoa'ri eskintzen dautsoz; batzuetan samurkiro, leunkiro, maitiak maitatiari lez, eskintzen dauna iristeko uste betiaz. Beste batzuetan bere semien zoriaz ernai ta artega dagon amaren diarra

KEZKIA

Arantza gustiz zorrotz-zorrotzak
biotza dausta zulatzen,
iñun ta iñoz unetxu baten
ez - dot bakerik aurkitzen.
Ezta niretzat ludi gustian
atsegintzen naun gauzarik
ez - dakust iñon neure biotzau
zoriontzeko biderik.

—

Zertako nagon ludi onetan
norantza noyan ez-dakit;
apurtxo baten atsedentzeko
tokia iñun ez daurkit.
¿Zer egingot ba beti artega?
¿Non aurkitukot bakia?
«ez dok iretzat—diñost biotzak—
ez dok iretzat ludia».

—

Zetan nabil ba zoro-zororik
ludi zitalen ondoren?
Zetan nabil ni atsegin txarra
itsu - itsuan maitatzen?
zorion ordez kezka zorrotza
baño ezpadaust emoten:
zetan nabil ni, diñot barriro,
gaiztakeria maitatzen?

—

Argi-egarri bizi-bizia
ba dot barruan sometan
ero ete naz beti ibilteko
girna gaizto illunpetan?
Egarri bizi ase eziña
ba'dot neure biotzian
¿Zetan nabil ni bidea atuta
ur - ustelaren atzian?

—

. . . . . .

. . . . . .

Eta ainbat kezka ta mingostasun
emon daustazan ludi au:
zelan ez dot nik orain artian
biotz - biotzez gorrotau?

. . . . . .

. . . . . .

—

Agur ludia beti-betiko
agur gaurgandik gogotik:
Eztautzut geyau agur egingo
igarotian ondotik.
Bakar-bakarrik maiteko dot nik
Jaungoiko Aita On-ona
Bera dalako argi bizi ta
biotzarentzat zoruna.

GABIREL.

Arerijuaren - Palaguak

Gau ozkaŕbi, epel eta atsekoŕ batean, baratza-etxanuan eguan Eŕikaŕta, gixon zintzo ta kistaŕ benazkua bere bijotzeko zatitxu edo sengijaren erdijan ipuin goŧaŕakaz txikitxuben adiña argiŧu ta guramena ondu ta bigunduten, leyotik txiribiri txiki polit bi uŕe-janzkoŕi edeŕez apaindūriko egotxubekaz saŕtu ta alai-alai, zertxubait aŕopuztuki; gora ta beŕa, jira ta biraka neskamiak lentxubago bizkoŕ-bizkoŕ ixetu eban argi edeŕaren inguruban egazka ta jolaska asi ziranian. Eŕikaŕta'k ondo ekijan argijaren onduan eukan galtzorija. Beraz alegiñik asko egin eban uŕindu ta ixatuteko, baña gustijak alpeŕik, eurek ez eukielako beste tokiŧan atsegin apuŕik be.

Iroireki gitxi-buru, euretarik bat, argijaren palagu ta edeŕtasunak atzipetu ta itxuturik-edo, jausi zan subaren sarietan eta ego polit-dotoriak eta izter miak eŕeki, mai ganian eguan luze-luze, guen arnasa estu ta laŕija emon eziñik.

* * *

Ene semetxu maŧe-maŧiok,—diño orduban aŧak, txiribirija ilda eguan alderuntz

—Mutilko, Jaun-Goikuaren bendeziñoa etoriko da zugana.

Bigarren eta irugarren egunean bere ori gertatu zan, baita eurerantzean bere, bada mutiltxoa kale - ertz atati, goxoa eskuan ebala, igaroten zaneko, beti an zan eskekoa.

Beñola beti lez eskekoari goxoa emon da etxerantza, bere izekoaren etxerantza, joyala, bere guraso laztanakaz gogoratu zan, aspaldian ikusi barik eukazan ta. Aitatxoagaz ta amatxoagaz gogoratu orduko naigabetu zan, biotz bigunean zauritxuren bat egin yakon, gurasoak ikusiminа etori jakan-eta. Onetan entzun eban Jesukistoren deya, esaten eutzana: «Ire gurasoak i azko maite izanarен ez dituk beti igan pentzauten egongo, ezin leitekez beti igan pentzauten egon, baña Ni beti nagok igan petzauten».

Lon'ek Josukistoren itz (berba) onek ondo ulertu ebazan. Aurrerantzean Josukistorentzat bakarik bizi izan zan.

¿Guri ez diñosku iñoz, Jesukistok olango itzik?

JATAMENDI.

NASKALDIJA

Otoyatzaz oldozkunak.— Otoya biarbiarrekua da geure gogoa gaizkatzeko, baña bere indarra ondo egitean dago. Onetarako onurakorrak izango yatzuzalata oldozkunok ementxe euzderalduta ipintia otu yat.

«Gizonaren biotzetik urtenda zeruraño eltzen da otoya, lurretik urtenda lañoetara igon eta euri onurakor biurtuta jausten dan lurruna lez da: eta biotz otoi egillera otoyak bialtzen daben euria, Jainko-eskarrak dira. Eurak betetan dabez geure ízate obenkoyaren barrenak, eurak indartzen dabe geure naimena bizitza bidian jarraitu, ta bidian aurkituten doguzan aldapa zorrotzak igoteko. Ondo egin, eta Jainkoen aízkide dan biotzetik urteten dan otoya, uts barik egikorra da legea bete ta geure gogoa gaizkatzeko biar dogun eskarra lortuteko».

(Torras eta Bages. Pasto. 1'go tom. 260'garren ing.)

«Uste (konpiantza) barik otoi egitea mai ganian idazki bat idazkun onegaz ipintea lez da: *Eztautsie erantzungo;* ¿zegaitik ba bialdu?

Oldozkun ituna (triste) ta kaltegarria. Jainkuak beti erantzuten dau: gizonen artian ondo eretxia baño eztana, Jainkua'gan bear-bearrekoa lez da.

Arreta barik otoi egitea *idazki bat zuzentza barik Jainkua'ri bialtzea lez* da. ¿Zergaitik ba arritu Jainkoa'k erantzuten ez padau? Jainkoa'k gure biarizan gustiak ezagutzen ditu: egia da: baña eskatzeko otoi egin dayogula gura dau, onan geure menpetasun eta ezereztasuna autortzen dogu-ta». (Sylvain)

GAMA.

Erantzun ederra. — Perderika Prusia'ko bakaldunak (errege) bazkaltzera deitu eutson bein lekaide (pralle) bateri, bere lepotik barre egiteko asmuagaz. Bazkaltzen egozala esan eutson: Ezaidazu aba: Zeure eretxiz Lege zar eta Barriko alatz (mirari) andiena ¿zein da? Bear bada, esan eban erregen inguruko batek, Eli igarliak suzko burdian bizarrak ganerre barik zerura igotia izango da?

—Ez jauna, erantzun eutson ben-ben lekaidiak, Lege Zar eta Barriko alatzik andiena da Balan'en astoak iñok galdetu barik itz-egitea.

G.

Itaun - Erantzunak

Idazki-labuŕ (Bulda) baŕiko goxariña

Itauna. — Gernika'ko landolatik ekaŕita euŕez zabaldu da Bizkaya'n *esnautza,* au da, esne irindua edo ura kenduta: beronen ontza bateko (30 gramo) esnautzagaz egiten da ur beruan irabijauta kuartīlo eŕdiko esne bizduna. Beraz, aberatsak landolan erosten dabelako goxariñan aŕtu al badagije ontza-bat-ogi kuartīlo eŕdi esnetan, abelgijak edo lekaimiak ¿ezin aldogu egin beste oŕenbeste beyaren eŕotik aŕtuta....?

Lekaime batzuei erantzuna. — Barauteko goxariñan aŕtu leikez 60 aztaki (gramo), (au da, ontza bi) lobelik aztatzeka (edo edakirik pixutu baga). Beraz, esneak daukazan lez uretan euneko 87, baita aŕautzak euneko 73, aŕtu leikez 30 aztaki (ontza bat) ogi, kuaŕtīlo eŕdi esnegaz, eta ganera akeita (kafia) guraña biaŕ dan barezti edo azukeriaz: eta baŕdin aŕautza bat ontza bateko ogijagaz... eta ija - ija esan nengike aŕautza bi, ogi apuŕ bategaz. — Zegaitija — Aŕautza bik eun aztakietan (100 gramos) baŕdinguak ixanda, uretan euneko 73 euki ezketiño, 27 aztaki bakaŕik, au da, ontza bat baño eztaukolako alitzat edo jakitzak (janaritzat).

Aburu edo eretxi au bayeztu ta onesten dabe A. Amor Ribal'ek, *La Bula Española y sus privilegios*-en, *184* ta *200-g.* ataletan. Teodoro Rodriguez'ek, Agustindaŕen *Ciudad de Dios* - en. Aba M. Lopez'ek, *España y America*-ren 6'gn. atalian, 542 ingoskijan. Eta iñok baño aŕgijago Miguel Mostaza, Josulaundaŕ Abak, 1916'ko Lotazīla'ko *Sal Terræ* aldizkingijaren 59'garren ingoskijan.

Paskoaz Jaunartza. — ¿Noz asi ta betetzen da aurten Paskuaz Jaunartzeko epia?

Paskuaz Jaunartzeko epia aurten berrogeikaroko laugarren igandian.—Epailla 10'gn.—asten da, ta Igaratz bigarren igandian — Jorralla 14 garrenian — bete. Bitarte orretan Jaunartu biar dozu ba, Eleiz agindua egiteko.

Geure Diputaduei

Zorijon agurra.

Oraintxe da urtia: Diputau Porbintzialetako auteskundiak izan ziran eta gure *bost* bazkide Diputau urten ziran. Orain barriz, Kortietarako auturikoen artian *bi* geure bazkidiak dira: Sota - Llano ta Errotaetxe - Belasko jaunak.

Iges esan genduna gaur be diñogu: **Jaungoiko-Zale Bazkunia**'k politikarik ez dauko; baña poztu biar da bere bazkidiak Diputautzako ututen dabezalako; 1.º aonan Bazkunia goraltzen dalako ta 2.gn. batez be gure bazkidiak lako Katoliko onaen eskuetan orretariko arazuak ipinten diralako: **Jaungoiko-Zale** bazkide zintzua bada, Katoliko onenetarikua izan biar. Beraz emon leikijoez ardura barik autarkijak.

Artu begije, ba, geure Diputauok Bazkuniaren zorijon agurra, ta bemotse Goiko Jaunak zurtasuna ta adoria Kongresuan Erlegiñoaren alde ta Euzkal-Erria'ren alde lan egiteko.

Eta Diputau urten daben beste Katoliko gus-

Jaungoiko - Zale

VII' urtia
Amabosterokua

Zornotza 1918'g. Epalla 15.n

94'g zenbakija
Arpidea laurleko bi

Nekaldi - igandeko Goizparkia

(EBANJELIUA)

ALDI atan: diñotso Jesus'ek judar aldriari. ¿Zuetariko nok aurkituko dau Nigan gaiztakeria? Eta egia ba'diñotzubet, zegaitik eztaustazube ziñesten? Jainkuarenak Jainko-itzak entzuten ditu. Alan ba zubek eztozube entzuten Jainkua'renak etzarielako. Judarrak erantzunik diñotsoe: ¿Ez ete dogu zuzen esaten, Zu Samaritarra ta etsaiduna zarala? Jesus'ek erantzuten dau: Nik eztot etsairik (diabrurik); Ene Aita goresten dot, zubek barriz Neu laidotzen edo desondretan nozube. Ni enabil Neure aintzaren edo gloriaren billa, bai-dago billatu ta epaituko dauna. Egiegiaz diñotzubet, Nire berbia beteko daunak eztau egundo eriotzia txastauko (probauko). Judarrak diñoe: Oraintxe dakigu etsaya daukozula. Abran il zan eta Igarlak be bai: Zuk, barriz, diñozu: Nire itza beteko daunak eztau egundo eriotzia txastauko. ¿Il zan geure Aita Abran baño andiagua ete zara? Igarlak be il ziran. ¿Nortzat zagoz zeu? Jesus'ek erantzuten dau: Neu goresten ba'naz, Nire aintza edo gloria utsa da: zeuen Jainkua dala diñozuben eta ezautzen eztozuben Ene Aita da Ni goraltzen nauna: eta Nik ezautu neban Bera: eta esango ba'neu eztodala ezautzen, ixango nintzake zeuen antzeko guzurtia. Baña ezautzen dot eta Bere berbia bete be bai. Zuben Aita Abran, poz-pozik eguan Ene eguna ikustiarren: ikusirik atsegindu zan. Judarrak diñotsoe: ¿Oraindik berrogetamar urte eztaukozak eta Abran ikusi dok? Diñotse Jesus'ek: Egi-egiaz diñotzubet Abran sortu baño lenakuagua nazala. Judatarrak arriak artu ebezan ba Jesus'eri jaurtzeko: baña Jesus eskutau ta elexatik alde zan.

Z. M.

Doibatz - Egutegija

IGANDIAK: 17'gn.; 24'gn. Abar - Igandia. 31'gn. Josu-Berbizkundia, kistarentzako jairik nagusijena,

JAI OSUAK: 18'gn. Deun Joseba, Miren Ama Neskutsa'ren Eskona, erijotza ona egiteko berarizko zaintzalia.

Igande ta jai osuetan kistar orok jaupa osua entzun biar dogu ta otsein - lanik ez dagikegu.

EGUN IXENDABAK; 15'gn. Barau ta aratuzte - eguna.

16'gn. Barau-eguna.

20'gn. Barau-eguna.

22'gn. Ama - Neskuts Nekatsuba; barau ta aratuzte - eguna.

23'gn. Barau-eguna,

25'gn. Astelen - Guren; Ama - Neskutsa'ri Deikundia, ta Jaun-Goiko-Semia-Gixakundia, jai osotzat zaintzen doguna.

26'gn. Astarte-Guren.

27'gn. Egubasten-Guren; barau-eguna.

28'gn. **Eguben - Guren.**

29'gn. **Bariku - Guren.** Barau ta aratuzte-eguna.

30'gn. Larunbat - Guren; barau-eguna.

Kistarak aste gustijak Jauna'ri eskiñi - biar ba'dautsoz, Aste - Gurena, ziñez, eskiñi - biar

. . . . . .

Ematzen du azkenez, Aingeruak Amatzarako eskatzen ziyon baimena; baña, izandu zan, bere garbitasunaren kalte gabe Semia izango zuala jakiñdakoan; aditzen du Maria'k: Goitik etorriko zayon Espiritu-Alaigarriyak itzalduko duala, ez duala gizonagandik Amatasuna iritxiko, animak doayez apaiñtzen dituanagandik baño, ta gauz miragarri oyek entzun da gero, Birjiñtasunaren akatzik gabe Ama izango zala jakiñdakoan, orduan diyo: *Fiat mihi secundum verbum tuum.* Egiñ dedilla nigan, zuk esan bezela. Zerua begira zeukan Maria'k itz oyek esanaz batera, Gizontzen da Betiko Aitaren Semia Birjiñarik ederrenaren errai garbiyetan, ta oraiñ arte *Graziaz betia* zegoan Maria, gelditzen da Zeru-lurren Egillearen jabe; berekiñ dauka Aingeruak zoriontzen dituana; Semia du Jesus».

Et verbum caro factum est et habitavit in nobis.

Jaungoiko Errukiorra

Mutikotxuentzako

Bein baten bidezti batek geltoki edo estaziñotik urtenda saspi-sortzi urtedun mutiko bat aurkitu eban oñetakoak garbitzeko tresnadun kutxa eskuetan eroyala. Mutikoa aurreratu yakon eta leunkiro itandu eutson:

—Jauna, oñetakoak garbitzea gura dozu?

—Bai, pozik be — erantzun eutson aguratxoak mutilkoaren betarte gozuaz liluratuta.

Aguratxoa jarten da: ta mutikotxuak lurrean beleunbikotuta igurzten dautsoz oskin edo zapatok gogo gustiagaz disdiratsu ipiñi arte.

Bere zeregiña amaituta, mutikoak beleunbiko jarraitu eban: gerotxuago burua jaso ta irribarre gozoz bidestiari begiratuten eutsola, itandu eutson:

—Jauna: Jainko errukiorra asko maite dozu?

Itaun onegaz bideztia arrituta geratu zan, eta esan eutson:

—Baña... ¿zer dala-ta itanduten daustak ori?

—Ba zeuk Jainko ona asko maite bazendu, neure ama ta neuretzat bizitegi bat zuzenduteko eskatuko neuskizu. Biar etxetik atarako gaituez, ta neure amak esan daust Jainko errukiorrak gustia emoten dautsiela asko maite dabenari. Nik uste dot zuk maite dozula, on antza daukazu-ta.

Bideztia biotz - ikututa geratu zan. Eta

—Eure ama ikusi gura yoat — esan eutson.

Pozez beterik mutikoak eskutik oratuta bere etxera eroan eban.

Laugarren oñeko bizitegi txiro batera eldu ziranian, mutikoak deadar egin eban

—Ama, emen da jaun bat Jainkoa asko maite dauna, ta emetik bota eskaizan beronek lagundukozku...

Orduan bideztiak begiak malkoz beteta esan eutsen:

—Emen daukazuez ogei ogerleko, artu egizuez. Otoi nigaitik ta beti uste bizia Jainko errukiorragan euki.

* * *

Mutikotxu onek kistar askok baño obeto ekien, Jon deunak Jainko ta geide edo projimua ganako maitasunatzaz esan ebana: «Mundu onetako ondasunak daukazanak, ta bere anaya bearrizanean ikusita, bere errayak isten ba'ditu beragaz errukitu eziteko, bere barruan Jainkoagako maitasunik eukitea, ¿zelan izan leiteke? (Joan, III - 17).

GAMA.

Itaun - Erantzunak

Agiñekaz ikutu.—¿Pekatu ete da Ogi Deunari agiñekaz ikututia? — Ogi Deunari agiñekaz ikututia edo puskatzia ez da pekatu. Agiñak aretakoxe emon euskuzan Jainkoak; janaria puskatzeko. Ogi Deuna'ren itzalez, orratio, obe da agiñekaz ikutu bage iruntzitzea.

Txistua bota. — Zure aizkide ori oker dago, Ez dozu kezkaz egon biarrik. Ez da pekatu, ez urrik emon be, Jaunartu ondoren, barausi baño len txistua botatia. Ez da olakorik ziñestu biar. Ogi Deuna iruntsi ezkero, noznai txistua bota zeinke.

Ezpayan. — Aspaldi gabiltz ezpayan. Nire lagunak obe dala Ogi Deuna aboan erabilli, Jesus'ekin maitasunez atsegintzeko, ta nik obe dala beriala iruntzi. ¿Zer diñozu? — Obe, ta askoren eretxiz biarrezkoa, dala beriala iruntzi. Jaunartza janaria da, jana irunsten danetik da. Jaunartza be, Ogi Deuna iruntzitzen dogunetik asten da, goi-eskarra emoten; geu gertuago ta ugariago.

Jaungoiko - Zale

VII' urtia | Zornotza 1918'g. Jorralla 1.n | 95'g zenbakija
Amabosterokua | | Arpidea laurleko bi

Hosanna Filio David

¡Gora Dabi'ren Semia!

Iñok esan bier etzare kistarok, abesti aintzadun orekaz Abar-Igandian, gertuten dala urtero-urtero Doibatz - Deuna bere seme ta alaba aundi ta txiki, zindo ta etzinduai txadonara deituta, Jerusalem ataiko bidean, abar onetsijak eskuban dirala, Josu'ri, egiz, arera ona eiteko, Jerusalem barura sartu-arte gustijan.

Juan ba, Abar-Igandian, kistarok, alegiñaz zeuben txadonara, bijotzan eta arpegijan abegi gozuagaz, Josu'ri bidera urteteko; beste obiago bateri etzayakoze urtengo, Josu gixonaen Gaizkale ta Erosliari baño-ta. Baña juan elizkixun oren ikurpena gogo barnan ondo sakonduta, nori ta zelan urteten zarian gomutan bixibixi dozuela. Nori bidera urteten zayakozan, ibildeun oretan bai'dakizube: ilei bixija, gexubei osasuna, itsubei ikusmena, obendijei azkespena (parkaziñoa), ta orain gixonagaitik nai osuagaz bere bixitzia emoten datorenari. Ondo irabazita daukoz Josu'k, gixonak egin aleyozan arerarik sutsuenak, abestu aleyozan ereserki estitsuenak, eta esan aleyozan gorespen aintzatsubenak, gixon ori ezpada, judatar jaupari-nausi ta eriko epaikari antzera, biotz zeken eta zitala. Egun oretako ibildeunan esan ba, bijotzez eta aboz zintzo ¡gora Dabi'ren Semia! ¡aintza Jaunaen ixenaz datoren geure Bakaldun - Erosle Josu-Kisto'ri! Igazko urtian Berari ereserki deun orek abestu eutsezan kistar askok, aurten ezingo dautsez beintzat, emen ludijan. Eta aurten bidera urtengo yakozan kistar askok, datorenian ezingo dautse. Ez galdu ba Josu'ri agur eiteko era bakar bat be. Gogo-begijak itsurik eta bijotza zeken eta zital Josu'ganako susmetan ba'dozube, Jeriko bideko itsua lez aspertu baga ta iñon ardurabaga didar eiyozube: «Dabi'ren Seme Josu, eruki gutzaz; Dabi'ren Semea, erukija». Geure itsutasunaen zoritxar gustija, Jauna, ezautu-erazo eiskuzu. Obendijak ba'gara be, geure oben gustijen azkespena ta gogoentzat erugetasuna, ta eskara ziñesmen zolibategaz emoiguzu. ¡Gora apaltasunez beterik, ikasle ta ostien erdijan asto-ganian datoren geure Erosle betikor Bakalduna! Onetsi, Josu, kistar txiro aunen abarak eta goguak. Baña ez une apur baterako; onetsi egizuz, gogoz eta aboz *Hosanna Filio David* abesten zeure bakal-errdonokijan sartu arteko.

Arupe'tar
Jaupar'ja.

Eguben Guren. — Azken Aparia

Ziñez egun gurena, ta egun gustietarik ospetsuena ta gomutagarriena.

Eguzkiak bere izpirik gorienak sarreran agertzen ditu. Jesukisto'k, bere Biotzeko maitasun izpirik gorienak, bizitz arratsaldian agertzen dauskuz. Aita'gana juateko aldija eldu zan. Maitiai azken agurra egiteko ordua bete zan. Jesu-Kis-

izerdiarekin, lur guzia bustitzen zuela.

Baña zer izerdirekin, uste dezu? Gañerakoen izerdiaren aintzurako, edo idurikо izerdiren bat batekin? — Ez, baizik odolezko izerdi arrigarriarekin: ta lurreraño tantaka zerion odolezko izerdiarekin.

Au zuk ekusi ezkero, errazki ezagu dezakezu zer tristura ziran, ta zer illuntasunak, Jesusen Biotzak aldi artan ekusi zituen tristurillunak.

Eta ez ote ziozkan Aita Eterno maitagarriak arindu izandu bere Seme maite Bakar Jesus, odolez izerdituari, bere biotzeko tristura illunak, onenbat otoitz eta otoitz, onen luze-onak Jesusi ekusita bazen ere? — Zerbait, bai, artarako berariaz igortzen ziola bere aingeruetatik bat; eta, aldi artan Aita Eternoak au ez-egitera, an bertan ill bearra zen noski Jesus maitagarria.

Baña Aingeru onak egin bazuen ere guztiz ederki bere lan au, edo Aita Eternoak emanikako egitekoa, Aingeruaren arintza guziarekin ere, agitz gogor - pisu - arrigarriak gelditu ziran Jesusen orduko neke-penak, eta tristura illunak: eta orienpean illik ez gelditzeaz gure Jesus maitagarria, Aita Eternoaren laguntz onari eskerrak, eta Jesusek berak guri zigun bazterrik bageko bere amoreari; bada Jesusen amoreagatik, eta bere Aitaren milagroz ez izatera, orduko bere tristurak, illuntasunak, odol - izerdiak, eta biotzeko nekeak illotza utziko zuten Jesus maitagarria Jetsemaniko baratzean: ain andiak ziran oriek, eta ain izugarriak!

Aita Mendiburu'ren OTOITZ - GAYAK deritxon idaztitik artu dogu atal au. Euzkel idazti ederrenetarikua da berau, ta Tolosa'n, Eusebio Lopez'enian saltzen da.

Adoramus te, Christe

Bein baño geyagotan irakurri det Ebanjeliua erlijiuaren laburgo ta guna dala, ta alaxe da.

Erlijiuak irakasten digu zer ikasi ta zer egin; baña ikasi ta egin bear deguna, guzi-guzia ez bada ere, geyena beintzat bai, Ebanjelio santu ta donean arkitzen da.

Ebanjelioa irakurtzen degunean, ikusten degu Jesus gure Jauna, Erosle ta Jaungoiko maitagarria zeruko erreiñua gizar-

tean barreatzen, animaren janaria, au'da egiak irakasten.

Ebanjeliuan agertzen zaigu gañera Jesus, mirariz (milagroz) lurra estaltzen, gizonak ondasunez betetzen: gorrak entzun dute, itxuak ikusi, mutuak itz-egin, gaxoak osatu, negarrez daudenak poztu, illak piztu, denari on-egin, iñori txarkeri bat ez-egin... orra Jesu-Kristoren mirariak Ebanjeliuak dionez.

Ebanjeliua sarritan irakurriko balitzake, maiteago izango lirake siñismen eta fedeko egiak: era berean maiteago Jesus txit ona, gizonen alde ainbeste mirari egin dituana.

Zuzen esan zuan Agustin doneak Jesu-Kristoren mirariak bere biotzaren biguntasunak zirala, eta ez bakarrik bere Jainkozko almenaren agerpenak.

Irakurri det era berean gurutza Santua Ebanjeliuaren laburgo ta guna dala, ta alaxe da: Jesu-Kristo gurutzean, ori da erlijio guztiaren guna ta mamiña.

Maisu bezela, gurutzetik birtute guziak irakatsi dizkigu; Erosle (edo Erredentore) bezela, zerurako erosi gaitu.

Liburu bedeinkatu ortan, gurutzan, *ikasten* da: Jaungoikoarenganako *lotsa*, *erlijio* ta *maitetasuna* olako itz oyetan: *Pater, in manus tuas commendo spiritum meum.* Aita, zure eskuetan ipintzen det nere arima.

Errukitasuna, beste ayetan... Aita, barka zayezu, ez dakite zer egiten duten.

Gaur bertan nerekin gertatuko zera zeruan: itz oyek erakusten digute *otoitzaren indarra* eta Iesusen *errukitasun eta maitetasuna;* eskatu baño geyago eman zion lapurrari Jesus on-onak.

Agirian daude *nosnereite* edo *eskumendea,* bada etzan il bere Aitaren aginteak bete arte; CONSUMMATUM EST... *txirotasuna,* bada gurutzean arkitu zan ezer ez gabe; ez dauka lagun ez adiskiderik; ez soñerako estalkirik; ez edateko ur tantorik; ez da ere il ondoren obi edo sepulturarik.

Jesusen *karidadearen* agerpenak dira arako itz oyek: *Sitio;* geyago, oraindik geyago animen eta gizonen aldez.

Batezere bere karidadearen agerpen neurri gabea da Jesusen eriotz ikaragarria kurutza santuan.

Adanen pekatuak guziok ondatu; Jesusen eriotzak guziok salbatu gaituzte.

Erregen eta agintarien ezpata zorrotzak menderatu oi dituzte gizonak eta erriak, Jesusek gurutza done edo santuakin menderatu gaitu gure onerako; besteak menderatzen dute gizonak il-da, Jesusek bera il-da.

Naiz izan gizonik gaiztoena, naiz bere biotzean munduko pekatu guziak daroazana; Jesusen odol tanta bat bakarra asko da gizon arren pekatuak desegin eta barkatzeko.

Gañera,— eta ez aztu esatera nuana,— Jesusen eriotza santuak ekarri digu beste neurri gabeko ondasun bat. Ara zer dan: Eriotza berez garratza ta bildurgarria da; pekatarien eriotza ikaragarria izango zan. Baña Jesus aiñ ona izanda ere *eriotz* guzien artean garratzena, gurutza batean jasan nai ixan du, bere ikasleen edo kristauen eriotza biguña ta goxua izan dedin. Orregatik ikusten degu apaizak, bein baño geyagotan, beti, esango nuke, nola iltzen diran gure erri bedeinkatu oyetako kristauāk pozez eta Jaunaren pake, alaitasun eta karidadean.

¡Kristauak! irakurri sarritan Ebanjeliua; ezarri sarritan zuen begiak Gurutza donean. Eta ikusirik nola il zan bildotzengatik Artzaya; soldaduengatik Erregea; apaizengatik Aita Santua; morroyengatik Nagusia, gizonengatik Jaun eta Jaungoikoa, esan desatela bildotsak, soldaduak, morroyak, apaizak eta era bat gizon guziak:

Adoratzen zaitugu, gure Jaun Jesu-Kristo, laztantzen zaitugu, gurutze donean erosi gaituzulako.

MATEO MUJIKA,
Burgo de Osma'ko Gotzain autua.

BARIKU GUREN J.Z. 1918-095-057

Oron artean oroigarri dan bariku baten
izpi argiak ostendu ziran eguzkian,
illuntasunan estalki baltza zabaltzen zala,
gauza gustiak geratu ziran itzalpean.

Gizadi oro geldu-geldurik ixilduten da;
abere, egazti, oyu larri ta orruakaz,
ixiltasuna austen dabenak bakarrik dira
axe ekaitzkorrak egiten dauzan uluakaz.

Lurra dar-darka azken zotiñak emoten letxe,
mendi-arkaitzak ikareagaz zatituta,
obietatik illak bizturik urten dira,
ezautzeztaben indar ixilak bultzatuta.

Ludi zabal au illunpetzeko zer gertatzen da?
Noren aginduz izpiak gorde eguzkiak?
Arkaitz gogorak zeren indarrez zatitzen dira?
Zer dala dar-dar lur zabalaren eustazpiak?

Yakin nai daunak yaso begiak Koskotegira,
oldoztu ondo biotz samiñaz gerta zana,
ta galde onek urtengo dautso espanetara:
Zelan betiko etzan ondatu ludi dana?

Gurutza baten zinzilik dager Yainko-Semea
esku ta oñak untze gogorrez zulaturik,
buru deun-deuna arantza latzez inguratuta,
Biotz samurra burdin ankerraz zauriturik.

Esku ongiñok zer egin eben ludi onetan
gurutza bati untzez yosirik ipinteko?
on ta zoruna biotz danetan zabaldu eta,
nor ain ankerra gaiztakeri au egiteko?

Obendioen maitetasunez erririk-erri,
ainbeste bider nekatutako oin maiteak.
Zelan zagoze gogor bai gogor untzez yosita,
erruki barik zelan zagoze zulatuak?

Biotz maitekor, Biotz bigun ta Biotz onena,
neurri bagarik gizonok maite dozuzana,
Esker gaiztoko burdin ankerra nok egiña da
erruki barik erdibituten zaituana?

Gizonon zorrak Yaungoikoari ordaintzearren
gure obena beraganduten ebalarik,
gu gaizkatzeko gurutza baten ixuri eban

Yosu maiteak odol gustia neur i barik.

Neure oben ta gaiztakeriak ipiñi zaitu,
errugeori, gurutza ortan untzatuta.
Zelan ba daukat neure biotza garbatu barik,
zelan ez daukat damutasunez zatituta?

Esker-gaiztoko biotz gogorrok ikusirik ba,
dar-dar egiñaz, mendi-arkaitzok, erdibitu,
ia biotzok lur zotin eta ikareagaz
Yaun maiteatzaz egiten diran errukitu.

enez jausten da, zutzaz eŕukiīu da, etzanda dagon tokiīik begizkatzen zau, ta, jauskoŕa-be-jauskoŕa zarala ondo - ondo dakijala bera jausijaz adirazorik, bera lez zutundu zagixala dirautzu.

Beŕeun oinkartedun bidian iru bidar jausi zan aŕen, iruretan jagi zan.

Irugaŕenez erijotza-uŕ-uŕian jausi zan, geyago ezin ebala-ta, etzan bertan geratu; nekezka baño ezpa-zan be, jagi, ta Aīa Betikoŕak imiñi eutson agintzea, gaŕatza-be-gaŕatza zan aŕen, oso-osoz bete eban.

Zure buruba jausiīa ta sakon jausiīa ikusten dozun aŕen ba, nagikeriz estaltzen dan aŕokerija kendu, Josu'ri oratu, bere gurutza besaŕkatu, ta, Jaunak zuretzat ixendau daun Golgota mendira igon zadiz, Josu'ren albuan ildeko.

Belaustegi'taŕ Pantzeska,
Jauparija.

BARIKU-GUREN

Oron artian oroigarri dan bariku baten
argi izpiak ostendu ziran eguzkian;
illuntasunen estalki baltza zabaltzen zala
gauza gustiak gelditu ziran itzalpian.

—

Gizadi oro geldu-gelduta ixilduten da,
abere - egazti, oyu itzal ta orruakaz,
bakarrik dira ixiltasuna austen dabenak
axe ekaiskorrak, egiten dauzan uluakaz.

—

Lurra dardarka azken sotiñak emoten letxe
mendi - arkaitzak ikariagaz zatituta,
obietatik urteten dira illak bizturik
ezaun eztaben indar ixillak bultzatuta.

—

¿Zer gertatzen da ludi gustia illunduteko?
¿Nok aginduta izpiak gorde eguzkiak?
¿Zeren indarrez apurtzen dira arkaitzak eta,
Zer dala dardar lur zabalaren eustazpiak?

Jakin nai daunak jaso begiak Koskotegi'ra,
oldoztu ondo biotz samiñaz gerta zana,
ta gustiori geldu - gelduta esango dozu:
¿Zelan betiko ezan ondatu ludi dana?

—

Gurutza baten zinzilik dager Jainko-Semia,
esku ta oñak untze gogorrez zulaturik,
burua barriz arantza latzez inguratuta,
biotz samurra ezpatiagaz zauriturik.

—

Esku ongiñok zer egin eben ludi onetan,
gurutza bati untzez josita ipinteko?
on - ta zoruna biotz danetan zabaldu eta,
nor ain ankerra gaiztakeri au egiteko?

—

Obendioen maitetasunez erririk - erri
ainbeste bidar nekatutako oin maitiak,
zelan zagoze untze gogorrez josi - josita,
erruki barik zelan zagoze zulatuak?

—

Biotz maitekor, Biotz biguna, Biotz onena,
neurri bagarik gizonok maite zinduzana,
eskar gaiztoko burdin ankerra nok egiña da,
erruki barik erdibituten zaituana?

—

Gizonon zorrak Jaungoikua'ri ordaintzearren,
geure obenak zeureganduten ebazala,
lotsaz beterik, Josu maitiak ixuri eban
odol gustia gu gaizkatuten ginduzala.

—

Neure egiñen gaizto-gaiztoak ipiñi zabez,
errugeori gurutza ortan untzatuta,
zelan ba daukat neure biotza garbairik gabe
zelan ez daukat damutasunez zatituta?

—

Eskar gaiztoko biotz-gogorrok ikusirik ba,
dardar egiñaz mendi-arkaitzok erdibitu,
ia biotzok lur-sotin eta ikariagaz
egiten diran Jaun maitiagaz errukitu.

MANTEROLA'TAR GABIREL,
Jauparija.

Jaungoiko - Zale

VII' urtia
Amabosterokua

Zornotza 1918'g. Iorralla 15.n

96'g zenbakija
Arpidea laurleko bi

Berbizkunde osteko Bigarren Igandia

GOIZPARKIA.

Aldi atan: Jesus'ek parixetarrai esan eutsen: Ni Artzain Ona naz. Artzain Onak bere ardien aldez bere burua emoten dau. Sari-artzañak, barriz, ta artzaña eztanak; ardien jaubia eztanak, otsua etorten ikusirik, ardiak lagatzen dauz, ta otsuak ostu ta ardiak banatzen dauz. Sari-artzañak iges-egiten dau sariagaitik artzaña izanik ardien ardurea etxagokolako. Ni Artzain Ona naz ta bai-dodaz ezautzen Neure ardiak, baita eurak Neu be ezautzen nabe. Ni Aitak ezautzen naben lez, Neuk be Aita ezautzen dot, eta Neure burua emoten dot Neure ardien aldez. Ta bai daukadaz beste ardi batzuk artalde onetakoak eztiranak: ta eurak Neuk bildu biarra daukat, ta Neure deya entzungo dabe, ta artalde bat eta artzain bat izango dira. (Joan, X, I - 16).

* * *

Kistar maite: Gaurko goizparkia (ebanjeliua) dan samurra! Artzain Onak bere ardiak ondo ezagutzen ditu. Ta Jesus Artzain maitiak ondo baño obeto ezagutzen gaitu. Berak bakarrik azal ta barru ezagutzen gaitu; berak daki nor dan ardi ona, ta nor dan ardi txarra: berak iñok ez lez geure biarrizan gustiak ondo ezagutzen ditu. Onez ganera, Artzain Onak bere ardiai janari egokia emoten dautso, larra onenetara eroanaz. Ta nor da onetan Jesus baño Artzain oberik? Jesus'ek irakasten dauskuzan baño egi zakonagorik, ta biarrekoagorik, iñok irakatsi ete leikioz geure adimenari? Nok sendatzen dau geure naimen argala, ekandon edo birtutiakaz? Nok biztuten dau geure biotzian Jaungoikua'ganako ta geide edo projimuaganako maitasun samurra? Ta geure goguak siñizte ta itxaropen ta maitasunez alikatu ondoren, egunero bere Gorputzaz sendatu gura gaitu, janaritzat eskintzen yakula. Nor ba berau baño Artzain oberik? Baita beronek ardura andiz aldenduten gaitu Satanas eta munduak geure begien aurrian ipinten dauskuzan bedar txar gustietatik. Azkenez Artzain On-onak bere bizia emoten dau ardien aldez, ta auxe da geure Jesus maitiak egin ebana geure aldez bere sanetako Odol gustia gurutzian ixuri-ta. Artzain oberik aurkitu ete legi? Benetan ba, ezan eikian Jesus'ek bein eta barriro be: «Ni naz Artzain Ona». Guri ba, ardi onak izatia yagoku, Artzain On-on au ondo ezagutzen aleginduta, bera biotz-biotzez maitatu biogu ta bere deya entzun eta jarraitu' bere ordeazkoen bidez edo jarraibide onen bidez itz-egiten dauskunian. Ta azkenez ardi onak lez geure Artzain maitiaren lorratsai jarraitu biar dautsegu, bera dalako Bide, Bizitza ta Egi bakarra.

GABIREL.

Ondo egindako Jaunartza bat naikoa litzake deun edo santututzeko.

(Sales'tar Pantzeska deunak).

NORAKO? J.Z. – 1918-096-064

«Neure biotza artega dago
Zeugan atsedendu arte».
(Austin deuna)

Biotz andia eta asegatxa
zorion egarri dana,
gauza gustiak txastatuaren
iñoz be asetzeztana,
geure barruan daukogu danok
beti artega-samiña;
Norako da, Yaun laztana,
geure biotz au egiña?

Ludi zabal au ez ete da ba,
beronen bizi tokia?
Zelan ba berton eztau aurkitzen
poztasun eta pakea?
Idoro ezik ludi onetan
beretzako atsegiña;
Norako da Yaun laztana
geure biotz au egiña?

Mitxeletea lorarik-lora
ibilli oi dan antzera,
geure biotz au artega dabil
gauza batetik bestera,
arek lez baña ez dau aurkitzen
iñon be poz-atsegiña;
Norako da Yaun laztana
geure biotz au egiña?

Iturri argi, garden, garbia,
mendi gañean urtenda,
itxasoraño gelditu barik
zuzen-zuzen yoaten da,
iñon aurkitzen eztabelako
beretzako toki diña;
iturritxoa ez ete da ba
itxasorako egiña?

Ta bide ertzean aurkituarren
lora polit ta txoriak,
euraen lagun eragiteko
bialtzen poz-abestiak;
Agur lagunak! esango dautse
auxe da nitzat eziña;
Ez naz ba, neure Yaun onak
itxasorako egiña?

Ase ezin dan geu-biotza be,
Jaunan eskutik urtenda,
gauza batetik beste batera
zorion billa yuten da;
zoruna baña, zelan aurkitu
dalarik gauza eziña;
Geure biotz au ez da ba
donokirako egiña?

Iturritxoa yoranez dan lez
itxasora eldu arte,
geure biotza gentzake dabill
Yaunagana urbildu arte,
ludi gauzakaz asetutea
dalako gauza eziña;
Ezta ba Yaunarentzako
geure biotz au egiña?

Zure bidez ba, bozuz aurkitzen
atsegin ta ondasunak,
euraen lagun zeu egiteko
eskintzen poz ta zorunak;
Agur lagunak! esan eikezu
auxe da nitzat eziña;
Ez naz ba, neure Yaun onak
bere-beretzat egiña?

:: ¿NORAKO? ::

«Neure biotza artega dago
Zeugan atsedendu arte».
Agustin deuna.

Biotz andia ta asegatxa,
zorion egarri dana,
gauza gustiak txastatuarren
iñoz be asetzeztana
geure barruan daukagu danok
beti artega samiña:
¿Norako da, Jaun laztana,
geure biotz au egiña?

—

¿Ez da ba ludi zabal-zabal au
beronen bizi tokia?
Zelan ba berton eztau aurkitzen
poztasun eta pakia?
Idoro ezta ludi onetan
beretzako atsegiña:
¿Norako da, Jaun laztana,
geure biotz au egina?

—

Mitxeletia lorarik - lora
ibili oi dan antzera,
geure biotza artega dabil
gauza batetik bestera:
berak lez baña eztau aurkitzen
iñon be poz atsegiña:
¿Norako da, Jaun laztana,
geure biotz au egiña?

—

Iturri argi garden garbia
mendi gañian urtenda,
itxasoraño gelditu barik
zuzen - zuzen joaten da,
eztabelako iñun aurkitzen
beretzako toki diña:
¿Ez da ba iturritxu au
itxasorako egiña?

Ta bide ertzian aurkituarren
lora polit ta txoriak
eurakaz lagun eragiteko
bialtzen poz - abestiak:
¡Agur lagunak! esango dautse:
auxe da nitzat eziña,
¿Ez naz ba neure Jaun onak
itxasorako egiña?

—

Ase ezindan geure biotz au
Jauna'n eskutik urtenda,
gauza batetik bestera
zorion billa jutenda:
zoruna baña zelan aurkitu
izanik gauza eziña?
¿ezta ba geure biotz au
donokirako egiña?

—

Iturritxua artega dan lez
itxasora eldu arte,
geure biotza artega dabil
Jauna'gana juan arte:
Ludi gauzakaz asetutia
dalako gauza eziña:
¿ezta ba Jauna'rentzako
geure biotza egiña?

—

Zure bidez ba aurkitzen bo'zuz
atsegin ta ondasunak,
eurakaz aizkide egite arren
eskintzen poz ta zorunak:
¡agur lagunak esan eikezu,
auxe da nitzat eziña:
¿ez naz ba neure Jaun onak
bere - beretzat egiña?

GABIREL.

Jaungoiko - Zale

VII' urtia — Amabosterokua | Zornotza 1918'g. Orrilla 1.n | 97'g zenbakija — Arpidea laurleko bi

Berbizkunde osteko Boskarren Igandia

GOIZPARKIA.

ALDI atan: Jesus'ek bere ikaslai esan eutsen: Ziñez, ziñez diñotzuet: Aita'ri nire izenian zerbait eskatuko ba'dautsozue emongo dautzue.

Oñarte ez dautsozue ezer eskatu nire izenian. Eskatu egizue ta artuko dozue, zuen pozorra betia izan dedin. Gauzaok supitaz (proverbios) esan dautzuedaz. Aldia dator zuei ez supitaz ta bai argi ta garbi Aita'tzaz itz - egiteko. Egun atan nire izenian eskatuko dozue, ta eztiñotzuet Neuk Aita'ri zeuen aldez otoi egingo dautsodala. Aita berak ba, maite zaitue, zeuok be maite nozuelako, ta Neu Aita'gandik urten nintzala ziñistu dozuelako. Aita'gandik urten da lurrera etorri nintzan eta Aita'gana nua. Bere ikasliak diñotsoe: Ointxe argi ta garbi itz-dagizu ta supitarik eztiñozula. Ointxe bai'dakigu, gustia dakizula ta iñok itandu biarrik eztozula, onetan ba, ziñistu dogu Jaungoikua'gandik urten zarala». (JOAN, XVI - 23 - 29).

* * *

Kistar maite: Kistar bizitzan daukaguzan biarkunak betetako, Jauna'ren eskar eta laguntasuna biar - biarrekoa dogu, ta laguntasun au lortuteko naitez otoi egin biar dogu. Otoya biotzeko diadar bat da, eta diadar onetan geure ezereztasuna autortzen dogu: onura-onuratsua yaku ba, geure etsai andienetik, arrokeritik, urrinduten gaitualako. Ta ez aiztu ondo egiten dan otoya beti, uts barik, egikorra dala, au da eskatzen dana beti Jaungoikua'gandik lortuten daula. Jesu-Kisto berberak irakasten dausku gaurko goizparkian: «Nire izenian Aita'ri zerbait eskatzen ba'dautsozue, emongo dautzue». Auxe da gaur irakatsi gura dauskuna. Gure otoyak elitzakez ezertarako Jesu-Kisto'n irabazi ta bitartekotasun barik. Au dala-ta, Eleis-Ama'k otoi gustiak Jesu-Kisto gure Gaizkatzallia'ren izenian egiten ditu. Geuk be auxe egiten ikasi biar dogu. Ezta, ba, naikoa biar diran gauzak eskatzia, Jesusen izenian eskatu ezik, Beronen izenian bakarrik zeruratu gindekez ta. ¿Zegaitik ba, egikorra izanda, sarritan eztogu eskatzen doguna lortuten? Biar dan lez egiten eztogulako. Otoya zeruko giltza da, ta ondo egiña ez dan giltzagaz aterik idigi ezin leikian lez, zeruko aterik ezin idigi izango dogu, otoi ondo egiten ezpadogu. Alan ba, zure otoya beti egikorra izatia gura ba'dozu, biar diran gauzak, biar dan lez eskatu, ta beti Jesus'en izenian. Eta lortuten ezpadozu, giltz eder oni akatzen bat ipiñi dautsozulako izango da.

GABIREL

Arrokeriak biotza betetzen duanean, toki gutxi izan oi da biotzean gure Jaungoikoarentzat.

(Domingo Agirre).

ORRILLA – J.Z. 1918-097-072

Alai pozkarri oron artean
Orrilla yaku agertzen;
atsegin-pozez geure biotzak
dituzalako asetzen.
Zelan ez gaitu pozez beteko
Amaren illa dalarik?
Izadi dana ez da agertuko
alaitasunez beterik?

Argidiria sortzen danean
irribarrezko mosuaz,
«Mireni agur» ez dau esaten
abots samur ta gozoaz?
Eguzki eder disdiratsuak
mendigain dala agertzen:
«Mirenen illan argi eiteko
poz-pozik naz ni azaltzen?»

Beren izpiaz laztantzen dauzan
lora eder usaintsuak,
ezpan samurrak zabaltzen ditu
bialduteko agurrak.
Usain gozoa zabaltzen dabe,
«Agur Miren»i esanaz,
ta here aintzak abesten dabez
igartu arte yoranaz.

Ez dakuszuez barriz zugatzak
osto ederrez yantzirik,
mendi ta ibarrak orlegituta
bedar usaintzuz beterik
axe bigunak samur-samurki
sarri laztantzen dauzala?
«Agur Miren»i, abesten dabe
«Berak onetsi gaizala».

Txoritxoak be, abestiakaz,
poza dabela zabaltzen,
ez dantzuzuez birloratuta,
Mirenen ill au agurtzen?
Txorrotxioka ez diñoskue
Orrilla ospatuteko;
Ama Mireni kistar gustiak

opaltzen dautsoelako?

Poztu ba zu be, kistar maitea
izadi danaz batera,
ludi gustiko izakiakaz
aurkeztu Aman aurrera,
euren antzera eskiñiyozu
biotz semekor biguna,
bere bitartez lortu dagizun
beti-betiko zoruna.

au Jainkoa'gandik datorkioe: Ezin barriz iñok ukatu leyo Jainkoa'ri, gizonaren gain daukan ala beste batsubei emoteko eskubidia. *Zubek, seme oyek, gurasoen aginduak egin gauza gustietan.* (Kol. III - 20). *Ire aitaren aginduak egizak, eta ez egikek ire amaren lagia itxi. Izatżi* (pegau) *egizak betiko ire biotzian, eta ire idun inguruan ipiñi. Abillanian eugaz eroakezak; lo agonian ire zaintzalle beitezak, eta itxartutakoan eurekaz jardun adi.* (Esakun-idazt. VI-20).

Zuzen da semiak gurazoen aginduak egitia; Jainkoa'k bere ordez etxeko jaun ipiñi ditualako: *Seme oyek, zuben gurasoai men egiyozube Jauna'ren izenez; au ba zuzen da.* (Epes. VI - 1). *Jauna'ri atsegin yako.* (Kolos); gurasoak goretsiaz, Jainkoa goresten dogulako.

Seme - alabai egoki yake; agindua, zuzena ba'da, bidia erakusten dauskun argi - zuzia dalako.

Gurutz.

ORRILLA

Alai-pozgarri oron artian
Orrilla yaku agertzen:
atsegin-pozez geure biotzak
dituzalako asetzen.
Zelan ez gaitu pozez beteko
Ama'ren illa izanik?
Izadi dana ez da agertuko
alaitasunez beteik?

—

Egun sentia sortzen danian
irribarrezko mosuaz,
«¡Miren'i agur!» ez dau esaten
abots samur ta gozuaz?
Eguzki eder dizdiratsuak
mendigain dala agertzen:
«Miren'en illa argitziarren
poz-pozik naz ni azaltzen?»

—

Bere izpiak lastantzen daben
lora usaintsu ederrak;
ezpan samurrak zabaltzen dituz
bialduteko agurrak.
Usain gozoa zabaltzen dabe
«¡agur Miren!»i esanaz,
ta bere aintzak abesten dabez
igartu arte joranaz.

—

Ez dakuzuez barriz zugatzak
osto ederrez jantzirik
mendi-ta ibarrak orlegituta
bedar usaintzuz beterik,
aixe bigunak samur-samurki
sarri laztantzen dauzala?
«agur Miren»i abesten dabe
berak onetsi gaizala.

—

Txoritxuak be, abestiakaz
poza dabela zabaltzen,
ez dantzuzuez pozez beterik
Miren'en illa agurtzen?
Txorrotxioka ez diñoskue
Orrilla ospatuteko;
Ama Miren'i kistar gustiak
opaltzen dautsoelako?

—

Poztu ba, zu be, illa onetan
izadi danaz batera:
ludi gustiko izakiakaz
aurkeztu Ama'n aurrera.
Euran antzera eskiñiyozu
biotz semekor biguna,
bere bitartez lortu dagizun
gero betiko zoruna.

GABIREL.

Izadi = Naturaleza.
Joran = Ansiedad.

ERAZTO IÑARDU DAGIKEGUZAN OTURA ONURAGIÑAK

36.— Andera, anderañuak, bakotxak al daun lakua — zidar, urezkua-edo — kistar-ikura, gurutza, domiña-edo paparan agiri erabili.

37.— Eguben Gurenez, jualak ixiltzen dabezanetik asi ta Larunbata Gurenez, *Glorijan,* bariro joten dabezan arte gixonak erpedarik — tabakorik — ez ere.

38.— Eritik urtetian, urintxu juateko asmoz danian, batez be, jauretxian Jaun Oteundubari ikerkuna egin, ibilkuna eginda, etxeratzen garanian bardin.

39.— Jaupari ta lekaidiei gurealdez otoi dagijela, batez-be jaupaldijan, eskarez sari eskatu.

40.— Bidian gabiltzala, eriren bat dakusgunian, eri atako Gotzon-zaintzaliari lagundasuna eskatu, Josu'ri aguř egiteko, jauretxerantza, al badogu, begiratu, ta il-aldez otoi egin.

INTXAURRA

IPUÑA (Schmid)

Baserri-etxe baten onduan egoan intxaur - zugatz andi baten azpian mutiko bik intxaur ale bat aurkitu eben.

— ¡Neuria dok — esan eban Iñaki'k — neuk ikusi yoat lenengo!

— Ez; neuria dok — erantzun eutson Andoni'k — neuk artu yoat eta!

Eta beriala ezbai gogorrian asi ziran.

Une atan bertatik igaro zan mutil sarrago ta indartsuago batek esan eutsen:

— Neuk bakeak egingo yoadaz. Ta bien erdian jarrita, erdibitu eban intxaurra ta biakana biurtuta esan eutsen:

— Azal erdi au intxaurra lenen ikusi ebanena da. Beste erdi au artu ebanena. Barruko mamiña barriz neuretzat, neure erabagiaren ordaintzat.

Eta barrez esan eutsen: Auxe da auzi gustien azkena.

Jakin nai bo'zu dana galtzeko
zein dan bide egokia,
ekixu dala ezpairik bage
lagun arteko auzia.

GAMA.

Itz - atzalgarrijak

Atal barri bat gaur geure aldizkingi oni ipinten dautsogu.

Euzkeraz idazten dogunok nai ta nai ez erabilli biar ixaten doguz irakurlak ulertzen ez dabezan itz batzuk.

Euzkerea asko zabaldu da; len euzkeraz erabilten etziran geirik asko darabilgu orain idazti ta izparringijetan, geure ele au baserritarren arazuetarako baño gauz-eztala esaten ebenak guzurtauta isten doguzala. Au gaitik iñoz itz barrijen bat ipiñi biar ixaten da, gauza barrijari izen barrija dagokio-ta.

Baña geyenean ez dira orain asmauriko itz barrijak, askorentzat ez-ezaunak izan arren. An edo emen euzkeldunak euren ezpanetan darabillez, batzuk Bizkaya'n, bestetzuk Gipuzkoa'n, areik Naparroa'n, oneik Laburdi'n edo Zuberoa'n, augaitik batzuentzako barrijak. Alantxe izan biar, erki baten ez daukoguzalako geure asmo gustiak azalduteko biar diran itzak.

Baña guk emen idazten doguna euzkeldun orok ulertutia gura dogu, ta augaitik aleginduten gara al dogun erraztoen idazten, eta auxe eskatzen deutsegu milla bidar gure idazkidiei be. Eta gure idazkunak ulertzeko, ta batez euzkerea obeto ikasteko bidia ixan dedin, gaurtik aurrera zenbaki bakotxian dagozan itz atzalgarrijak atal onetan ipiñiko doguz.

Jaungoiko - Zale

VII' urtia
Amabosterokua

Zornotza 1918'g. Orrilla 15.n

98'g zenbakija
Arpidea laurleko bi

Euzkeldun Gotzain barrijari

Agur geure jaupalkide bikain ori:

Goteun Jaungoikoak jaupari-malla gorenera jaso zinduzala - ta, lentxuago geure zorion - agurra artu zendun.

Gaur baña, zeu Gotzaintzeko egguna urreratu danian, barriro geure alaya agertu gura dogu.

Jauparijak egiten dogun aldizkingitxo au geure jaupalkidearen egun andijan apaintzea bidezkua da. Euzkeldunen laguntasunaz eta euzkeldunen goguak kistar jakintzaz asetzeko egiten dan ingurti aonek, zeu lako gogo-zale ta euzkeldunaren goraltzean kistar euzkeldunen poza agertu biar dau.

Aor ba; bazkuniaren eta euzkeldun gustijen izenian biotzetiko zorion agurra damotzugu.

JAUNGOIKO - ZALE bazkide ta irakurle orok urrengo igandian otoi sutsuak egingo ditugu Gotzaintzarako biar dozuzan laguntza ta eskarrak Jaunak ugari emon dagitzuzan.

ARTEZKARIJAK.



Mujika - Urrestarazu'tar Mateo jauna.

BURGO DE OSMA'KO GOTZAIN AUTUA

itzak: «CUM DILEXISSET SUOS... IN FINEM DILEXIT EOS».

Oŕa oŕ euzkaldun jatoŕa: on, tolesgabe, apal, ta atzeneraño iraunkoŕ.

Oŕa oŕ Mujika Jauna, ekandun ok Gotzaitza irabazi dioten euskaldun ospetsua.

Oŕa oŕ *guretasunezko* eredua: duana gurea du, ta eztu ezertxoere gurea eztanik. Gure eŕikide, gure jakintsu, gure maitale bero: ez ote degu egun edo bigaŕ *gure Gotzai* ezagutu beaŕ? Jaunari nai dakiola.

Lekuona'taŕ Imanol.

Gazteiz - Apeztegi'ko Euzkel - Irakaslea.

Goteuna'ren (Espiritu Santuaren) Etorkundia

JAZOKUN ospatsua, Luka Deunak itz oneixekaz azaltzen dausku: «Eta Pentekoste egunak bete ziranian (ikaslariak) toki baten bilduta egozan. Eta bat-batian axe indartsuaren zaratia lakoxea izan zan, egozan etxe gustia bete ebana. Eta suzko miña lakoxeak bananduta agertu ziran, eta bakotxaren gain gertu ziran. Orduan gustiak Goteunez bete ziran, eta izkuntza bardingez itz egiten asi ziran, Goteunak itz-eragiten eutsen letxe. Jerosoliym'en laterri gustietako judatar jauntzaleak egozan. Zaratara gizozte andia bildu zan, eta arrituta gelditu ziran ikaslariak bakotxari bere izkuntzan itz-egiten eutsoela entzunda. Gustiak gelduta, arriturik esaten eben: Izlari gustiok Galileatarrak izanik, ¿zelan entzuten dautsegu bakotxak geure jayotzetiko izkuntzaz? Parthos, Media, Elamitarrak, Mesopotamia'ko biztanliak, Juda, Cappadocia, Ponto, ta Asia, Phrigia, Phanphilia, Ejito ta Cirene ondoko Libia aldekoak, Roma'tik etorri diranak, Judatarrak Posely, Creta ta Arabetarrak entzun geuntsoen, geure izkuntzaz Jaun-Goikua'ren anditasunak azaltzen euskuezala». (ACT. APOST. II - II).

* * *

Kistar maite: Gaurko eguna gomutagarria da Eleiza Ama'ren edestian. Gaurko egunez euki eban bere asiera. Egun onetan Goteuna edo Espiritu Santua, Aita eta Semia lez egizko Jainkoa, ta toki gustietan dagona, era berezian jatsi zan Jesus'en ikaslariakana. Suzko miñen irudipean agertu ta jatsi zan euren gogoetara, euren adimen illunak argitzeko, euren biotz argalak sendotzeko, euren goguak donetuteko, ta naigabe aldietan poztuteko. Unetxu bat lenago argalak, ez - jakiñak, eta bildurtiak ziran Beŕdu edo Apostoluak, agertu ziran bildur barik, andiki ta agintarien eragozpenak eta mundutarren esamezak ostikopetuta, adoretsu ta argi ta garbi Jesu-Kisto'ren irakaskintzea zabaltzen. Ta ¿nor da euren biotzetan aldakuntzau egin dabena? Goteuna.

Kistarren artian be, amaika ba'dira gaurko egunian, epelkeriz-edo egia, etsayen artian batez be, biar dan asartasunaz azaltzeko ta autortzeko bildur diranak, amaika ba-dira, lagun gaiztoen esamesak dirala-ta, kistar arazoak egiten lotsatu ta biar ba'da, Jainkoa'ren aginduak ostikopetuten dituezanak. Ta geuk be biar bada aitatu doguzan gauzaen baten utsik ez ete dogu egin? ¿Zer diñosku geure biotzak? Eta zorionez gai onetzaz zalatzen ezpagaitu be, geure gogua kistar onbidez apainduteko biar dogun argi ta sendotasuna, nondik lortuko dogu Goteuna'gandik izan ezik?

Eraskun (deboziño) andia euki dayogun ba, ta biotz-biotzetik eskatu dayogun bere emaitz ederrak geure gain ugari ixuri daizala, kistar bizitzan, Belduen antzera, itzez eta egitez Jesu-Kisto'ren usain ederra geure inguruan zabaldu daigun.—**Gabirel.**

soai men egin biarrik. Jainkoa'k eskontzarako deitzen ba'dautso, ezin leikie gurasoak lekaidetzarako, edo lekaime, edo jauparitzako (abade) bijurtu. Ta lekaide, lekaime edo jauparitzako deya ba'dau, ezin gurasoak eragotzi leikiue Jainkoa'ren deyari jarrai bidia. Oso gaizki, ta sarri-askotan oben astuna dagie, Jainko-deyari ez jarraitzeko egun gorriak jasan erain, aitortu ta jaunartzen itxi ez, gogoa galtzeko zorian ipiñi, txindirik emon ez, ta naigabe garratzak euren seme - alabai iruntzi erazten dautsezan gurasoak.

Ez dautse seme-alabak gurasoai arazo onetan men egin biar. Asis'tar Pantzeska, Lima'tar Errose ta beste anei, gurasoen ganetik igaro dira Jainko-deyari jarraitzeko.

Eskontzen diranak, orratiño, gurasoai euren eretxia ta onua eskatu biar dautse. Eskongayen gogoa, geyenez, biotz lerak erabilli oi dabe, ta gurasoak, bai bide ori erabilli dabelako, ta bai, seme-alaben onginayez, gauzak argiago ikusi, ta zurrago onetsi edo gaiztezteko garayan dagoz.

Gurutz.

Ama Maitegarria

Ama maite altsua ta
errukior biguna,
danok dauku donokian
Josu'ren Ama deuna.
¿Nor jakiñik egi auxe
ez da poztu biotzez?
¿Nor izanik seme ona
ez dau bete zorunez?

—

Atsekabe odei baltzak
ba, illuntzen ba'zaitu,

zeure biotz illunori
beragana zuzendu.
Egun sentiko ixar legez
agerturik ortzian,
argia ta poz - zoruna
izten dau biotzian.

—

Itxaso asarratuan
bateltxuen antzera
ziltz - artian zabiz estu
noz jausiko ondarrera?
Luzatu Ama Miren'i
nekautako besuok,
baretuko dautzuz laster
girna aserratuok.

—

Obeneko itxasuan
ba'zabiz ondatuta,
gaizkatzeko itxaroa
ia gustiz galduta,
Deitu biotz - biotzetik
Ama bigun oneri,
eztaki "*ez*" erantzuten
otoi dagitsonari.

—

Gura bo'zu ba benetan
zorundun izatia,
gogoratu Miren dala
donokiko atia.
Zeutzat berau maitatzia
izanik pozgarria,
izan daiten zuretzat be
Ama maitagarria.

GABIREL.

Gaur bai ta bijar ez diran ogasunagaitik Jaungoikua galtzen ba-dozu, errukarrija zara benetan. Goikua'ren esana jaramoxu beste gustiak baño lenago.

Jaungoiko - Zale

VII' urtia
Amabosterokua

Zornotza 1918'g. Bagilla 1.n

99'g zenbakija
Arpidea laurleko bi

Goteun - Etorkunde osteko bigarren igandia

GOIZPARKIA.

ALDI atan: Jesus'ek esan eutsen parixetarrai ipuin au: Gizon batek apari andia egin eban, eta asko jateitu edo konbidau ebazan. Eta apalorduan otseiña bialdu eban jateituai etorteko esaten, gustia gertu eguala-ta. Eta gustiak batez asi ziran buruak garbitu edo atxakitzen. Lenenguak esan eutson: Etxaldea erosi dot eta bera ikusten urten biar naz, parkatu ba, ezpa-nator. Eta bestiak esan eban: Bost idi - bustarri erosi dodaz, ta aztertzen nua, arren azketsi ezpa - nator. Eta bestiak esan eban: Emaztia artu dot, eta augaitik ezin etorri ninteke. Ta morroya atzera jaubiagana elduta, gauzaok jaubiari esan eutsozan. Orduan etxeko jaunak aserreturik bere otseñari esan eutson: Zuaz arin uriko zei eta auzoetara eta txiruak, eta argalak eta itxuak eta errenak ona sartu egizuz. Eta otseñak diñotso: Jauna agindu dozun lez eginda, ta bai-dago ondiño lekua. Eta etxeko jaunak otseñari diñotso: Bidietara ta ertsietara zuaz, eta sartu eraso egizuz nire etxia bete daiten. Zuei baña dirautsuet: jateitu diran gizonetariko batek be eztau nire aparia txastatu edo probauko». (LUK. XIV, 16 - 24).

Kistar maite: Gaurko Goizparkian, Jaungoikuak bere Eleizara gizon gustiai egiten dautsen deyaz gañera, Jesu-Kisto'k bere Gorputz-deuna Jaunartza bidez artzeko deya gomutarazten dausku. Apari onetan bere Gorputz ta Odol deuna emoten dauskuz. Bere almen, ontasun jakituri ta maitetasun neurrigabiak gertu leiken aparirik ederrena ta onurakorrena auxe da. Ta apari onetara Jesus berberak deiegiten dausku samurkiro. Ni naz goitik jatsi nazan ogi bizia: ogi au jaten dauna betiko biziko da». «Gizonaren Semien aragia jan eta bere odola edango ezpa-zeunkiez etzindekez biziko». ¡Dei samurra ta batian agindu gogorra! Dei oneri erantzuten eztautsona betiko galduko dala diño, ta guk ez ete dautsogu poz-pozik erantzungo sarri, albait sarrien, albadogu egunoro, geure gogoko bizitza dana artzeko? Gustioi deitzen dausku, gustiok egunoro apari onetan ikusi gura gaitu, ta guk ez entzun egingo ete dautsogu? Oben (pekatu) astun barik, eta gogo-bizitzan onura atarateko asmuagaz joan gaitezala baño eztausku eskatzen. Gertuago ta onura geyago atarako dogu, ori bai; baña aitatu doguzan gauza biak baño eztauskuz eskatzen,ta larregi ete da kistar batentzat oben astunetik aldenduta bizitia? Zergaitik ba, kistar asko gor - egiten dira dei samur onetara? Zergaitik beti atxaki billa jaunartzatik igesteko?. Zenbat eztira aldentzen gaurko Goizparkian jateituak ipinten dabezan akiakulak baño txikiagoakaitik. *Jaunartzeko eztaukat astirik, zeregiñ asko daukat* diño batak. Ondo dago: baña gorputzeko gatxen bat daukazunian osagarri ta jatekua artzeko astirik ez ete zeunke egingo?

Gogua gorputza baño gitxiago ete da ba? *Bai, baña ni ez naz duin..* Zenbat

eta gitxiagotan artu, gitxiago izango zara. Jatekoa eztozu artzen sendo zagozalako, sendotuteko baño. Jauna be, eztogu artu biar deunak garialako, deun egiteko baño. *Uts asko egiten dozuzala?* Gitxiago egingo ete dozuz ba, Jaunartu ezik? Ez ba, akiakularik asmau; erantzun ondo Jesus'ek bere aparirako egiten dautzun deyari, apaltasunagaz ta albait sarrien artu zeure biotzian, eta jateitu ta etorri eziranai egindako ze maipian etzara jausiko: betiko bizitza lortuko dozu. «Ogi au jaten dauna betiko biziko da». Diño geure Jaun maitiak.

GABIREL.

Doibatz - Egutegija

IGANDIAK: 2'gn. 9'gn.

Igande gustijetan kistar orok jaupa osua entzun-biar dogu ta otsein-lanik ez dagikegu.

EGUN IXENDABAK: 7'gn. *Josu-Biotz-Deuna* ilaren lenengo barikuba.

Ilaren lenengo bederatzi bariku jaratubetan, biar dan eraz, Jaunartza ba'dagixu—Josu-Kisto'k esan eban—donokija zeuria dozu.

8'gn. Miren-Bijotz-Deuna.

13'gn. Deun - Andoni Paduakua, autorlia, jai-erditzat zaintzen doguna.

* * *

Josu-Bijotz-Deuna'ren eguna jaya ez da.

Au da; Jaupa entzun - biarik ta otsein lanik eziñeko eguna ez da. ¿Baña zer? Kistarok ixendau-be-ixendau dan egun ori ez dogu ospatuko?

Guk ospatzen doguzan jayak oneskari ta gurgarijak diran aren, Josu - Kisto'k berberak ixendabak ez dira. Goteun-argiz gustija biar dan eraz darabilan gure Ama Doibatza'k iminijak dira: Josu-Bijotz jaya baña, ta jai andi egiteko esanda, Josu-Kisto'k berberak imiñija da.

Bijozdun ba'gara, mate be bai-dogu, mate ez daun bijotza bero bako suba ta argi-bako eguzkija - da - ta.

Zerbait mate ba'dogu bariz, gura ta ez, Josu-Bijotza mate-biar dogu, esperen, besterik be, biar dan eraz beintzat, ez dogu mate.

Josu-Bijotza, ixan be, Jaun-Goikua'ren Bijotza dalako, ederena, garbijena, aberatzena, samurena, jakitunena, gozuena, onena... da.

Goi - goyetan askaldijan ixan zan gudatian Mikel Gongotzonak *¿Quis sicut Deus?* «¿Jaun-Goikua lakorik nor?» bidez diadar-egin al-ixan ba'eban, guk be, bidez-bai-bidez, ¿Josu-Bijotza lakorik nor? dasakegu ta diñogu.

Eta ¿Jaun-Goikua'lakorik nor? guda-santsotzat artuta, goteungia ta bere alderdikidiak beretsi ebazan gudarozte ixukoya, bildu ba'eban, guk be ¿Josu-Bijotza'lakorik nor? gure oyu ta santsotzat dogula, gure aurka jarki dagiken edonor, indartsubena, senduena, gogorena beretsi ta lur -jota itxiko dogu, geu garalari garala.

Josu-Bijotza da ganera, matien gauzana. Gure aldez berak beste egin daunik, dagijanik, egingo daunik ez dago, ez da ixango be.

Berak, beste iñok ez lez, dasake ta diño: *Ara emen gixonak mate-be mate dauzan bijotza.* Agirtzeko autetsiten dauzan apaingijak gurutzia, zaurija, arantzazko burestuna dira, gustijau su-garez berotu, goritu, kiskalduta.

Matasun ezauki, ikur agiri-agirijak, matasuna, zintzua ba'da, ludijan beintzat, matiaren aldez neke-miñak igarotia baño besterik ez dalako, edo beintzat neke - miñak gogoz igarotia baño mate-dala ezauki eskieragorik ez dalako.

Josu'k gu-aldez igarotako nekiak atzalduten ez guaz, Oteunan orain daruan gure aldezko Otoi bizkerea bez, ez eta, bere matiarentzako donokijan zaintzen dauzan aberazki, zorun eta edertasunak. Bein baño geyagotan eurok atzaldu yakuz, ta Josu-Bijotza'k mate-be-mate gauzala, laregiz lez mate gauzala orok iragarten dauskube.

Orenbestian mate gauzan Bijotz - Deun ori ¿ez ete - dogu mate?

Mate dogu bai, ta mate dogulako Bera berariz goresteko Berberak ixendau daun eguna, aurten ila aunen saspigarena, jai pozez zaindu ko dogu.

Jai baña, Josu'k irakatsi dauskun eraz, goxan Oteuna artubaz, Jaunartza egiñaz.

Ila gustijan be, gure gogoz, oneskarija baño oneskarijago dan Bijotz au goresten alegiñik andijenak egingo doguz.

Jokin.

egiten ez deutsenak, eriotz garri dira. (Roma, 1).

Ez da agindu onetan lez beteta ikusten Jesu-Kisto'ren epaya: *Zubek neurtuko dozuben neurriaz, neurtuak izango zare.* Seme onak oñordeko menak, maitatiak izateko bidian dagoz. Seme gaiztoai, oñordekoak gaiztoago ta sekenago izango yakez. Seme txarren zigorra artu eben Kan, Absalon, Ofni ta Fines, ta beste askok Ziñalben Zarrian. Araño jo biarrik ez dogu seme gaiztoen zigorra ikusteko.

Gurutz.

Irakurri beste toki baten. Arkese'tar Pilipa'ren ipuin polita, semeak *ordiez-opillak* artzen dituela adirazteko.

Muxika'tar Mateo jaunaren

Gotzain - izkintze ospatsuba

Azkenengo zenbakijan iragarri gendun lez, Orrilla'ko 19'gn., Goteun-etorkundez, gotzaindu dabe geure idazkide ta laguntzalle Muxika'tar jaun agurgarrija.

Eleizkizun ederrau Gazteiz'ko goterki-txadonan egin zan, Ragonesi Nuntzijua, Doipuruaren ordelarija, izkintzalle izanik, Madrid eta Gazteiz ko Gotzañak lagun ebazala.

Muxika jaunak «Jaungoiko-Zale»ri dautson ongi naya barriro be agertu dau, bere jai aundi eder onetara gu deituaz; eta bazkuniak bere

idazkarija bialdu eban bazkide ta irakurle gustijen izenian Gotzain barrijari esker ona agertuteko.

Eta gure idazkari orrek abegi ederra izan dau aurkeztu dan toki gustijetan, bai Abadeikastetxian bai Gotzain jauregijan, bai Montepio'n, berak ezer esan baño len, JAUNGOIKO-ZALEtzaz itanduten eutsiela, beroneganako zaletatasuna ta gogo ona agerturik.

Jai orren edestija egiteko asmorik ez dogu, onezkero eguneroko izparringijetan irakurle orok ikusi izango dabe-ta.

Bakarrik esango dogu eleizkizuna ederra baño ederragua izan zala, ta berak zirauen arteko iru orduak ordu txikijak eretxi genduzala. Berenez ederrak, biotzikutzallak eta goxoak dira gure Uzkurtzera gustijak, batez be azala urratuta euren mamiña txastau ta ikurpena zerbait aituten dabenentzat, ederraguak au lako Uzkurtzera, asko esan gurakuak eta gitxitan ikusten diranak. Baña ondiño ederrago biotzikutzalleago ta goxoago an abestu zan lez abestu ezkero.

Muxika jauna eresi-zale bikaña da ta eresi gayetan asko dakijana, baita Uzkurtzeratan Uzkurtz - eresija abestu dedin asko alegintzen dana. Uste dogu, ba, egun orretan bere gurarijak ondo bete zirala. ¡A goxo ta ederto abestuten dabena Muñoa jaunak zuzentzen dituzan mutiltxu abeslarijak! ¡A talde begiragarrija larogetamar mutiltxu arek egiten daben taldia! Artu bei Muñoa jaunak geure zorijon agurra bere lan ederragaitik.

Eleizkizun ondoren Gotzain jauregijan egin zan buru - makurtzia. Gura eben gustijak eldu eitekezala, esan eben, eta Abade ta agintarijen urrengo gizozte izugarrija urreratu zan Gotzain barrijari ta bere lagunei elestunan mun - egiteko: Diputaduak, Gipuzkoa'ko Udal askoren ordelarijak, Gazteiz'ko agintari gustijak eta bape diran bazkunen ordelarijak, Soria'ko Udala, Osma'tik bost kanonigo, ta Araba, Gipuzkoa ta Bizkai'ko jaupari ta lekaidiak zenbatu ezin ala. Ondo agiri zan Muxika jaunak toki gustijetan adizkidiak ugari dituala. An ikusi genduzan Arrasate'ko Arzipreste jauna, Gatzaga'ko txaunburua, Begoña'ko Arana'tar Imanol, Laborda, Etxebarria, Garitagoitia, Lekuona, Sagarna, Eleizalde, Urrutia, Arginzoniz, Pagaldai ta Goikoetxea geure bazkidiak.

Urrengo egunean Apaiztegijan egin zan jai bat Gotzain barriyaren omenez, Abade-geyak itz-aldi ta abesti ederrak entzun eragin euskuezala. Euzkerazkoak izan ziran erdijak baño geyago ta txalo asko jo yakiezan mutilloi, ondo irabazijak.

Azkenez gure idazkarijak, artu eban agindua osoro betetiaren, Muxika jauna bere etxian ikertu eban JAUNGOIKO-ALE'tzaz itz-egiñik.

Geure Gotzain barrijau laster eidua Osma'ra. Bua ondo ta Jaunak bemotso bere eskarra artalde a zuzentzeko.

Jesus-Biotza'ren eiñizugarria

Italia'ko «Valle di Pompey» urian eguan Luisa Agostini urte bete baño geyagoan makalik, osalarien eretxiz, gexo osagatxaz.

Santuen bitartez eskari asko egin ebezan osasun gurariz, baña loŕtu barik. Orraitiño Jesus-Biotz jai-aurreko egunian egin eutson Margarita Alakoke zoruntzuari biotzetiko eskaria ustebetiaz. Eta Jesus-Biotz biamonian osatuta aurkitu zan egundo bada ta pozik. Pozagurra *(pelizitasiñua)* emotera etorririko senide ta aizkidiei diñotse Luisa'k: «Biotz Dontzuba'k egin daust oneintza edo mesede au; baña ene gomutan eztot aldendu Maŕgarita Zoruntzuba Jesus-Biotze'tik; bada Jesus-Biotza'ri eskatutian nire asmua zan Maŕgarita Zoruntzuba be beragaz alkartzia»

Eta Maŕgarita Alakoke bitaŕtezko Jesus-Biotza'ren mirariau edestu edo kontau dausku ez edozeñek, Margarita deun edo santatzat iragarteko Erroma'n darabillen auzikaldian Aita Santua'k berak baño.

Geure ezpiar ta eztualdietan ba guazan ustebetiaz ta entzin edo konpiantza osoosuaz errukiaren iturri Jesus-Biotz maitekorrera, bere jopu edo sierba kutun Margarita Alakoke Zoruntzubaren bitaŕtez.

Z. M.

Josu Oteundegian

Donoki Goiko Jaun oraltsua
ludi gustiko Jaubia,
gotzon arteko zoruna baño
gizon artian obia,
aurkitu daula Oteundegian
Donoki Goitik jatsita:
¿Zelan dakusguz kistarrik asko
Jaun ain onagaz aiztuta?

—

Bere bizitza maite eztaunik
iñor ete da ludian?
Josu ba geure bizitza dana,
egonik Oteundegian,
geure janari egitiarren
Donoki Goitik jatsita:
¿Zelan kistarra egon leiteke
Jaun ain onagaz aiztuta?

—

Ogi ta ardao irudipian
maitetasunen indarrez,
zakustaz ene Josu maitia
bete dozula zorunez
ludi gustia: Oteundegira
espetxera lez jatsita:
¿Zelan kistarrok egon geintekez
Jaun ain onagaz aiztuta?

—

Zu zara gure illuntasunak
urrinduteko argia,
argalkeriak osatuteko
osaki eder bizia,
geu sendatzeko Oteundegira
Donoki Goitik jatsita:
¿Zelan kistarrok egon geintekez
Jaun Ona, Zugaz aiztuta.

—

Izanik ba Zeu neure bizitza
baita be maitetasuna,
biotzarentzat ludi onetan
eta bestian zoruna,
gizon gaxua maitatziarren
Oteundegira jatsita:
¡Ez dot nai bizi une baten be
Jaun Ona, Zugaz aiztuta!

GABIREL.

IRLANDA

«Irlandaŕ'en ziñiste sendua, Jaun-guŕtze bixija diñodan onek agertzen dau. *Ondi Ikuŕton*'arentzat baŕutiko eraskuna enda bizkoŕ oŕek dau. Dublin-guturiko tximiskuŕdijetan saŕi jazoten da, txadon-auŕetik igarotian Jaun - ostendubagatik gixonak buruztutia ta emakumiak *Ataren* egitia, txadon-baŕuruntz begiraturik.

Tximiskuŕdijak eta bestiak be bai txadon asko-auŕetik igaroten zirala-ta, euren jauŕle ta otsein buruzten ziranentzat Doipurubari nekazkea eskatu eutsoen: Doipurubak emon eutsen; bata gero bestientzat be ixan zan.

Mate - Ikuŕton - zaliak dira irlandaŕak «Las Cuarenta Horas» deritxon guŕtzalebazkuna irasi eben eta txadonen baten egunoro Bazkunak guŕ-egiten dau; aŕatsaldetan Jauna agiri danian baŕiz, txadona bete-beterik egoten ei-da». — El Debate'tik.

* * *

Elazkuna. — Irlanda - Eŕijak jaŕaipide edeŕa dageŕsku. Euzkel - Eŕija Eŕi ori baxen Jauntzalia bai da; alabaña aspaldijon axe - bolada ustelkoŕak, aldizka bada be, oŕtik, ego - aldetik, eltzen dira; oŕ emen entzun eta ikusten doguz Jaun-Goiko-kaltez diran birau sataŕ ta izpaŕingi galgaŕijak; saŕi ikusten doguz euzkeldun kistaŕak txadon-auŕetik, Jaunaren auŕetik igaroten, txapelik kendu - barik, aguŕtu barik, eta Josu Oteundu'ganuntz begirakun samuŕtxu bat egin-barik. ¡Euzkotaŕ txaŕak dira oŕek!

U.' taŕ P.

Jaungoiko - Zale

VII' urtia
Amabosterokua

Zornotza 1918'g. Bagilla 15.n

100'g zenbakija
Arpidea laurleko bi

Goteun - Etorkunde osteko laugarren igandia

GOIZPARKIA

Aldi atan: Gizozte andia Jesus-ganatzen zala, Jaungoikuaren itza entzuteko, Jesus Genesareth itxaz - ertzian eguan. Eta itxaz-ertzian batel bi egozala ikusi ebazan: eta arrantzaliak jatsi - ta sariak garbitzen ebezan. Eta batel batera, Simon, ena zanera igonda, itxaso - ertzetik apur bat barruratzeko esan eutson. Ta jezarrita bateletik gizoztiari irakasten eutson. Eta itzaldia amaitu ebanian, Simon'i esan eutson: Itxaso barrura egizu, eta zeuen arrañetako sariok jaurti egizuz.

Eta Simon'ek erantzun eta esan eutson: Irakasle: gau gustian lan egin eta eztogu ezerbe artu; baña zeure itzaz saria jaurtiko dot. Eta au egin-da arrain ugari - ugariak artu ebezan, saria apurtuteko aña. Eta beste batelean egozanai ikurka (kiñu) egin eutsen etorri ta laguntzeko. Ta etorri ziran: eta batel biak bete ebezan, iya ondatuteko añan. Ta Simon Kepa'k au ikusi ebanian Jesus'en belaunetan auzpeztu zan esaten: Jaunoi: zuaz nigandik, ni gizon obendia (pekataria) naz-ta. Arritasunak, ba, bera ta beragaz arrantzan egozan gustiak artu ebazan: eta bardin Jakobo, Jon Zebedai'ren semiak Simon'en lagunak. Eta Jesus'ek Simon'i esan eutson: Ez zaitez bildurtu, gaurtik giza-semiak artuko dozuz. Eta batelak lurrera ekarrita gustia itxi eben, ta jarrai joan jakozan». (Luk. V. I - II).

Kistar maite: Gizona lanerako jayo da egaztia egaz egiteko lez. (Job. 57). Baña lana gizonentzat neketsua izatia jatorri obenetik dator. «Zeure izerdiz ogia jango dozu». (Gen. III. 19). Lege au gustiontzat da, ta lanik egin gura ez daunak ez-pedi jan be, diño Paul deunak.

Lana ta nekia ba, beti gure gain daukaguz, gurutza astuna edo ariña gustiok eroan biar dogu - ta. Baña lana ta nekia alperrekua ta onura bakua izan leiteke, Genesareth'ko arrantzalientzat Jesus etorri aurretik egin eben lana alperrekua izan zan lez. Simon Kepa'k autortu eutson Jesus'i: «Gau gustian lanian ibillita eztogu ezer artu». Baita kistar asko eta askok be, eriotz - aldian esango dabe: Bizitza gustian lan eta nekepian ibilli giñan, eta eskuak utsik gagoz, eztogu geure goguentzat ezer irabazi. Baña gexo andiak igaroten dituanak, atsekabepian bizitza igaro dabenak, lantegi ta soloetan bere izerdiaz bustitako ogiaz bizi izan danak, bere goguentzat ezer irabazi ezitea zelan izan leiteke? Jesu-Kisto'n izenian egiten eztan lana donokia irabasteko utsa dalako. Neke asko igaroarren ba Jaungoikua'gaitik igaroten ez-padoguz, gure neke, atsekabe ta izerdiak alperrekuak izango dira: Simon eta lagunak egin ebena egingo dogu: bizitza gustian arrantzan ibilli-ta arrain bat artu ez. Gure lanakaz ba irabazi ugariak pillatu gura ba'doguz, Simon'ek «Zeure izenian saria jaurtiko dot» esanda arrain ugaritasunaz sariak urratu ziran letxe, geure lan eta nekiak Jesus'en izenian igaroten ba'doguz, egiten doguzan lan

gustiak irabazkorrak eta gustiz onurakorrak izango yakuz, eta eriotz-aldian, geure gorputza igaliz (frutuz) betetako zugatza lez etxungo da betiko saria eta atsedena (deskantsua) artzeko.

GABIREL.

Doibatz - Egutegija

IGANDIAK: 16'gn; 23'gn; 30'gn.

JAI OSUAK: 29'gn. Kepa ta Paul-Deunak, Beldubak, Kepa Josu-Kisto'k ixendau eban bere lenengo Ordezkarija, Doipuruba.

Igande ta jai osuetan kistaŕ orok jaupa osua entzun-biaŕ dogu ta otsein-lanik ez dagikegu.

EGUN IXENDABAK: 21'gn. Gontzaga'taŕ Koldobika, autoŕlia. *Gastien zaintzalia.*

24'gn. Deun Jon - Ugutzarija; jai osotzat zaintzen doguna.

* * *

Eŕoma, askok uri betikoŕa deritxana, irasi ebenetik geyago ludijan entzutetsuba ixan da.

Bere eustaspijak Eŕomula ta Eŕema'k idegi ebezan. Bijak baña ziñisgiak, bidebasle azaŕijen buru, aŕapatzale ta erailgiñak, idegi eutsoezan eustaspijak aŕokerijazkuak ixan ziran, eta, luzarotxu euren gain iragi ebenak iraun ba'eban be, aŕuak euren jaŕtokiŕik jauŕtiŕen dauzan Jaun Goiko altsubak, ludi gustija menperatuta, nagusijen zala uste eban aldijan luŕ-jo-eragin eutson.

Gauŕ euraen aginpidia galduta, ixan zirala baño besterik ez dakije, ta au be laŕegik ez.

¿Zelan da baña gauŕ be Eŕoma entzutetsuba ta, antxiñetan baño be, entzutetsubaguago ixatia?

Jaun-Goiko ixun gustijak onesten eta guŕtzen ebazan ezkero, bestiak baño ziñesgiago zan uri aretan, beste gixon bik, Kepa ta Paul - Deunak, gixon zintzo, arduratsu, begiratubak, Jauna'ren deya entzun ebenekoxe, gustija zabaŕtu ta jaŕaŕu ebenak, eustaspi ziñistetsubak idegi ebezalako.

Andija da baña; Kepa ta Paul gixon gixaxo bi dira, batez-be Kepa, edozetarako, bere txalupako olak baxen zoŕa, jakingia, txirua, ta Eŕomula ta Eŕema'k iragi eben bakaldeŕija baño zabalagua, altsubagua, iraunkoŕagua irasten dabe.

Bai-ba, ziñispenak eskatzen daun lez, apaldasunez eustaspijak idegiŕen dautsoez ta aŕuak euraen jaŕtokiŕik jauŕtiŕen dauzan Jaunak apalak goresten dauz. «*Deposuit potentes de sede et exaltavit humiles*». (Luk. I. 52).

Eta Jauna'k euntsinda, irasi daben bakaldeŕija betikoŕa da, ludijan gixonak diran-aŕte beintzat iraungo dauna.

Luŕpian iragiŕako Mamertiña-espetxetik, bertaratzen ebezenak, iñok geyago euraen gomutarik ixango ez ebalakuan, Tarpeya-toŕoka'ra jauŕtiten ebezan. Kepa ta Paul espetxe oŕetatik Neron ankeŕak gustiz galduko dauzalakuan, erne-baŕi agiri dan kistaŕ - azija eurakin batera iŕoteko gogoz, atara dauz, Kepa buruz - bera gurutzan josi ta Paul buruinduta erailden dauzala.

Alpeŕik baña, bera ez dau esaterako iñok ezagutzen, goŕotatzeko baño bestetako bere gomutia ez da ludijan. Kistaŕ azija baña, eraĺe ospetsu onen odolaz ezotuta mardotu da, basteŕ gustijak betiaz alaitz-eraz ugariŕu da, ta, eretxiz urkaturiko gixon deungak irudijenak, aneika - ta aneika gixon zintzok onesten dauz, euraen erailkundia jai-oso egindа zaintzen dabela.

Jazokun aunek gauŕ, espanetan beste zijo bat agirtu-aŕen, Neron'ak lez kistaŕ - azija gustiz igaŕtutiaŕen Vatikano-espetxian saŕtu dabenai begijak idegi-azo-biaŕ leuskijuez, ta gure Uzkuŕtza Jauna'k ludira gixonak gaizkatuteko donokiŕik bidalduriko azija dala ezagutu-eragin.

Alpeŕik dirala baŕiz euraen alegin gustijak, Jauna'k aldeztuten dauna gixonak luŕ-jota ezaŕi ez daikelako ta bere bakaldeŕija azkengia dalako. «*Et regni ejus non erit finis*». (Luk. I. 33).

Eurak, itxu-guraz, ezautu-gura ezpa-dabe be, baña, geu urtian-baño urtian, jai au eltzian, ziñispenatzaz senduagotzen gara, ta alakoren baten gure eŕuki ixango dala, geruago ustekidatsubago gure goguak egiŕen doguz.

Kepa ta Paul-Deunaren jayeguna ospatzian, gustijok ziñispen egun dagigun eta eŕukizko eguna Jauna'k urbiĺago dagiskuntzat, otoi sutsu -sutsubak, bereganatu dagiguzan.

Gure Aĺa, ta Aĺa be samuŕa, Vatikano-espetxian deungiak saŕtuta diraula ez gadixan aiztu, ta bere biaŕkun arduratsu, gaŕantsitsuba betetan lagun-egin dayogun, batez gure txindiz soroskija bidaldurik.

Jokin.

¡Ze azken ikuskarria, baña bai bere bixikera garbi, zintzo ta jainkozkua be! ¡Ai ze egi andi-andia dan: «Bixikeria lakoxia amayeria». ¿Edozelan bizi ta gero kezka barik, gozaro santuba lez il? Ori gatxago da irakurten eztakienak artu idaztia (liburua) ta otsian ederto parra-parra irakurtia baño.

Z. M.

1918'gn. Bagilla'ko *El Mensajero del Corazón de Jesús*'etikua.

NIRE ZORUNA

Maitasunezko laba goria
Biotz eder ta maite - maitia
Zu nire poz ta
Zorun - zoruna,
Josu'ren Biotz biguna.

Biotzentzako maitetasuna
iturrientzat ur garden-leuna
letxe izanik:
¿Maitasun barik,
euki ete lei bizirik?

¿Zer maiteko dau nire biotzak?
¿Ase-eztaben ludiko gauzak?
¿Zelan maite lei
sortzen eztaunik,
biotz barruan zorunik?

Neure gogua egi egarriz
bizi gustian argi-gurariz,
ba'daukat beti,
samin - samiñez:
¿Nok beteko dau zorunez?

Illuntasunez bidekatuta,
zorun bidia ezin billauta,
ba'nabil beti
illun artian:
¿Nok jarriko nau bidian?

Etsai gogorrez inguraturik
beti burrukan nekau-nekaurik,
argaltzen ba'yat
neure biotza:
¿Non aurkitukot bizitza?

Josu'ren Biotz maitagarria,
maitasunezko laba goria,
Biotz samur ta
bigun - biguna,
da niretzako zoruna.

Illunpian ba, bidekatuta
etsai galgarriz inguratuta
nabillenian,
Bere Biotza,
da niretzako laguntza.

«Eguzkia naz argi-berua,
zu berotzeko ludiratua»
diñosta Josu'k:
«Ni naz Bidia,
Ni, Bizitza ta Egia».

GABIREL.

Gizonaren benetako aizkidiak

Ipuin au esan eutsen aititak bere illobatxuai, zeintzuk diran gizonaren benazko aizkidiak irakasteko.

Bakaldun altsua (errege) zan. Eta an, urrin... ugarte baten, bere ordezkaria eban.

Bein ba, deitu eutson ordezkariari, bere artu-emon, eta zor - artzekoen zuri - garbiak egiteko.

Ordezkariak irutariko aizkidiak ebazan: batzuk bere magalpekoak; bere uste betekoak. Onek, bakaldunak ordezkariari deitu eutsola jakin ebenian, ez eben zirkiñik egin. Bakotxa bere etxe barruan gelditu ziran.

Jaungoiko - Zale

VII' urtia — Amabosterokua | Zornotza 1918'g. Garilla 1.n | 101'g zenbakija — Arpidea laurleko bi

Goteun - etorkande osteko seigarren igandia

GOIZPARKIA.

ALDI atan: Gizozte andia Jesus'egaz zalata jatekorik ezeukela, ikaslariak deitu ta esan eutsen: Gizoztiagaz erruki naz, iru egunian niri jarrai datortz eta jatekorik eztauke-ta: eta euren etxietara barurik bialduko ba'neuz, bidian aulduko dira, euretariko batzuk urriñetik etorri dira-ta. Eta bere ikaslariak erantzun eutsoen: Nok eta nundik ogiz asetu leikez bakartokian? Eta itandu eutsen: Zenbat ogi daukazuez? Eurak erantzun eutsoen: Saspi. Ta gizoztiari lurraren ganian ezarteko agindu eutsan eta saspi ogiak arturik, eskarrak egin, eta zatitu ebazan, eta ikaslariai emotsezan banatuteko, eta gizoztiari banatu eutsoezan. Baita arrain txiki batzuk eukezan eta oneik be, onetsi (bedinkatu) ebazan eta banatuteko agindu eban. Eta jan eben eta asetu ziran: eta ondakiñak batuta, saspi otzarakada artu ebezan. Eta jan ebenak lau milla lez izan ziran: eta alde egiteko esan eutsen. (MARK. VIII, I-9).

* * *

Kistar maite: Jesus geure Gaizkatzalliaren Biotz samur-samurrak, eta gizonen onerako egiten ebazan alatz edo mirari arrigarriak, maitasunezko lokarri sendoakaz Beraganduten ebazan gizonen biotzak, eta Bere irakaskixun eder-ederrak entzuteko gurari gartsuagaz, gauza gustiak itxi-ta, pozez yarraitzen eutsoen. Gaurko Goizparkian ikusten doguz lau milla, gizonezkotan bakarrik, lekaro edo basamorturaño, jatekoagaz aiztuta, iru egunian yarraitzen dautsela. ¡A zan kistar-ikastia ikasteko gurari benetakua! ¡Bai daukagu zer ikasi eurakandik! Begira zer egin eben Jesus'i entzutiarren, ta zenbat neke igaroten daben kistar - ikastia ikastiarren. Ta zenbat dira gaurko egunian beste ainbeste egingo leukienak? Dirudienez ez asko beintzat. Ontzat euren buruak daukiezanak be, nekerik artu barik, euren nagikeriari ondoen yatorkon yaupa edo mesa entzuten dabe. Mesa nagosia luziegi eresten dabe. Itzaldiak entzutera yoateko beti daukie zeregiñen bat edo akiakulaen bat. Ibildeun edo *prosesiñoen* bat ba'da, burutzik joateko beroegi egiten dabela, edo luzeegia dalako, edo lagunen irribarretxuagaitik, *beato*entzat izten dabez. Belguntza edo misiño, bederatziurrun edo beste eleizkixunen bat ba'da, iñoz eztira eurentzat ordu egokietan, ¡beti zeregiñen bat daukienian!..

¿Au da Jesu-Kisto'ri yarraitxia, au da, Jesus'en irakatsiak ikasi gura izatia? Au epelkeri utsa baño ezta, baña gogoratu daigun epelkeriagaz eztala zerua irabasten, nekiagaz baño. Gogo zintzua ta gar andia euki daigun ba, aurrerantzian Jesu-Kisto ta bere irakaskintzat ondo ikasi ta biotzez maitatuteko, eta geure biarrizanetan, naiz gorputz naiz gogokoetan, Jesus -Biotz biguna, aitarik samurrena lez, gugaz errukituko da: "*Gizon oneikaz erruki naz*" esango dau; eta erruki onetatik, iturri bizitik lez, izuriko da geure gorputz ta biotzetara biar dogun yanari ugaria, ta goguetara, bere eskarra, laguntza ta zoriona. —GABIREL.

AIZKIDETASUNA J.Z. 1918-101-106

Lora eder ta samur-samurra
mardulik sortzen yakuna,
geu-biotz-baru baratzan legez
lili usaintsu biguna;
aizkidetasun maitetasuna
orok daukagu barruan;
Lora eder au zaintzen eztaunak,
bauko zorunik gogoan?

Yanari barik ezin leike iraun
ezelan bere bizitzak,
Maitasun barik zelan iraun lei
luzaro gure biotzak?
Non aurkitu lei bere yakia
izanik auxe bakarra?
Yaki au eztaun biotzari ba,
zek biztu bizitza-garra?

Lili usaintsu ta samur onek
alkartzen dituz biotzak,
berau ezpalitz danak litzakez
bakar, itun eta illotzak.
Onek damotso biziteari
atsegin-gozotasuna;
Aizkide barik euki geinke ba
bear dan poz ta zoruna?

Aizkide barik, nori agertu
biotz-barrengo samiñak?
Nori edestu gogo-barrengo
yazokun alai pozkillak?
Yasarpenagaz garrastasuna
badator geure ondoren;
noren biotzan deituko dogu
laguntasuna eskatzen?

Barriz aizkide ona danari
emon dautsonak biotza,
egun alai naiz illunetan be,
euko dau poz ta laguntza.
Berau dalako emaitz ederra
Yainkoak emon dauskuna
gozatzen dausku gustiz oparo

bizitza-garrastasuna.

Aizkide ona daunak aurkitzen
Yakituriak diñonez:
«Ondasunketa aurkituten dau»
beteko dauna zorunez.
Urrerik ez da, ez ondasunik
aizkide ona lakorik,
berau bagarik eztagolako
beko zorion biderik.

Gauza bigun ta samurra danez
ardura ondo zaintzeko,
girñak ba beti listorra letxe
gertu daoz lorau galtzeko,
ta izpi gaizkille zorrotz-zorrotzaz
daben lez lorea galtzen,
lorau etsayak errez galtzen dau
ezpa-da arduraz zaintzen.

Zaindu ba beti maitetasunaz
donoki lili eder au,
arantza-esi gustiz zorrotzaz
etsai kaltetik ingurau.
Auxe zintzoro egiten bogu
ludian garan artean,
zuzen bai zuzen ibillko gara
zoriontasun bidean.

AIZKIDETASUNA

Lora eder ta samur - samurra
mardulik sortzen yakuna,
geu - biotzian baratzian lez
lora usaintsu, biguna:
aizkidetasun maitetasuna
orok daukagu barruan:
Lora eder au zaintzen ez daunak
¿bauko zorunik goguan?

Zer janik gabe ezin lei iraun
ezelan bere bizitzak:
Maitasun barik zelan iraun lei
luzaro gure biotzak?
¿Nun aurkitu lei bere jakia
izanik auxe bakarra?
Jaki au eztaun biotzari ba,
¿zek piztu bizitza - garra?

Lora usaintsu ta bigun onek
alkartzen dituz biotzak,
berau ezpalitz danak litzakez
bakar, itun ta illotzak.
Onek damotso bizitziari
atsegin gozotasuna:
¿Aizkide barik euki geinke ba,
biar dan poz ta zoruna?

¿Nori agertu aizkide barik
biotz - barrengo samiñak?
¿Nori edestu gogo barruko
jazokun alai pozkillak?
Jazarpenagaz garrastasuna
ba'dator geure ondoren:
¿noin biotzian deituko dogu
laguntasuna eskatzen?

Baña aizkide ona danari
emon dautsenak biotza,
egun alai ta illunetan be
euko dau poz ta laguntza.
Berau dalako emaitz ederra
Jainkuak egin dauskuna
gozatzen dausku gustiz oparo
bizitza garrastasuna.

Aizkide ona aurkitzen daunak
Jakituriak diñonez,
«Ondasunketa aurkituten dau»
beteko dauna zorunez.
Ez da urrerik, ez ondasunik
aizkide ona lakorik,
berau bagarik eztagolako
beste zorion biderik.

Gauza bigun ta samurra danez
ardura ondo zaintzeko,
girnak ba beti listorra letxe
gertu daoz lorau galtzeko.
Izpi gaizkille zorrotz - zorrotzaz
daben lez loria galtzen
lorau etsayak errez galtzen dau
ez - pada arduraz zaintzen.

Zaindu ba beti maitetasunaz
donoki - lili eder au,
arantza-esi zorrotz-zorrotzaz
etsayetatik ingurau;
Auxe zintzoki egiten bo'gu
ludian garan artian,
zuzen bai zuzen ibilko gara
zoriontasun bidian.

GABIREL.

GUZURAREN ZIGORA

Azkenengo zenbakijan, *Egijaren Sarija,* irakurburupian Norberta ikaskiñaren mutikotxuatzaz idatzi nebana, beriala zabaldu zan auzokidien artian. Estepan alanolango zurgiñaren semerik zarena, bizkora ta zura, bai ziñez, baña gaiztakerijetan be lenengo malakua zanaren bijotzian txindi egari ta gose latza sortu zan Norbertajazokuna entzun ebaneko. Beraz, urengo goxian, sutizkilubak bizkarean ebezala mendirantza egiten ikusi ebazanian atzeguneko zaldun bijak, artu eban berak be, gurasuari jaramonik be egintzeka, mendi-

Jaungoiko - Zale

VII' urtia
Amabosterokua

Zornotza 1918'g. Garilla 15.n

102'g zenbakija
Arpidea laurleko bi

Goteun - etorkande osteko zortzigarren igandia

GOIZPARKIA.

ALDI atan: Jesus'ek bere ikasliei irudiki au esan eutsen: Gizon bat zan, aberatsa, ogasun - zaña eukana: eta au salatu eben, beronen ogasunak eralgi bai eutsazan lez. Eta dei-egin eta esan eutson: ¿Zer da nik zutzaz entzun dodan au? Ogasun saŕtuŕtenen barri emon egidazu: gaurtik ba, nire ogazunak ezin zaindu ixango dozuz-ta. Ta ogasun-zañak bere artian esan eban: ¿Zer egingo ete dot, ba, jaubiak ogasun-zaintzea kentzen daust-eta? Atxurren ezin dagiket, eskatzeko lotsa naz. Bai-dakit zer egingo dodan, ogasun-zaintzea kenduko daustenian, euren etxietan artu nagien. Eta jaubiaren zordunak banan-banan deitu-ta, lenenguari esan eutson: ¿Zuk zenbat jaubiari zor dautsozu? Ta onek esan eban: eun orioneurkin. Eta oni esan eutson: zeure ingia artu egizu: yesarri zaite laster, ta berrogetamar idatzi egizu. Gero bestiari esan eutson: ¿Zuk ba,zeinbat zor dautsozu? Ta onek esan eban: Eun meta gari. Esan eutson: Zeure ingiak artu ta larogei idatzi eikezu. Ta jaubiak ogasuntzain gaiztua goraldu eban zurkiro egin ebalako, gizadi onetako semiak (mundutaŕak) argi semiak baño zurraguak dira euren senaldian (euren artian) Eta nik dirautzuet zuei: gaiztakeri ogasunatzaz aizkidiak egikezuez zeuen buruentzat, eriotzaldian etxe betikoan artu zadixen. (LUK-XVI, I-9)

Kistar maite: Jesu-Kisto'k gaurko goizparki bidez adirazoten dausku, Jaungoikua dala gauza gustien Jabia, aldi baten Moises'i esan eutson letxe: «Mea sunt omnia» (Ex, XIII,-2) Beraz, gu Jaungoikua'n aurrian ezertxoren jabe ezkariala, daukagun gustia Jauna'ren eskutik artu dogulako. Geure ondasun gustiak ba, geure gogua, geure gorputza, geure adimena, geure naimen edo borondatia, geure irudimena, geure sentzunak, eta beste ondasun gustiak, Jauna'k emonak dira, ta Bera da Jabe bakarra: gu ondasun-zain edo *mayordomu* baño ezkara. Ta iñoren gauzak geure ardurapian daukaguzanian ezin geinke egin geuk gura doguna, euraen jabiak nai dauna baño. Jauna'gandik artu doguzan ondasunak ba, Berak gura daben eraz erabilli biar doguz, Bere aintza edo gloriarako, Jaun-goikua'k zelan erabilli doguzan itanduko dauskunian erantzun zuzena emoteko, erantzun okerra emonda ogasuntzain gaiztua lez zigortu ezkaizan. Ondasuntzañak oker egin eban, baña okerr onen ondorenak zuzentzeko arduratsua ta zurra izan zan. Jesus'ek ogasuntzaña geure eredutzat ipinten dauskunian, bere gaiztakerian jarraitzeko ez-diñosku, bere zoritxarrian aizkidiak ugarituteko ipiñi eban ardura ta zurtasunari baño, geure egiñen on, ukar limosna ta ondasunakaz aizkide ugariak, zeruan garbi tokian ta ludian eginda, euren otoiakaz eriotz-aldian betiko zoruna lortzen lagundu daiskuen.

GABIREL.

EUZKELDUNEI EUZKERAZ

Jaungoiko-Zale bazkideai.

Oskarbian dizdiratsu
dakusgu eguzkia,
ludi gustian zabaltzen
izpi-bidez argia.
¿Zer litzake ludi dana
eguzki eder barik?
Ituntasun biztokia,
ez litzake besterik.
Baña bada eguzki bat
askozaz be obia,
goitik bialtzen dabena
goguentzat argia.
Ziñiste izpien bidez
argitzen dauz gizonak,
jaurtirik euren gogotik
illuntasun itunak.
Josu-Kisto da euzki au
jatsia donokitik
ta ikaslak zabaltzen dauz
erri gustietatik.
Ele - emaitzaz batera
ara Bere agintza:
«Zabaldu ludi gustitik
Neure Irakaskintza».
«Eta erri bakotxari
irakatsi bere elez,
apain zaituedalako
izkuntzaren emaitzez.
Etsayen asmu gaiztuak
ostikopetuteko,
zin-egin gogo gustiaz
Neu-agintzau zaintzeko».
Jauna'ren agintz eder au
geu-goguan artuta.
JAUNGOIKO-ZALE Bazkunan
gagoz gu alkartuta.
Josu'ren irakatsiak
zabaltzeko onuraz,
ara ikurritz ederra
«EUZKELDUNEI EUZKERAZ».

GABIREL.

Jaungoiko - Zale

VII' urtia
Amabosterokua

Zornotza 1918'g. Dagonilla 1.n

103'g zenbakija
Arpidea laurleko bi

Gotzai baten oneskuna Jaungoiko-Zale'kuentzat

Jaungoiko - Zale Bazkunakoari

Nere biotzeko adiskideak: Donostira etorri ezkeroz — atzo — eman dirate nere etxekoak Jaungoiko - Zalen sari polita. Ez nuke asmatuko nola itz egin zueri eskerrak bialtzeko.

Jesusen Biotzari eskatu diot ordaindu zaitzatela guziok.

Nik nere aldetik bialdu ditut zerura nere otoitz apalak zuen onerako, eta biotz - biotzetik bedeinkatu nai ditut Jaungoiko-Zale Bazkunako gizon argiak, bazkide, idazle ta irakurleak.

+ Mateo, Osmako Gotzaia.

Donostijan 1918 Garilla 25.

*Belaunbiko, burua makur, artu dogu Osma'ko Gotzain agurgarrijak euzkeraz damoskun oneskuna. Beronek gure gogo txatxarrari arnasa barrija ta bizmena dakartsoz, darabilgun arazo onetan aspertu ez dedin. G'zonak poz-gayen bat biar dau ezer egiteko, ta guretzako pozgairik onena da Eleizako nagosijak, Gotzañak, geure lanak onestia. Goteunak geu zuzentzeko ipiñi dauzanak gure lanak onesten dabezan ezkero, **¡guazen aurrera!***

Orain gure bazkidiak Gotzañaren idazkija ulertu dagijen oartxu bat egin biar dogu. Mujika jauna Bazkuniaren ongillia beti izan da; lenen-lenengotan, berau irasi aurretik, berak lagundu euskun aldi atan goterki onetako Gotzain zan Cadena-Eleta jaunari (G. B.) geure asmuak aurkestuten, eta beti, bera bitarteko dala, abegi ona ixan dabe gure eskakizunak. Gero geure idazkidia be bai da; Aste-Gureneko zenbakijan ikusi zenduen bere idazki ederra, ta uste dogu aurrerantzian be noizipein idatziko daula. Augaitik, bere Gotzaintzea izan zanian, gure ordezkarija bialdu gendun Gazteiz'era, berari agur-egiteko ta gure esker onaren gomutakitzat bezuza txiki bat eskintzeko. Gure ordezkarijak idazkallu (tinta-ontzi) eder bat erosi eban; baña, Bazkunaren ikurra ipintiarren, ezin egun aetan eskiñi al izan eutson Gotzain barrijari gure gomutakitxua, ta beste bateri ardura ori itxita etorri zan. Olan aituko dozue zegaitik orain arte artu ez daben.

Gotzain agurgarri orrek, barriz, eskerrik ez dauzkuzu zor, geu gara zordunak.

1680'garren urteko Azilla 5'garren eguneko Batzarran, Loyala'tar Iñaki Deuna Bizkaya'k Zaintzalletzat autu eban eta bere eguna, Garilla 31'garrena, ordutik gaur arte jaitzen dau, Doibatz-legez beti jaya izan ez arren. Baña aurten, barriro be geure Aldundi edo Diputaziñuak eskatuta, Gipuzkoa'rako lentxuago egin eban lez, Bizkai'rako be egun ori Doibatzat jai - egun egin dau.

Ganera egun orretan Bizkai'ko Aldundijak bere Etxian Josu - Bijotz irudija jaurestuko dau, Berari Bizkai gustija opaldurik.

Augaitik JAUNGOIKO - ZALE zenbaki au, Dagonilla lenengokua dalarik, egun bi aurrerago ataraten dogu, geure Aldundi zintzuari zorijon-agurra - egiteko, ta irakurle gustijei eskatzeko egun orretan al dabenak Bilbao'ra eldu daitezela jazokun bi onek ospatutera, ta gustijak euren errijetan, beintzat, ospatu dagijela, Jaunartzaz eta leyo ta *balkoyak* apainduaz, eta alegindu daitezela errikide gustijak auxe egin dagijen.

Bizkai'ko Aldundijak arazo garrantzitzuak darabiz esku artian, euzkel ikastolak eta abar; gustijok ba, Josu-Biotzari ta Deun Iñaki geure Zaintzalliari eskatu biar dautsogu lagundu dayela arazu orrek ondo atonduteko.

ARTEZKARIJAK.

Goteun - etorkunde osteko amargarren igandia

GOIZPARKIA.

ALDI atan: Jesus'ek buruak ontzat artzen eta bestiak ezezten ebezan batzuei irudiki au esan eutsen: Gizon bi elexara otoi-egiteko igon ziran bata parixetarra ta bestia zergalaria (publikanua). Parixetarrak zutik bere barruan otoi auxe egiten eban; Jaungoikuoi, eskarrik asko zeuri ni beste gizonak lakua enazalako: lapurrak, bidebakuak, ezkontzausliak ezta zergalari au lakua be. Astian birritan baru egiten dot: daukadazan gustien amarrenak emon daruadaz.

Eta zergalaria urriñian zutunik, begiak be ezebazan goira jaso gura, baña bularra joten eban esanaz: Jaungoikuoi, ni pekatari oni erruki zakit.

Nik ba dirautzuet, au donetuagotuta (santuagotuta) elexatik etxera jatzi zan, bestia baño; ba, burua goraltzen dauna eratziko da. «Ta burua erazten dauna goralduko da.» (Luk, XXXVIII, 9, 14).

* * *

Kistar maite: Gaurko Goizparkian, irakatsi gura dausku Jesu-Kristo gure Jaunak, arrokeriari dautson iguiña, ta apaltasunari dautson maitasuna. Jesus guri zeruko bidia erakusteko gizon egin zan, ta bide oneri jarraitzeko eragozpenik andiena arrokeria zala ondo ekialako, oben gustiak euren asiera arrokerian daukelako, apaltasuna irakatsi gura euskun itz eder oneikaz: «Zoruntsuak gogoz apalak diranak, zerua eurena da-ta. ¡Ta alan da be, ondo sustrai sakonak daukoz arrokeriak geure biotzian! Astertu geure itz ta egiñenak, ta gitxi edo asko (sarritan barriz ugari-ugari) beti geure biotz barruko arrokeria agertuko dogu.

Baña arrotuteko ziyorik ete daukogu? Izpirik bez. «Zer daukazu—diñosku Paul deunak—iñor gandik artu eztozunik? Pekatua, besterik ez. Beste gauza on gustiak Jauna'renak dira. Ta besterenak ba - dira daukazuzan gauza gustiak: zer dala-ta arrotzen zara zeuriak ba-lira letxe? Ta au onan dala jakinda, parixetarra lez, bestien uts-egitiak ikusteko begi zoliak, ta geuriak ikusteko itsuak eukiko ete doguz? Gure buruarentzat errukiorrak, ta bestientzat gogorrak izango ete gara? Jauna'ren laguntzagaitik izan ezik, bestiak baño gaiztuagoak ez ete giñan izango? Zer dala-ta arrotu geintekez ba?

Arrokeriaz batera ezin geinke euki geure biotzian benetako ekandunik: Ezin geinke Jaungoikua Berak gura daun lez, maitatu, ezta geide edo projimua be, arrokeriak Jauna'ren eskarra geugandik urrinduten dau, ta lagun urkuaren utsegitiak ikusita, erruki ordez gogorkeria zortzen daulako. Apalak ba-gara barriz, geure biarkun gustiak bete ondoren, biotzez esango dogu: «Jauna, otsein gauza-ez bat baño ez gara, egin biar doguna baño eztogu egin, ta zergalariak lez errukia eskatuko dautsogu uts-egite gustiakaitik, alan berau lez Bere begi-begiko egingo gara, ta goralduko gaitu. Goresten dana ba, beratua izango da, ta apaltzen dana goraldua izango da»

GABIREL.

Doibatz - Egutegija

IGANDIAK: 4'gn.; 11'gn.

Igande gustijetan kistaŕ orok jaupa osua entzun-biaŕ dogu ta otsein-lanik ez dagikegu.

EGUN IXENDABAK: 2'gn. Iīaren lenengo barikuba: *Porziunkula* nekazka irabazteko egguna. *Nekazka au irabazteko eŕtxauretxetan, gotzañaren eskubidez, txaunburubak geyenez, uŕengo igandia ixendau oi dabe.*

Iīaren lenengo bederatzi bariku jaŕaīubetan, Jaunartza, biaŕ dan eraz, ba'dagixu —Josu-Kisto'k esan eban-donokija zeuria dozu.

5'gn. Eduŕetako Ama-Neskutza.

6'gn. Josu-Irudibijakundia.

Ama-Neskutz-Jasokunde jayarako bederatziuŕena asteko eguna.

Irudibijakundia esanaz, norbaīek, len daukanetik, beste arpeyera, antza agirtzia, aŕtzia uleŕtu-biaŕ dogu. Bere biztaldijan bein, Josu'k, Tabor mendijan, iru Belduben agirijan donokiko antza, agirtu ebala-ta da gauŕ Doibatza'k ospatzen daun Irudibijakunde-jaya.

10'gn. Deun-Laurentzi, jaupaltseña, ziñopea, jai erditzat zaintzen doguna.

12'gn. Deun-Kalare, neskutza, iraslia.

14'gn. Buldadun diranentzat be barau ta aratuzte-aragija izteko-eguna.

15'gn. Ama-Neskutza-Jasokundia: jai osua.

Jokin.

IÑAKI DEUNA

EDESTI orokaŕ-bidez dakigu guzuŕak eta egijak alkaŕi guda gogoŕa egiīen dautsela. Guda-zelai onetan, biztoki onetan, ikuŕin bi auŕez-auŕ dagoz, bata odoltsua, asaŕia, iraña ta obena aldeztuten dauzana, bestia apaltasuna ta maīasuna aldeztuten dauzana, bata Babilonia, bestia Hierosolym, Lukiper eta Josu.

Lukiper'ek aldiz-aldi bere otsein, jopu diran gixon donge ziñausliak bidaltzen dauz gixaemiak geiztokiratu dayezantzat, baīa Josu'k baŕiz Bere otsein zintzuak diran deunak gixaemiak, donge ta ziñausle oŕen guzuŕak ez jaramota, donokiratu dayezantzat.

* * *

XVI'gaŕen gixaldija zan, *Protestantismua* deritxon ikasti galgaŕija Europa-ziaŕ, lasteŕ be lasteŕ mendi agoŕetan suba axe gogoŕak bultzauta lez zabaldu zala. Luterok

Gure Zaindaria

Gudari asartu ta bulardetsua
zupin ankerragaz gaixki zauritua
dago gogo - itun,
baita be oldoztun,
bildurra daulako
eztala izango gauza gudarako.

Gudari aintzea ta bere ospeak
eskuen artetik iges ikusteak,
biotza minduta
artegabetuta
dauna baretzeko,
deunen edestia dau irakurteko.

Gogoz oldoztuta deunaen bizitzak
dakus oroenak gogo - gudaritzak
gogor ta biziak
dirala gustiak,
gogo - etsai kaltez
zintzo gudatuta Jaun aintzaren aldez

Biotza sututa jarraitu nayian,
¿Zertako nago ni, zertako ludian?
¿Ludian zertako?
«Jauna'n aintzarako»
—dantzu biotzian—
«Bera maitatzeko ago i ludian».

Euzkotar gudari biotz andidunak
jaurti dauz gogotik oldozkun itunak,
gustiz da poztuten
ta erabagiten
aurrerantz zintzoro
Kisto'n gudaria izateko osoro.

Asmu oneik artzen dagon bitartian
etsai galgarria Doibatza'n erdian,
Lutero arrua,
girnaz itsutua
dager, diñoala,
«Doibatza galtzeko gertu dagoala».

Eztaki Iñaki'k urtenda bidera,
botako dabela illotzik lurrera;
eztaki gaxuak
mutil asartuak
dabela zin - egin,
gudakan ilteko Kisto'n etsayekin.

Zu zara mutil au, gure Zaindaria
donokian zaozan Iñaki guria.
¡Anai deun altsua!
¡Deun errukitsua!
entzun eskaria:
«Etsai danen kaltez zain Euzko-erria».

GABIREL.

Esataldia

(Jarraipena).

III

EUZKELDUNAK JAUNGOIKOA MAITETU DAU

Gizonak daukoz, gogo eguno amaituko eztana ta aragi ilda gero biztuko dana. Ortik datorkoz geroko ta emengo egin biarrak.

Gogoaren alderdiari lenengo begiratu dayogun. ¿Alde onentzat euzkeria txarra izan ete da?

Orretarako lenengo begiratu dayogun Jaungoikoaren itzari. San Juanek irekasten deusku (1) Lurraren lau alderdijetan lau angeru ikusi zituala. Gero beste angeru Jaungoiko biziaren ezaugarria eukan bat ikusi ebala deadar andi bat egiten, esaten ebala: Itxaso, lur eta zugatzari txarrik ezegiozue egin arik, eta geure Jaungoikoaren otseñari bekokian ezaugarria ipiñi arte.

Entzun eban Israelgo erki (tribu) gustietako ezaugarridunak eun eta berrogeta lau anei edo milla zirela ta gero diño: *Post hæc vidi turbam magnam, quam dinumerare nemo poterat, ex omnibus gentibus, et tribubus, et populis, et linguis: stantes ante thronum, et in conspectu Agni amicti stolis albis, et palmæ in manibus eorum.*

Ikusi neban tegi, iñok zenbatu ezin eukiana, gizalde, erki, erri ta izkera gustietakoak, Bildo-

(1) Apokalipsis'en VII'gn. atalian.

Jaungoiko - Zale

VII' urtia
Amabosterokua

Zornotza 1918'g. Dagonilla 15.n

104'g zenbakija
Arpidea laurleko bi

Goteun-etorkunde osteko amabigarren igandia

GOIZPARKIA.

Aldi atan: Jesus'ek bere ikaslariai esan eutsen: Zorundunak zuek ikusten dozuena ikusten daben begiak. Nik dirautzuet, iragarle ta errege askok ikusi gura izan eben zuek ikusten dozuena ta ezeben ikusi, ta entzun zuek entzuten dozuena ta ezeben entzun. Orduan lege gizon bat jagi zan eta zirikatzi-arren esan eutson:

¿Zer egin biar dot betiko bizitza lortuteko? Eta Berak esan eutson: ¿Legian zer dago idatzita? Zer irakurten dozu? Eta berak erantzunaz esan eban: Jaungoiko zeure Jauna maiteko dozu zeure biotz-biotzez, zeure alegin gustiaz, zeure adimen gustiaz, ta zeure lagun-urkua zeure burua legez. Ondo erantzun dozu: orixe egikezu ta biziko zara. Baña berak (lege gizonak) bere burua ontzat agertu gurarik, Jesus'i esan eutson: ¿Eta nor da nire geide edo lagun-urkua? Eta Jesus'ek itz-egin eban esanaz: Jerusalem'dik Jeriko'ra gizon bat jasten zan, eta lapurrak oratu ta ostu eutsoen, gustiz zauritu eben eta erdi illik itxita juan ziran. Eta jazo zan abade bat (judarra) bide artatik jasten zala: ikusi eban, baña jaramon barik igaro zan. Baita *levita* edo abade-otsein bat be igaro zan, eta urreratu zan-arren ikusi ta urrindu zan.

Bidez etorran samaritar bat baña, beraganatu zan eta ikusiaz errukitu zan. Eta urreratuta bere zauriak lotu eutsozan, ardao-orioaz igortzita: eta bere àsto ganian ipiñi ta ostatu batera eroan eban eta antxe zaindu eban. Biaramonian amarrekobi atara ebazan, eta ostatariari emonik esan eutson: Zaindu egizu au, ta laskatu edo gastauko dozun gustia neuk ordainduko dautzut atzera etortian.

¿Iru oneitatik, zein deritxozu lapurrak oratuaren lagun-urkua izan dala? Eta latariak esan eutson: beragaz errukitu zana. Eta Jesus'ek erantzun eutson: Zoaz ba, ta berorixe egikezu. (Luk. X-23-27).

* * *

Kistar maite: Gaurko goizparkiak irakasten dauskuna bizitza gustian biotzian josita erabilli biar geunke. Jainko-Lege ta Kisto'ren irakaskintza gustien una, onetantxe dago ba: Jainkua geure biotz gustiagaz, gogo gustiakaz, ta indar gustiakaz maitatutian, eta geure lagun-urkua geure burua letxe. Jainkua maitetutia, bere agindu gustiak zintzo betetia, ta bat bakarra ausi baño lenengo gauza gustiak galtzeko gertu egotia da. Jainkua maitatu biar dogu, semeak aita lez, aizkidiak aizkidia lez, senarrak emaztia lez, bizia daunak bere bizia lez. Jainkua ba, ezerezetik atara ginduzalako, geure Aita da; obeneko (pekatuko) leza izugarritik atara ginduzalako, geure aizkidia da; geuri dauskun maitasunagaitik geure ezkona, ta geure bizitza da.

Lagun-urkua be geure burua lez maitatu biar dogu. Bere zoritxarrak geuriak lez tamaldu biar gaitu; bere izen ona geuria lez zaindu, bere uts-egitiak geuriak lez eskutatu; itz baten lagun-urkua maitatu biar dogu, geu bestiak maitatutia gura do-

gun letxe, Jesu-Kisto'k maitatu ginduzan lez eriotzaraño Ta «*lagun urkua*» nor da? Lagun-urkua gizon gustiak dira: aizkide nai arerio izan, erritar nai atzerritarrak, danak maitatu biar dituguz, gizon gustiak Aita zerukoen semiak, bere irudira egiñak, ta batera betiko zoruntzuak izateko egiñak izan garialako. Onek eztau esan gura baten batek uste izan leien lez, geure senide, aizkide ta erritarrak bardiñian eztoguzala geyago maitatu biar: eurai laguntzeko ezkariala geyago arduratu biar ain urrekoak eztiranakaz baño; gauza argia da ba, zenbat eta urkuagua izan, geyago maitatu biar dogula. Auxe da Jesu-Kisto'k irakasten dauskuna, goizpaikiak diñonez ba, askosaz geyago maite eban Jon deuna beste ikaslariak baño.

¿Zelan maitatu biar dogu lagun urkua? Ez itzez, benetan eta egitez baño. Ara Jon deunak emoten dauskun araua. «Munduko ondasunak daukazanak, eta bere anaya biarr izanian ikusita, bere errayak isten ba'ditu beragaz errukitu eziteko: ¿bere barruan Jaungoikuagazko maitasunik eukitia zelan izan leiteke?» (Joan III-17).

Eta au onan dala, zegaitik kistar askoren aotan entzuten dira, Kain gaiztuak bere anaya nun egoan itandu eutsonian Jauna'ri emon eutson erantzun gorrotagarriau: «¿Ni neure anayan zaintzallia naz ala?» (Gen. IV-9) ¿Zegaitik? Benetako maitetasunak kistar askoren biotzak berotzen ezditualako. Ba, jakin daigun benetako jaunmaitasun barik eztagola zeruratzerik. — GABIREL.

Doibatz - Egutegija

IGANDIAK: 18'gn. ta 25'garenian.

Igande gustijetan kistar orok jaupa osua entzun-biar dogu ta otsein-lanik ez dagikegu.

EGUN IXENDABAK: 16'gn. Jokin deuna, Ama Neskutza'ren Ata.

24'gn. Bartoloma deuna, Belduba, jai erditzat zaintzen doguna.

28'gn. Augustin deuna, jai erdija.

29'gn. Jon Ugutzari - buruingundia.

* * *

Jon Ugatzarijak Herodes Antipas'eri, Bethlem'go ume jayopari oro erailteko agindu ebanaren semia, ez eutson lakètuten bere (Bakaldunaren) anaya Pilipa'ren emaztia ixaten; au zala-ta, Jon deuna oratu ta espetxian sartu eban.

Herodias, au zan andera galdubaren ixena, Ugatzarija erailteko ereti-zain aspaldijan eguan. Herodes bakaldunak bere jayotz-eguna jan-edanaz andikiro ospatu gura-ixan eban, ta jatetuakin mai-aldian eguala, Salome neskatua, bere Ama Herodias'ek bialduta, aurkeztu zan eta iradadantza-egin-ezkero gustijei atse-ixan yaken.

Bakaldunak ziñez eskiñi eutson eskatu legikiona, emongo eutsola. Neskatua amagana juan eta esan eutson: «Zer daskaketsot?» ta amak: «Jon Ugatzarija'ren buruba».

Neskatuak bakaldunari diñotso: «emon egidazu azpilan Jon Ugutzarija'ren buruba».

Bakalduna laritu - aren esan eutsonagatik, Ugutzarija'ren buruba emoteko agindu eban; Jon deunari buruba ebagi ta odola erijola neskatuari emon eutson eta onek bere amari.

Kistar - Ikasti atzalbena

Jainko - Legeko laugarren agindua

II

Kistar egin biarrak Eleiz gizonetzaz

—*¿Zeintzuk dira kistar egin biarrak Eleiz gizonetzaz?*

—Jainkoa'k guraso bidez gorputz bizitza damoskun lez, Eleiz gizon bidez gogo bizitza damosku. Giza - gogoak bizitz bi dauz: bata, berenez dagokiona; bestia goi-eskarrak (grazijak) emoten dautsona. *Gogoaren gogo* da goi - eskarra. Beraz gurasoetzaz ditugun biarkun berberak ditugu Eleiz gizonetzaz. Gurasoei lez *itza-*

Sagar-zugatz baten azpian

Beste askon antzeko siñizte bako kirten batek, beti jauparien aurka ziarduan, birau ta tentelkeriak ugari Erlijiño ta Elexa'ren kaltez esaten ebazala, jaupari batzuk euren bearkunak ondo betetan ezebezala-ta.

Ainbeste tentelkeriz aspertuta, bere lagun batek egurazteko asmoz izan balitz lez, baratz batera eroan eban. Kistar ona, bertan egoan sagar-zugatz eder eta igali ederrez betetako baten azpian geratu zan. Sagar-pian ale batzuk egozan jausita.

Kistarrak siñiztebageari itandu eutson:

—¿Zegaitik uste dozu sagar oneik zugatzetik jausi dirala?

Arrak jota egozalako-erantzun eutson.

¡Ederto erantzuna! Eta sagar batzuk arrak jota jausi diralako ¿esan zeinke zugatz eder au ezertarako gauza eztala?

—Ori ez: kirtenkeri bat izango litzaketa. Baña zer esan gura dozu orregaz?

—Aizkide: egoki datorren gauza bat. Elexama zugatz eder eta mardul au lez da.

Ezeizu txartzat euki jausten diran igali edo frutu batzukaitik, maitatu egizu aldean daukazan garau ederrakaitik, geyenak dira-ta.

Siñizte bako sasi-jakituna burua makurtuta ixildu zan. Bai ba, ezekien zer erantzun-da.

GAMA.

Esataldia

(Amaya).

IV

Euzkeldunak urkoa maitetu dau

¿Euzkeriak ete dauko gizonak gizartean euki leizan artu emonetarako biar eztan gauzarik? Eztot uste. Euzkaldunak Jaungoikoa maitetu daben lez, urkoa bere egin dau, ez bakarrik emen, baita erbestean bere. Larregi ez luzatutearren erbesteko jazoera bat edo beste bakarrik esango deutzuet, euretatik errez ezagutuko dozuelako, euzkereak gizarterako ez daukela eragozpenik.

Españako laterririk geyenak, moroak lenago menderatu zituezan eta aretako al ebenak ipar aldeko mendi onetara, Asturias eta beste al eben lekuetara alde eben.

Moroak oraindik aurrera etozan eta euren azpian egoteari ezeritxoeh lez, arpegi emoteko asmua artu eben. Asturias aldeko ta bertara joandakoak Pelayo nagosi ipiñi eben eta neikoa etzirela uste ebelako euzkeldunari laguntasuna eskatu eutsen.

Baturik al ziran gustiak Pelayok esataldia egin eutsen, era onetara: Moroak orretan ziger eroan biar doguz edo berton il, bestela euren jopu (esclavo) izan biarko dogu. Euzkeldunari esan eieutsen (1) ¿Zuek etzarie arako Erromatar, Alemania, España... menderaturik, zeuek azpiratu etzenduezenak? ¿Zek bildurtu geinkez? Bere esataldiaz gartu zituan. Orretarako eleizgizonak bere asko lagundu eiotzen.

Gauza jakiña da bertan il etziren Moroak aurrian eroan zituena.

Beste jazoera bat noya esatera: Moroak beroyezan euren erririantz. Ez eben gura arantz joaterik eta Tolosako Nabasetan askoak batu ziran, baita beste alderditik kristiñauak bere. Orretarako al eben gustia egin eben eta jo eben Erromako Aita Santuagana bere. Parkamenak emon zituan, aurrerago beste leku batzuetarako lez. Moroen gudaldian *buldian* asieria izan zan lez, euzkeldunak beti oitu dabe, beste gustiak lez, bere eskerrak irabazteko alegiña egin dabelako.

Nabasetako gudaldian euzkaldunak aurrerengo joyazan. Naparrak Moroen nagosiaren inguruan egozan entuntza edo katiak apurtu zituezan, eta Bizkaitarrak ikurrin edo banderak kendu. Egitada orren gomutan II Diegoren argazkia Toleko katedralian dago. (1).

Etziran or geratu euzkeldunen egiteak. Ez bakarrik legorrez baita itxasoz bere laguntasuna euzkeldunak emon eben. Ogetamar untzi joan ziran (2) Gibraltarko estunera, Moroen alegiñak ezereztu ta Sebilla menderatu eben. Euzkeldun batek ango ibaiko zubiaren estuntzak eten eizituan.

V

Azkena

Esán danetik errez aditu leike, euzkeria Jaungoiko ta gizarte zalea izan dala, euzkaldunak Jaungoikoa ta urkoa maitetu dabelako, egin biar dan lez. Arrezkero bere orretariko ezaugarririk asko emon dau. ¿Gogo ta gizarteko egin bierretarako ona izan ezkero, zer dalata guda egiten ete deutse, ondo baño egin ezteutsentarikoak? ¿Ain kaltegarria zetan ete da, ezetariko erruki barik bastertu gura izateko? Beste gurariren batzuk, esan direnak barik, egongo dira. Eurak eztot uste Jaungoikoa ta urkoa obeto maitetutekoak diranik.

Euzkereak geure ziñiskera egiazko ta ekandu onak jagon ditu. Esan leike gauza ta irakatsi txarrentzat, exi ate bagea izan dala (3). Beste alderditik entzun eta ikasi dira birau deungea, jolas eta ostantzeko gauza zakarrik asko. Egiten diran dantza batzuri begira, gutarikorik egunez bere ezin egon leiteke, ain lotsagarriak dira, lengoetan barriz beste erriko nagosiakaz batera egon joyazan. ¿Esan ete leike S. Juan'ek diñoan lez (4) aragiaren gurariak eta arrokeria aintzat artu gura dirala? Naibage andia emotekoa bada bere, gaur orretariko asko ikusten da.

Esaten dabe (5) euzkeldunak bere, illargiaren argitan antxiña dantzan egiten ebela, ta orrek esan gura dabela gurtu egitebela. Ori baño beste ezaugarri barik, orren beste ezin esan geinke. Orduan lez edo nabarbenkeria geyagogaz, tximist argitan orain dantzarik as-

(1) Historia de las Naciones Bascas por D. J. A. Zamakola-n, lenengo idaztiko 175'g.

(1) Compendio de la Historia de Bizcaya'n 35'gn. orri aldean. Bilbao 1904,

(2) El Señorío de Bizcaya por D. A. de Artiñano'n, 144'en orri aldean. Barcelona 1885.

(3) Azpiazuk, len aitatutako lekuan. 614'gn.

(4) Epist. 1'ko bigarren ataleko 16'g. zatian.

(5) Labayru esandakoa 84'gn.

ko egitenda ta iñok eztau uste tximist argia gurtuten danik.

Baita ikasteko gauzetan bere, ainbat basterrerengo lekuan euzkeria ipiñi gura da. Ni, gastetxua nintzanian, euzkera orduan oituten zanian, *Dotriña Kartillia* esaten yakona ikasi neban. Gaur badira eztala irakatzi biar diñoenak, euzkeraz egiten dan errietan bere, orain arte euzkeraz ikasi dabenak betiko ondatu balitzatekezan.

Entzun dozue *Sinodal*ak zer diñoan. Beste batzuk bere orretan alegiñe ipiñi dabe (1). Geure zaindari (Patrono) San Prantzisko Jabierrek indietara Jesusen irakatsiak zabalduten joan zanian, beste egin biarren ganera, Japoneko eta beste izketa batzuetara irakaskintzia biurtu eban eta umeari irekasten egunian ordu bi emoten zituan. ¿Gaur irakaskintza Jaungoikoarena kendu gurarik ez ete dabiz? Ego aldetik orretan alegiñak egiten dira. (2). Euren gurariak onetan eztira beteko, Jaungoikoari eskerrak, oraindik Elexiak indarra daukalako.

Euzkeria maitetu daigun gurazo ona dalako. Nik uste dot alan egingo dogula. ¿Nor da bere gurasoari lagundu, esanak egin eta lotzea artuko ezteutsena? Orretarako bakotxak aldaben giñoan Arautegiak aginduten dabena bete daigun, Goizpar Santua ta irakaskintzea euzkeraz irekasten doguzala. San Paulok gura daben lez gauza barri kaltegarriak itxi ta Jesusek (3) nai daben lez alkar maitetu daigun. Biar izeneko gauzetan batasuna, badaezpadakoetan aukerea, ta gustietan maitetasuna (4) erabilli daigun.

Era orretara bizi izaten bagara Jaungoikoak emongo dausku betiko zoriontasuna. Alan izan dedila.

(1) S. Zirilo ta Metodien bizitzia irakurri egizu.
(2) R. O. de 18 de Septiembre de 1916 irakurri egizu.
(3) S. Juan XV'g. ataleko 12'g. zatian.
(4) *In necesarls un'tas, in dubis libertas et in omnîbus charitas.*

Gernika'ko eleis-nagosijan, Garilla'ren 3'gn. aurtengo JAUNGOIKO - ZALE'ren Batzar Nagosijan, Ajangiz'ko Ormaetxea'tar Kepa jaunak egin eban ESATALDIA, zenbaki onetan, gaur damingun atalagaz amaituten da. Aurrerengo zenbakijan irar - uts batzuk irakurliak aurkituko ebazan, eurok zuzendu biar dira onetara:

111'g. orrialdean *zakaldu* ordez *zabaldu* irakurri egizu.
— — *ratian* — *zatian* — —

ZIÑESGEA

Oyan itzaltsuan bidekatuta,
nekiaren - nekez gustiz aulduta,
bidaztia dabil,
ikaraz ta zurbil
artegabetua,
nun dan be eztakian gizon gaxua,

Gentzea galduta, dabil oyanian,
batera, bestera, billatu nayian,
gogoko gentzea
ta baretasuna:
baña geruago
ta bere biotza dauko itunago.

Dei atzipekoyaz etsai galgarriak
leusinduten dautsez entzumen zoliak,
eskintzen argia
ta zorun bidia
baña jarraituta,
laister geratzen da ustegabetuta.

Eskar-eskumara zuzendu begiak,
nundik agertuko argien izpiak,
ta illuntasuna,
ustegetzen dauna,
eztakus besterik,
eztager iñundik itxaro - argirik.

Eriotza - deika dagola, onetan
ozantz itzaltsua entzun dau goyetan,
jaso dauz begiak,
ta argien izpiak
dis ludi danian
einda, zabaltzen dau poza oyanian.

Baña bidaztiak lauso dauz begiak:
¿Zelan ikusi ba, argien izpiak?
girnaz itsututa,
begiak minduta,
iges-dau argitik,
¿Urten ete nai dau oyan illunetik?

Dis-dagi beti ziñiste argiak,
bialtzen nai nundik izpi biziak,
ta gixon gaxuak
ziñistebakuak,
iges-dau argitik
¡eztau nai urten ba, illuntasunetik!

GABIREL.

Oyan=selva. — Atzipetu=engañau. — Leusindu=halagar. — Ozantza=Trumoya.

IZKIRIMIRIJA

Takita Eŕoma'taŕak diñoskundik, Augusta Eŕoma'taŕen nagusi edo Kaisarak txindi asko laga eban bere erijotzaldijan, bakaldeŕiko oztienaŕtian bananduteko. Txindi kopuru edo aindo au unei bi lauŕlekotik gora zan. Baña Augusta,ri bakaulkijan jaŕatu eutsona, esana lez estututen laŕegi, onen atzen-naya betetako, ondorengo dasakedan izkirimiri negaŕgaŕi-gaŕatza jazo zan.

Arin-aringa utsian joyan bein gixon bat noz luŕalduteko eguan gizonaren ondora, ta ipiñirik abua bere belaŕijan, albokuak entzuteko bilduŕa ba'eukan lez, bulaŕ ta abots gusti-gustijaz, diñotso: Augusta'ri esayok bere atzen-naiko erabagi ta agintzak eztirala bete ondiño.»

Tiberi'ren belaŕijetara eldu zanian jazo zanaren baŕija, beriala detu eutson gixonari, ta emonik zoŕ eutson gusti-gustija, esan eutson: «Ara emen, gixonoi, iri zoŕ duana, aŕtu baño eztaukok, ta juadi gero ordaindu duazula zoŕak Augusta'ri esatera.» Au esanda gero, beriala agindu eban ildeko.

E.'taŕ Paul.

Jaungoiko - Zale

VII' urtia — Zornotza 1918'g. Trailla 1.n — 105'g zenbakija

Amabosterokua — Arpidea laurleko bi

Goteun-etorkunde osteko amalaugarren igandia

GOIZPARKIA.

ALDI ATAN: Jesus'ek bere ikaslariai esan eutsen: Jaube biri iñok ezin leikio otsein-egin: bada, edo bata gorrotauko dau ta bestia maite: edo bata jasango dau (supridu) edo bestia ezetsi. Jaungoikua'ri ta txindiari (diruari) ezin zeinkioe otsein-egin. Augaitik ba, dirautzuet, ez zaiteze gogo-estutu biziteko zer jango dozuen-ta, ezta gorputza zegaz jantziko ete dozuen. Gogua ez ete da ba, jakia baño nagosiagua, eta gorputza janzkia baño? Begira axe-egaztiai, eztabe ereiten eta galebaiten, ezta aletegietan biltzen: eta zuen Aita Goikuak alikatzen (janaritzen) dauz. ¿Zuek ba, arek baño geyago ez ete zare? Eta zuetariko nok gogalduen-gogalduaz andi danari ukondo bat ezarri leikio? Eta janzkia dala-ta, ¿zegaitik arduratzen zare? Landa liliak uartu eikezuez, zelan asten diran, lan egin barik ta irun barik. Nik dirautzuet ba, Salomon bere aintzaldirik andienian etzan onetariko bat lez jantzi. Landa bedarra, ba, gaur dana ta biar sutara jaurtiten dana, Jaungoikuak aulan jasten ba'dau: ¿zenbat geyago zuek ziñiste gitxidunok? Etzaiteze ba estutu esanaz: ¿zer jango ete dogu ala zegaz jantziko ete gara? gauza onein billa ba atzerritarrak (jentillak) ibilten dira. Bai - daki zuen Aita'k gauza gustioen biarra dozuela. Lenen ba, Jaungoikua'ren ala edo erreñua ta bere zuzentasuna billatu eikezuez, eta beste gauza gustiak gañez ezarriko yatzuez. (MATH. VI, 24-23).

* * *

Kistar maite: Jaube bi dira eurai otsein-egin dayogula gura dabenak: Jaungoikua ta Luziper. Jaungoikua'k ezerezetik atara gaitu, bere odolaz berrerosi, ta bere eskar bidez bere seme egin gaitu, ta gure egiñen onen saritzat betiko zoruna eskintzen dausku. Luziper'ek barrez geure girña iguingarrien lokarriz beragandu gura gaitu, ta geure egiñen gaiztoen saritzat betiko zoritxarra eskintzen dausku. Jaubetzat biak ezin geinkez artu, alkarren etsai gogorrak dira-ta. ¿Zein aukeratu? Jaungoikua, ta bakar-bakarrik Jaungoikua, egizko Jaube bakarra bera dalako. Ta Luziper'ek aberastasun bidez gizonak beragandu gura dituzalako, Jesu-Kisto'k irakasten dausku, jan eta jantzi biarra euki arren, gauza oneitzaz eskariala arduratu biar, geure zoruna ba'lira letxe. Larregi arduratzen garenian ba, gauza oneik biltzeko, Jainkua iraintzen dogu, bere semiakaz daukan ardura aitakorra ukatzen dogulako: ardura larregia alperrekua da gixonentzat, eriotz-aldian gustiak itxi biar ditualako: eta onez ganera kistarrari ez dagokion gauza da, Jaungoikua'ri «Gure Aita» deituarren, ustegetasuna (deskonpiantzia) agertzen dautsolako, ta azkenez kaltegarria da gizonentzat, girña zitalen menpian ipinten dabelako.

Egin biar doguna da ba, gauza gustien gañetik Jaungoikua'ren agintza ta bere zuzendasunaren billa-ibilli, au da: bere

naya egin, bere agindu deunak eta Elexaren agintzak zintzo-zintzo beteta; ta beste gustiak gañez emongo dauskuz. Jaungoikua'ren abintza da; ta Jaungoikua'k itzik eztau jaten.

GABIREL.

Doibatz - Egutegija

IGANDIAK: 1'gn. ta 8'gaŕenian.

Igande gustijetan kistaŕ orok jaupa osua entzun - biaŕ dogu ta otsein lanik ez dagikegu.

EGUN IXENDABAK: 6'gn. Iīaren lenengo barikuba.

Iīaren lenengo bederatzi bariku jaŕaīubetan, biaŕ dan eraz, Jaunaŕtza ba'dagixu—Josu Kisto'k esan eban—donokija zeuria dozu.

8'gn. Ama Neskutza'ren Jayotza.

12'gn. Miren Ixen-Edeŕa.

13'gn. Goteundaŕ Toma Zorunduna, Gazteiz'taŕa, Zumaŕaga Abixenduna, lekaidia ta ziñopia.

14'gn. Gurutz - Deuna gorakundia.

Kistar - Ikasti atzalbena

Jainko - Legeko laugarren agindua

III

Erriko aldun eta menbekoen egin biarrak

—*¿Giza batzarrak aldun* (agintari) *biarrik ete dau?*

Gizadian biar biarrekoak dira aldunak. Erria sendi batza da. Sendian gurasoak dira buru; gurasoei dagokioe seme-alaben biar izenak sorotzi (lagundu), ta bakotxari bere egikizuna betetzen laguntzeko arduria. Gurazoak sendian lez, aldunak errian dira. Erritarrak zuzendu, zaindu, aldeztu ta Jainkoa'k gizon bakotxari lez, erriai aginduko egikizunak betetzen laguntzeko, nai-ta-ezkoak dira aldunak.

Gizadia gorputz eduzkoa da. Gorputz atal bakotxak bere egikizuna dau, baña atal gustiak buruaren menbian dagoz. Gizadian be, gizon bakoitzak, sendi bakoitzak bere egikizuna dau; baña atal gustiok aldunen ardurapian dagoz.

Arri-pilloa ez da naiko etxia iragiteko; arri bakoitza bere tokian ipinteko zuzentzallia biar da. Gizadian be atal bakoitza bere tokian ipintzeko zuzentzalliak biar dira.

Aldun bage, gizadiak ezin iraun lei; indartsuenak, ausardienak, gaiztoenak nagosi izango litzakez. Gizadiak eralduta egonik, ainbeste guda, gorroto, okerkeri ba'dakusgu ¿nok eutsin giza girnatsuari zuzentzallerik ez dazaula? Orduantxe bai antxiñako esakun gorrotogarri au genekuskela: *Homo homini lupus.* GIZONA GIZONARI OTSO.

Jainkoa'k gaudian (universo), ta, batez be, abere artian euren zuzentzalliak ipiñi ditu, guri zelan batzartu biar garan erakusteko: aberiak, egastiak, arrañak euren zuzentzalliak dabez.

—*¿Nundik sortzen da ala* (autoridadia)?

—Jainkoa'gandik dator al oro. *Ez da alik Jainkoa'gandik baño, ta dagozanak Jainkoa'k ipiñiak dira.* (ERROMA. XIII - 1). *Nirez,* diño Jauna'k, *aldun dira erregiak, eta legegiñak zuzena agintzen dabe.* (ECCLI. VIII-15). *Ez zendun Ni'tzaz alik izango, Goitik emon ez-palitzatzu,* iñotson Jesu-Kisto'k Pilatus'i.

Gizonari Jainkoa'gandik datorkio batzartuta bizitzeko lera (inklinaziñoa). Giza batzarrian nai-ta ezkoak dira aldunak. Beraz gizabatzarra lez, aldunak be Jainkoa'gandik sortzen dira, gizadia nai daunak, gizadia iraun erazteko biar dana naidaulako.

¿Zer egiten dute baño belgundariak? Sartzen dira etxietara, ta diru pixkat gurasoei emanaz, artzen dute kalean il-beara zan umea, eramaten dute beren etxera ta an kistar legea erakusten diotela azten dute. Orela asko kistartu litezke, baña beti ere dirua bear da, asko oi-dituzu galtzori oretan diran umeak-eta.

Amerika'n ostera saritan ikusi oi dira, Kistoren legea ezagutzeke, adimenaren argiaz bakarik zuzen bizi diranak. Oriei bada eztago erakutsi besterik, zer ta nolakoa dan gure uzkurtza, ta bereala uguzten dituzte.

¿Ikusten dezute zenbat on dan (toki) ludi guzian eta nola laguntzen dion Jaungoikoa'k gizonari onerako? ¡Negargaria da gero ainbeste naimen (borondate) oneko gaizkatu litezkenak, gure uzkurtz-egien beri ez dutelako ez gaizkatzea! Lagunduko al diegu guziok geren otoitzez eta diruz. Otoitzak Jauna'ren erai bigunak erukiz joko ditu: diruak belgundariei bere lan onean aureratzeko bidea egingo die. Badezu bada zer egin, kistar maitea.

A. M. D. G.

Belgundaria.

Parixetarra ta Zergalaria

Gizon eretxia ta biotz arrua
otoi egitera elexara dua.
Jauna'ren aurrian
elexa - erdian
zutunik, begira
itz iguingarriok biltzen donokira:

«Eskarrik asko, ene Jaungoikua,
enazalako bestiak lakua:
enaz ba, beste lez bidegabia,
ez lapurra ta ezkontzauslia,
Astian birritan baru egiten dot,
oron amarrena zintzo ordaintzen dot,
enaz ni beste lez obendaria
dan lez or daguan zergalaria».

Otoi au eginda
gizon arrua
elexatik alde
egiten dua,
biotzez diñola
pozez beterik:
«Ni bezin on danik
etxaok besterik».

Bazter baten dago biotz-apalduna
obenaz iraindu dabelako Jauna,
begiak jasoten
eztala asartuten:
bularra joten dau,
gustiz garbatuta otoi egiten dau:

«Obendun naz ni, Jauna bai-dakit:
baña, Jaun On ori, erruki zakit».

Otoi au eginda,
gizon apala
biotza garbayaz
samin dabela,
alde ta oldozten
doya itunik:
«Ludian ni bezin
ez da gaiztorik».

Apalen otoya lurrun gozo lez,
Jauna'k donokian artu dau pozez,
poz - pozik apala
geratuten dala,
arrua itun da,
Jauna'ren aotik itz oneik entzunda:

«Entzun dot apalen eskari sutsua
beretzat bakarrik naz errukitsua:
eskar - errukia
eta donokia
eztira arroentzat,
iguingarri da ba, arrua Niretzat».

GABIREL.

PARIXETARRA
TA ZERGALARIA J.Z. – 1918-105-136-137

Gizon eretxi eta biotz arroa
otoi egitera elexara doa;
Yaunaren aurrean
elexa erdian,
begira zutunik
Yaunari otoitzat zuzentzen itz oneik:
«Ene Yaungoikoa, eskerrik asko
besteak lakoa ez nazalako,
ez naz ba, beste lez bidegabea,
ez lapurra eta eskontzauslea;
astean birritan barau egiten dot,
oron amarrena zintzoro ordaintzen dot
ez naz ba, beste lez obendaria,
dan lez or dagoan zergalaria».

Otoi au egiñik
gizon arroa,
elexatik aide
egiten doa,
beretzat diñola
pozez beterik:
«Ni bezin on danik
etxaok besterik».

Bazter baten dager biotz apalduna
obenez iraundu dabelako Yauna,
begiak yasoten
eztala asartuten,
bularra yoten dau
gustiz garbaturik otoi egiten dau:
«Obenduna naz ni, Yaunoi, baidakit
baña, biotz miñaz erruki daurkit».

Otoi au egiñik
gizon apala
biotza garbayaz
samin dabela,
aide ta oldozten
diño lotsaurik:
«Ludian ni bezin
ezta gaiztorik».

Apalan otoya lurrun gozo lez
Yaunak donokian
entzun dau pozez;
poz-pozik apala geratuten dala
arroa itun da
Yaunaren aotik itz oneik entzunda:
«Entzun dot apalan eskari sutsua:
beratzaz bakarrik naz errukitsua;
eskar, errukia
eta donokia,
eztira arroentzat,
iguingarri da ba, arroa Niretzat».

Jaungoiko - Zale

VII' urtia
Amabosterokua

Zornotza 1918'g. Trailla 15.n

106'g zenbakija
Arpidea laurleko bi

Goteun-etorkunde osteko amaseigarren igandia

GOIZPARKIA.

ALDI ATAN: Jesus parixetarren nagusitariko baten etxe-barru larunbatez ogia jateko sartu zala, arek zelatuten eben. Eta ona gizon urmindun bat eurrian eguan. Eta Jesus'ek lege-jakitun eta parixetarrai erantzuten esan eutsen: ¿Larunbatez osatzia zillegi (licito) ete da? Arek baña ixildu ziran. Berak baña oratu ta osatu ta bialdu eban. Eta arei erantzuten esan eutsen: ¿zeutariko baten baten astua ala idia oxiñera jausten ba'da, larunbatez berialaxe ez ete-dau atarako? Eta ezin eutsen erantzun itz onei.

—Baita jateituai (jatera deituai) irudiki au esan eutsen, uarturik lenengo aulkiak autesten ebezala, esaten: Ezteguetara deituko zaituenian, etzaite lenengo aulkian yesarri; biar ba, zeu baño nagusiagua jaunak deitu ba'leu, zeu ta berau deitu zabezana etorrita esan eztaitzun: Aizkide aulki au beste oni itxi eyozu: ta orduan lotsatuta azken aulkiraño jatsiko ziñake. Baña jateituko zaituenian, zoaz azken-aulkian yesarri zaitez, deitu zaituna etorri daitenian esan daitzun: Aizkide, gorago igokezu, orduan, aintza izango dozu maikidien artian: ba, burua goresten daun oro apalduko da: ta burua apaltzen dauna goretsiko da. (LUK. XIV. I-II).

* * *

Kistar maite: Jesu-Kisto'n ontasun eta jakituria ta parixetarren arrokeri ta maltzurkeria beti lez gaurko goizparkian be, aurrez-aurre aurkitzen dira. Parixetarrak zitalkeriz Jesu - Kisto itz ta egiñenetan akatzen bat aurkitu gurarik, eta Jesu-Kisto, orban bako eguzki bizia lez, argia ta ekandun zerutarrak euren biotzetan zabaldu gurarik. Larunbata zan parixetar batek Jesus jateitu eban eguna. Bertara eroan eben parixetarrak urmindun (hidropico) bat, euren barruan iñoela: osatzen ez padau, berak irakasten daben jaun-maitasuna guzurrezkoa dala esango dogu, gexo onegaz errukitu eztalako: ta errukituta osatzen ba dau, larunbatez lan egin daulako, legea azpiratu daula esango dogu. Baña Jesus'ek euren asmu gaiztuak ezagutzen ebazala, itaun bategaz gustiak ezereztu ebazan. Gexoari ezer egin baño len parixetarrai itandu eutsen: ¿larunbatez osatzia zillegi (legezkoa) ete da? Gustiak ixillik egozan eta ezeben erantzun. Orduan Jesus'ek ikutu ta osatu eban eta barriro parixetarrai esan eutsen: ¿Zuetariko bati astua edo idia oxiñera jausiko ba'litzakio, ez ete leuke atarako berialaxe, larunbata izan arren? Ta parixetarrak ezekien zer erantzun. Arritzekua da, ene irakurle, judatarren arrokeri ta maltzurkeria. Baña gogaldu ezkero arrokeriz itsututa egozala ta Jesus'ek begien aurrian euren uts-egitiak ipinten eutsezala, ikusten da gorroto onen sustarra. Ta alan da be, arritzekua ba'da, ¿ezta askozaz arrigarriago kistarren artian gauza berberok ikustia? Begiratu daigun ingurura, geure barrua be aztertu daigun ta ¿arrokeriz edo iñartziz (inbidiz) ez doguz ikusten kistar ontzat dagozan asko,

euren begiko eztan lagun-urkuagan akatzen bat ikusten dabenian poztu lez egiten dirala? ¿Geu be, biar ba ez ete gara iñoz poztu? Lagun urkuaren egiñen onak ikusita, zitalkeriz, ez ete dogu esan azal onak baño eztirala? Baten bat apal agertzen bada, donizun edo hipocrita dala entzungo dogu. Ukar (limosna) asko egiten ba'dau arrokeriz egiten dituala: elexatarra, ona ta zintzoa ba'da, utsunen baten billa gabiltz donizuntzat etsiteko. Ta au ete da benetako kistarrak egin biar dabe? ¿Alan da be, ezta egunero dakusgun[illegible], zoritxarrez, kistarren artian be, [illegible]ketarrak jarrraitzalle asko daukezalako. Jesu-Kisto'n benetako jarraitzalliak baña, apala dalako, begiak izten dituz lagun urkuaren akatzak ikusteko, ta eztauz aintzat artuko beragaz errukitu, ta otoi egiteko izan ezin. Auxe da ba egin biar doguna.

GABIREL.

Galbidietan ez dabillena erraz ondo bizi da. Galbidietan bere guraz sartzen dana, erraz jausiko da.

Doibatz - Egutegija

IGANDIAK: 15'gn. 22'gn. ta 29 gaŕenian.

Igande gustijetan kistaŕ orok jaupa osua entzun-biaŕ dogu ta otsein lanik ez dagikegu.

EGUN IXENDABAK: 15'gn. Ama Neskutzaren neke aintzatsubak.

17'gn. Asis'taŕ Pantzeska deunaren zaurijak - irazkundia.

21'gn. Deun-Matai, Belduba ta Goizpaŕkilia, jai - erditzat zaintzen doguna.

24'gn Eskaŕdun Ama Neskutza.

29'gn. Deun-Mikel Gongotzona.

20'gn. *Buldadunentzat be aragirik ez jateko eguna.* (Barau eguna ez). Aragirik jan ezin dan arren, koipiaz egosi, eŕe, txiŕtxikaturiko beste edozer jan dagikegu. Aragi-saldarik ezin artu leike baña.

Arantzatsu'ko Ama Neskutza

GIPUZKUA'k Arantzatsu'ko Ama Neskutza bere Zaintzaletzat autu daula, XV'gn. Benedita Doipurubak onetsita, irakuŕliak bai dakije.

Izpaŕ ori Urtaŕila - 23'an jakin genduanian, asko poztu gintzan, orain baña geure anai gipuzkuaŕak Arantzatsu'ko Ama'ren opaz egin dabezan jai andijak jakiñik, pozagotu gara, bijotz-bijotzez diñogu:

¡Gora Arantzatsu! ¡Gora Gipuzkua!

°o°

Oñaztaŕak eta Ganboataŕak alkaŕi aseŕe goŕija eutsien, alkaŕi guda gogoŕa egiten eutsien, anai - matakun - oŕdez aseŕia zan bijotzen jaube: olan zala, Eŕuki - Ama 1469'gn. urtian Baltzategi'taŕ Eŕodirga aŕtzaintxuari Aloña mendijan Arantzatsu eritxonan agertu yakon. Eskaŕak Agerkunde oŕi, euzkotaŕ artian ixan zan aseŕia ibitu, ayenatu zan, eguzki-auŕian iluna ayenatuten dan lez.

Agerkundia ixan zan toki arantzatsuban; gauŕ dakuskun txadon edeŕa jagiko zala berton nok ziñeztuko eban? Aloña aitz goŕijetan txauneskiñaren eresi eztitsubak durundi - egingo ebela nok usteixango eban?.. egiz, bai, euzkotaŕen matakuna Miren'entzat atxak baño gogoŕago da; egiz, bai, Jaun - Goikua'ren Ama'k bere aulkija geure mendi - gañetan ezaŕi dau; egiz, bai, donokitaŕak geure mendijak mate-dabez, ta geuk matakuna dagertsegu, gurutzak eta txadonak euretan jagirik.

°o°

Arantza - artian agertu ziñan Andera edeŕ ori, zeure begi eŕukitsubok geuganatu, zauritu gabezan oben - arantzak geure bijotzetik atarau, gaitz - kaltez ta on - aldez dijaŕdugunok aldeztu.

JAUNGOIKO-ZALE'kuok zeure auŕian auzpazturik onetsi gagixuzala aŕen daskatzugu.

gizabatza aldezko arazoak. Urdaillak beste gorputz ataletatik artzen daun janaria, gorputz osoaren aldez zabaltzen daun lez, aldunak be, menbekoen eskubetatik artzen dituen ogasunak, gizadi aldez erabilli oi ditue; bide barriak, ikastolak, eri - etxiak eta abar irasi, ta gizabatzar ogasun mueta gustiei bultza egiteko,

—*¿Aldun aldez otoi egin biar ete dogu?*

—Aldun aldez otoi egin biar dogu, Jainkoa'k argia, zuzentza, sendotasuna, zurtasuna... emon dayoen. Emaitz oro Jainkoa'gandik dator. Aldun onak be bai. Biarkun au gogerazten dautso Paul deunak Timoteo bere ikasliari. (I. Cap. II.-1). *Eskariak, otoyak, arrentzak, eskarrak gizon gustioen aldez egiteko agintzen dautzut; aldunen eta goyan dagozanen aldez, gentzatsu ta naroro bizi gaitezen garbi ta Jauntzale.*

Norberak autetsitako aldunak bekaitzez dakuzan erria, galdua dago, edo aukeratzeko kemenik izan ez daulako, edo bere zorun bidia ez dakiyalako.

Gurutz.

Kistar-eraskunetatik onena, egunoro mesia entzun eta bertan Jaunartzia da.

Arantzatsu'ko Lilia

Lora gustien edertasunak
igesten dabe bertatik,
eguzkiagaz ixarrak letxe,
lili ederren ondotik.
Lilia da ba, loren artian
eder, garbi, txukunena,
bere jantzi ta usain ondoan
¿zer da lorarik onena?

Gorantz begira lerden dagola
ezpanak zabal-zabalik
abots leun-leunez oroi diñosku
emen eztala zorunik.
Zerua dala zorun tokia
ta bertarako bidia,
geure gogoa zuri ta garbi
bera dan letxe zaintzia.

Lili eder bat agertu zan bein
Euzko-errien erdian,
anayak alkar galdu gurarik
gogor ebiltzan aldian.
Arantzartian liliak legez
zuri, eder ta garbia,
Aloña mendin agertzen zala
Ama gozo Orbanbagia.

—¿Arantzan Zu? diño artzañak
—Arantzan ene semia.
—¿Zer dala baña zagoz arantzan
Jauna'ren Ama maitia?
—Ene semetxu ez dakizu ba,
zeuentzat Ama izanik,
ezin-leikela neure biotzak
autu jarleku obarik?

Atsekabezko arantza-artian
semetxuak ikusita,
¿Zelan egon lei Ama'n biotza
arantzatik aldenduta?

. . . . . .
. . . . . .
. . . . . .
. . . . . .

Ordutik ona lili eder au
Aloña mendi gañian
bere kutunak zaintzeko dago
Euzko-errien erdian,
Ama'ren biotz maitekorragaz
diñola abots bigunaz:
¿Arantzartian ez aztu Nigaz,
ez aztu Goiko zorunaz».

GABIREL.

ARANTZATSU´KO LILIA-J.Z.1918-106-144-145

Lora gustien edertasunak
igesten dabe bertatik,
eguzki aitzin izarrak legez;
lili ederren ondotik.
Lilia da ba, loren artean
eder, garbi, txukunena,
bere yantzi ta usain ondoan,
zer da lorarik onena?

Goirantz begira lerden dagola,
espanak zabal-zabalik;
ikusten daben oroi diñotse
emen eztala zorunik,
Zerua dala zoruntegia
ta bertarako bidea,
gure biotza zuri ta garbi
bera dan legez zaintzea.

Lili eder bat agertu zan bein
Eusko-errien erdian,
anayak alkar galdu gurarik
gogor ebiltzen aldian,
arantzartean lilia legez
zuri, eder ta garbia,
Aloña mendin agertzen zala
Ama samur Orbangea.

Arantzan Zu be? diho artzañak
—Arantzan ene semea.
—Zer dala baña zagoz arantzan
Yaunaren Ama maitea?
—Ene semetxo ez dakizu ba,
Ama zeuentzat izanik
neure biotzak ezin leikela
autu yarleku obarik?

Atsekabezko arantzartean
semetxoak ikusita,
Amak biotza zelan euki lei
arantzatik aldenduta?

* * *

Arrezkerotik lili eder au
Aloña mendi gañean
bere kutunak zaintzeko dago
Eusko-errien erdian;
Amaren biotz maitekorragaz

esaten abots samurraz:
Arantzartean ez aztu Nigaz
ez aztu goiko zorunaz.

Jaungoiko - Zale

VII' urtia
Amabosterokua

Zornotza 1918'g. Urrilla 1.n

107'g zenbakija
Arpidea laurleko bi

Goteun-etorkunde osteko amaseigarren igandia

GOIZPARKIA.

ALDI ATAN: Bakaltsein (errege-otsein) bat zan: beronen semia gexo zan Kaparnaun'en. Au ba (jauntxua), Jesus Juderri'tik Galileara eldu zala entzunda, beragana juan zan, eta jasteko ta semia sendatzeko eskatzen eutson: il-agiñian eguan ba. Jesus'ek ba, esan eutson: Alatzak (mirariak) eta arrigarriak ezpadozuez ikusten eztozue ziñesten. Bakaltseiñak diñotso: Jauna, semia il orduko jatsi zaitez arren. Jesus'ek diñotso: zoaz zure semia sendo dago. Gizon arek Jesus'ek esan eutson itza ziñestu eban eta ba'joyan. Eta jasten zala morroyak bidera urten yakozan, eta iragarri eutsoen esaten bere semia sendo zala. Eta itauntzen eutsen sendotu zan orduatzaz. Eta esan eutsoen: Atzo saspiretan itxi eutson beroenak. Gogoratu zan, axe bera zala ordua Jesus'ek esan eutsona: Zeure semia sendo dago: eta berak eta sendi (etxe) gustiak ziñestu eben. «(JOANN. IV. 46-53)

* * *

Kistar maite: Gaurko Goizparkiak, beste gauza askon artian, egi onurakorrau irakasten dausku: bizitza onetako atsekabiak eta samintasunak guztiz onurakorrak yakuzala. Bizitza onetako atsegin eta zorionez inguratuta gagozanian Jainkua'gaz erraz aztuten gara. Atsekabe bidia barrez, biderik zuzenen laburren eta indartsuena da, geure biotza Jainkua'ganatzeko. Atsekabiak apal eta biotz samurdun egiten gaitu. Jauntxua, bere sendia atsekabepian jausi ezpalitz, biar ba, Jesus gaz, gogoratuko etzana, Jauna'ren aurrian apal-apalik dakusgu, semientzako osasun eske. Atsekabiak Jainkua'ganako uste ta itxaropena geure biotzian ugaritzen dau, jauntxuen biotzian ugaritu eban lez. Atsekabiak geure biotzeko ugarra garbitzen dau, suak urria ta limiak burdin-erdoya garbitzen dabezan lez. Atsekabiak geure gogoan girnak sortzen dabezan illuntasunak argitzen dauz, ta geure egiñen onak obatu, ugaritu, ta irabaziak geitzen dauz. Ondo ezagutuko ba'geunkez atsekabiaren onurak; ziñeste biziaz gogaldu ta ausnartuko ba-geunke geure lenengo gurasoen obenak itxi euskuzan zauriak osatzeko Jainkuak bialtzen dauskun osagarria dala, entzungo ete geunke ain sarritan kistar usain bako itz au: ¿Zer egin dot nik ainbeste neke ta atsekabe igarotzeko? ¿Zer? Eztakizu Paul deunak irakasten dabenez, «Jainkuak maite dabena zigortzen daula? (HEBR, XII, 16) ¿Amiltokira jausten doyan semetxuari amak, emongo dautson miñari begiratu barik, gogor eusten dautsonian, ez dakizu maitetasunez min emoten dautsola? ¿Gurasoak aiztoa (cuchillo) eskuetatik semiari kentzen dautsonian ta zigortzen dabenian, ez ete dau maite dabelako zigortzen? Jainkuak ba, geure Aita dalarik, maitetasunez izan ezik bialdu ete leiskigu atsekaberik? Ez ba, kistar maite atsekabezko gurutzetan josita zagozanian larregi artegatu, zeure zauriak andiago ta ugariagotu baño eztozuz egingo-ta: gogo-

ratu donoki bidia gurutze ta atsekabezko bidia dala ta eztagola beste biderik, Kenpis'ek diñon lez, ba: «Atsekabezko bidia baño gizona gaizkatzeko bide obarik eta onurakorragorik izan ba'litz Kisto'k itzez ta egitez irakatsiko euskun» (Imit. Chisti. Lib. II,-XII)

GABIREL.

Doibatz - Egutegija

IGANDIAK: 6'gn. ta 13'garenian.

Igande gustijetan Kistar orok jaupa osua entzun-biar dogu ta otsein-lanik ez dagikegu.

EGUN IXENDABAK: 2'n Gotzon zaintzaliak

4'n. Ilaren lenengo barikuba. Asistar deun Pantzeska, Iraslia.

Ilaren lenengo bederatzi bariku jaralubetan, biar dan eraz, Jaunartza ba'dagixu—Josu Kisto'k esan eban—donokija zeuria dozu.

7'n. Agurtzadun Ama-Neskutza (Erosarijokua)

8'n. Begoña'ko Ama neskutza, Bizkai-zaña.

12'n. Age'ko Ama Neskutza (Zaragoza'n).

Kistar - Ikasti atzalbena

Jainko - Legeko laugarren agindua

Aldunen egin biarrak

—*¿Zer biar dabe aldunak lenengo?*

—Aldunak aurrenen biar dabe, menbekoei agindu ta aunen ogasunak zaintzeko *gai* izan. Ez da edonor aldun izateko jayo. Aldun-arazuak eurenez astunak dira, ta zietz betetzeko Jainkoa'ren deya biar da. Gai izan ez - ta aldun arazoetan sartzen dana, itxaz-gaiz tautik jakin ez-ta, itzasontziya erabili ta zuzendu nai dauna lez da. Al daben baño zama astunagoa lepaltzen dabe, ta goyan imiñitako illinti itoak lez, argi-izpirik ez dagiye.

Onetarikoetzaz diño Jesukisto'k: gabaz eskortan sartutako lapurrak dirala.

Gizon andiyak beti bildur izan dira aldun arazuak euren gain artzeko.

Mois'ek ez eban bere erriko alduntza artu nai izan, Jainkoa'k agindu arteraño, ta orduan be, bera gizon aula zala ta, nekez ta bildurrez. Gergori Nagosiya basuan eskutau zan, Doipuru (Aita Santu) egiteko ebiltzela yakin ebanian. Anbortzi ta Augustin deunak al eben gustiya egin eben Gotzaintza (Obispaua) ez artzeko. Arrigarriak dira Loyola'tar Eneko deunak egin ebazan alegiñak, bere anayak, berak irasitako Josu-Launbatzaren buru aukeratu ebenian, nagositzau beragandik yaurtitzeko. Ta ori gizon gurgarri onek, iñor izatekotan, benetan gai zirala aldun egikizunak betetzeko.

—*¿Zeintzuk dira aldun arazuak?*

—Aldun-arazuak dira menbekoak eta menbekoen ogasunak zaindu, aldeztu, ugaritu. Ta zuzenez. Aldun eta erritar artian itunben (kontrato) ixilla dago. Erritarrak aldunak aukeratu ta buru ipinten dabez, euren ogasunak zaintzekotan.

Beraz, edo gai ez diralako edo biar dan aña arduratzen ez diralako, aldunen erruz erriko ogasunak galtzen ba'dira, aldunak zorpian dagoz. Ez dira erriyak aldunentzat, aldunak erriyentzat baño.

Berautzaz diño Idazti Deunak (Liburu Santuak) *erruki bage - epaituak izango dirala aldunak,* eta *altsuak sendoro zigortuko dirala.* (Sap. 6).

—*¿Oitura onak zaindu biarra ete dabe aldunak?*

—Menbekoen ogasunak ez ezen oitura onak be zaindu biar dabez aldunak. Erriyen eutsigaya oitura onak dira.

Onetarako: *A).* Aldun agintzak Jain-

Asis'ko "Eroa"

Soñeko urdiña lokarri latzagaz
lotuta daukon lez, txirotasunagaz,
maitasun lokarriz,
zorion egarriz,
dabela biotza,
laztandu gurarik dago eriotza.

Bera jayotzian gustiz itxututa,
txindi-zalekeriz biotzak lotuta,
eukien gizonak.
orain dira onak,
ba, ilten dagonian,
Txiro-maitasuna dauke biotzian.

Bera jayotzian anayaz aztuta,
andi-zalekeriz biotz-gogortuta,
egozan gizonak,
orain dira onak:
Ba, ilten dagonian,
anai-maitasuna dauke biotzian.

Bera jayotzian Jauna'gaz aztuta,
ludi-zalekeriz biotza izoztuta,
eukien gizonak,
orain dira onak,
ba, ilten dagonian,
Jainko-maitasuna dauke biotzian.

Asis'tar Pantzezka, Kisto'n irudia,
Gurutz-maitasuna gartsu ta bizia,
zabaltzen nekauta
eta indargetuta,
dago azkenetan,
baña biotza dau maitasun garretan.

Asis'tar Erkaba'k Alverna mendian
esku ta oñetan eta biotzian,
benazko zauriak,
Kisto'n maitasunak,
einda eukozanak,
zabal-zabal daukez maitasun ezpanak

«Zaindu biotzian Jaun-maitetasuna,
anaya maitetu ta txirotasuna,
diñotzu «Eruak»
«Asis'ko Txiroak»
dagola azkenetan
biotza oldarka maitasun garretan»

GABIREL.

Txirotasuna *pobreza*. Txindia *dirua*. Ludia *mundua*. Eroa - soroa. Oldarka - *a borbotones*. Eŕkaba-*Patriarka*.

Pantzeska deunaren azkeneko urtiak eta erijotzu

ANTE OBITUM MORTUUS, POST OBITUM VIVUS. *Il baño len īla, ildā gero bixija*. Idazkun au IX'gaŕen Geŕgori Doipurubak Pantzeska deuna, geure Abaren īlobijan ipiñi eban.

Geure Aba il baño urte bi lenago, Josu Kisto'k Bere bost zaurijak iratzi eutsozan. Ordurarte Pantzeska deunaren bixitza erijotz gogoŕa baño ez zan ixan. Bere esku ta oñak untzez josirik ebazan. Sayetza be zauriīurik eban eta bost zauratzetatik beti odola erijon, Ori bakaŕik ez. Urdaīeko, zanetako ta gibeleko oñazé ta min andijak ixaten ebazan; min geyen begijetakua eban, negaŕen-negaŕez eŕeta ebazan.

Alabaña gustijak gelduten ziran, ainbeste oñaze ixan-da, alai ikusten ebelako. Bein batek ītandu eutson ¿zegatīk ain alai-zan? eta erantzun eutson. Nere gatxak eta nekiak, nere azken-aldija urbil dala adirazten daustelako.

Soña (gorputza) nekien - nekez auldu zan. Azuŕ eta azal uŕsa irudijan. Oñen gañean nekez egon al - eban zauratzak uŕatzen yakozan eta. Zanetako odola zauratz - ziaŕ beti galtzen eban, bijotzan baña Josu - matakuna bixijago egiten ya-

Jaungoiko - Zale

VII' urtia
Amabosterokua

Zornotza 1918'g. Urrilla 15.n

108'g zenbakija
Arpidea laurleko bi

Goteun-etorkunde osteko ogetabigarren igandia

GOIZPARKIA.

ALDI ATAN: Parixetarrak juan eta itundu ziran Jesus itzaz ogendaltzeko edo engañatzeko.

Ta euren ikaslariak Herodestarrakaz batera bialdu entsoezan esaten: Irakasle, egitia zarala-ta Jaungoiko bidiak egiaz irakasten dozuzala-ta baten-baten lotsarren egiten eztozula, gizonen lotsaz arduratzen etzaralako, bai-dakigu.

Esan eiguzu ba, arren, zeure eretxia: ¿Kaisar'ari zerga-txindia (contribuziñoa) emon biar dautsogu ala ez?

Baña Jesus'ek euren asmu gaiztoa ezagututa, esan eban: Azal-guzurrok, ¿zegaitik zirikatzen nozue?

Zerga-txindia (dirua) erakutsi egidazue. Ta arek amarrekua erakutsi eutsoen.

Eta Jesus'ek esan eutsen: ¿Norena da irudi ta buru itza?

Diñotsoe: Kaisar'enak. Orduan esan eutsen: — Kaisar'ari Kaisar'enak biurtu egiozuez, ta Jainkua'ri Jainkua'renak». (MATT. XXII, 15-21).

* * *

Kistar maite: Benetako maitetasuna, itz ta egiñetan agertu barik biotz barruan gordeta eukitia zalla dan lez, biotz barruko beaztun eta gorrotua azaleratzeke gordetia gauza zalla da. Auxe gertatzen yaken parixetarrai Jesu-Kisto'n kaltezko gorroto biziaz, Goizparki onetan ikusi geinken lez. Judatarrak, euren jabetasun eta azkatasuna galduta, Roma'tarren menpian egozan eta Kaisar'ari zerga ordaindu biar izaten eutzen. Zerga-ordaintze au zillegi (licito) zan ala ez ebatsi eziñik ibilli ba'ziran lez, labankeriz beterik, Jesus'gana juan ziran bere erabagia entzuteko. Baña euren asmua auxe zan: Jesus'ek Kaisar'ari zerga ordaindu biar yakola ba-diñosku-inoenbere erriaren azkatasunaren arerioa dala esango dogu; ta eztala ordaindu biar ba'diñosku, Kaisar'en etsaitzat salatuko dogu. Baña Jesus'ek euren biotz barrengo asmu gaiztoa aituki, ziz (dirua) bat eskatuta itandu eutsen: ¿Irudi au norena da? —Kaisar'ena erantzun eutsoen. —Kaisar'ari Kaisar'enak biurtu egiozuez ba, ta Jainkua'ri Jainkua'renak. Erantzun onegaz arritu ta aldendu ziran.

Geure gogoentzat onurakorra yakuna ikasi biar dogu erantzun onetan. Kisto'k diñosku Jainkua'ri Jainkua'renak biurtzeko. Geure buruari itandu dayogun: ¿norena zara? Ta biotzak erantzungo dauzku Jainkua geure Jaun eta Jabe bakarra dala. Itandu barriro. ¿noren irudira egiña zara? ta Jainkua'k erantzuten dautzu« bere antz eta irudira egiña zarala» (GEN. I-26) ¿Nori ba biurtu biarko dautsogu geure izate gustia Jainkua'ri izan ezik? ¿Norenak dira ba, geure adimen, naimen, ta oroimen (memoria), norenak geure gorputzeko asmen edo sentzunak, Jainkua'renak izan ezik? Ta iturri baten jabe dana, bertatik sortzen dan uraren jabe ba'da; geu gorputz ta gogo Jainkua'renak garalarik: ¿norenak, ta norentzat izango dira geure izatetik, iturri batetik lez, sortzen diran egiñen-

ak? Ez ba, Jainkua'ri beria dana ukatu: lapurretarik kaltegarriena guretzat auxe izango litzake-ta; eskiñi berari egunoro, Bere naya lurrian gagozan artian betetako, geure biotz, izate, ta egiñen gustiak, ta aldendu geure biotza Bere maitasuna galerazten dauskuen gauza gustietatik. Auxe da, Jainkua biotz-biotzez maitetuta, Jainkua'ri Jainkua'renak diran gauza gustiak biurtzeko bide bakarra.

GABIREL.

Doibatz - Egutegija

IGANDIAK: 20'gn. ta 27'garenian.

Igande gustijetan kistar orok jaupa osua entzun - biar dogu ta otsein lanik ez dagikegu.

EGUN IXENDABAK: 15'gn. Jesus'en Terese deuna.

18'gn. Luka deuna, belduba ta Goizpargilea.

28'gn. Simon eta Juda deunak, beldubak. Jai erditzat artzen doguna.

Goizpargiliak (Ebanjelistak) lau ixan dira: Deun Matai, Deun Marka, Deun Luka ta Deun Jon.

Kistar - Ikasti atzalbena

Jainko - Legeko boskarren agindua

"Ez dozu iñor erailgo"

Laugarren agintzan, giza-batzan batsuk bestietzazko egin biarrak ebatsita dagoz. Gizadi jauregiya iragita, atal bakotxak bere egikizun, eskubide ta biarkunak ondo neurtuta.

Boskarren agindu onetan, gustiyok alkarrekin *gentzaro*, *Jainkoa'ren seme lez*, bizitzeko, bai geure bizitza, bai geidiarena

Vanitas...

Eriotz baltza azurrutz - irudiz
makatz zorrotzaz eskuan
jayotz - ezkero beti noz joko
daukagu geure albuan.
Bakaldun arro nai otsein izan
jakinge nai jakintsua,
gazte nai zarra erruki barik
beste ludira darua.

Irribarretxu bildurgarriaz
egunero diñoskula:
Ludi ontako gure bizitza
eriotz bizia dala.
Geriza lez ba igaroten da,
lurruna lez ezereztu,
tximistiaren bizkortasunaz
azken itunera eldu.

Galde - galdetu ordu aretan:
¿Nun dago, nun, Bakalduna?
¿Nora yoanda bere menpian
danak euki nai zituna?
¿Jakituriaz zer gertatu da?
¿Nun dira, nun, aberatsak?
¿Nun dira euren arrokeria,
edertasun ta jolasak?

¿Ikusten dozu lurrun - ontzia
itxaso - ziar arinka,
azkar doyala elbururantza
lorratzik iñun izteka?

VANITAS – J.Z. 1918-108-159-160

Eriotza baltza azurrutz irudiz
makatz zorrotzaz eskuan,
yayotzezkero beti noz yoko
daukagu geure alboan.
Bakaldun arro naiz otsein izan,
yakinge naiz yakintsua,
gaste naiz zarra erruki barik
beste ludira daroa.
Irribarretxo bildurgarriaz
egunoro diñoskula:
Ludi ontako gure bizitza
eriotz bizia dala
Geriza legez ba, igaroten da,
lurruna lez ezereztu;
tximistearen bizkortasunaz
azken itunera eldu.

Galde-galdetu ordu aretan;
Non dago non bakalduna?
nora yoan da bere menpean
danak euki nai zituna?
Yakituriaz zer gertatu da?
non dira non aberatzak?
Non dira euren arrokeria,
edertasun ta yolasak?

Ikusten dozu lurrun-ontzia
itxaso zear arinka,
azkar doyala elbuturantza
lorratzik iñon izteka?
Ikusten dozu txori bizkorra
axe-zear igaroten,
bere bidean azterrentxo bat
iñon eztala aurkitzen?

Ikusten dozu azkon zorrotza
yo-mugaraño azkarrik,
zuzen bai zuzen doyala ta iñon
eztaula izten lorratzik?
Bizitza bardin igaro da ba,
geriza legez yolasak,
ez ba yarraitu alper-alperrik
andikiaren urratzak.

Udazkenean ekaitz axeak
zugatz-orri legorrak lez,
eriotz gogor biotzge danak
biurtu dituz «ezerez».

Gogalduizu ba egi sakon au,
euki gogoan yosia:
Ludi ontako gure bizitza
dala eriotz bizia.

¿Ikusten dozu txori bizkorra
aize - ziar igaroten,
bere bidian azterrentxu bat
eztala iñun aurkitzen?

¿Ikusten dozu azkon-zorrotza
jo-mugaraño azkarrik,
zuzen bai zuzen doyala, iñun
eztaula izten lorratzik?
Igaro da ba bardin bizitza,
geriza legez jolasak,
ez ba jarraitu alper-alperrik
andikiaren urratzak.

Udazkenian ekaitz - aizeak
zugatz - ori ta igarrak lez,
eriotz gogor biozge danak
biurtu ditu «ezerez».
Gogalduizu ba, egi sakon au
euki goguan josia:
Ludi ontako gure bizitza
dala eriotz bizia.

GABIREL.

Azurrutz = *esqueleto.* Makatz = *guadaña.* Itun = *triste.* Bakaldun = *rey.* Lorratz = *vestigio, huella.* = Jo-muga = *blanco (el).* Urratz = *paso.*

AŔENTZAK

Beingo baten eŕirik-eŕi zabaldu dan gexo ixugaŕi au dala-ta, zerbait idazteko nengoala, eldu yat eskura BOLETÍN OFICIAL DEL OBISPADO DE VITORIA'ren azkenengo zenbakija, ta bertatixek, neure oldozkunak itxiīa, berak dakaŕen Gotzain-idazkija argiīaltzia erabagi dot.
Bai dakit gure bazkidiak poz-pozik artuko dabela, adionez elduko yakelako uŕengo igandian euren eliztaŕai irakuŕteko. Guk bazkidioi laguntzeaŕen al doguna beti dagikegu. — ARTEZKARIJA.

!Gaitz ixuŕti onek ze sakailtzia egiten daun, ene goterkide maīe - maīiak¡ naiko bigun ixan da be, askorentzat baña gogoŕa bai da; sendi askotan atsekabe ta negaŕa laga dauz: ta egunotan zabalduagotu ta zemakoŕago ikusten dogu.

Ene aīakoŕ bijotz onek negaŕ - egin ta atsegetu da negaŕ ta atsege-diranekin, artega nago ta egun oro saŕiīan Jaungoikuari otoi-egiīen dautsat, Bere eŕuki-eske.

Egunotan neure baŕuan ezpayak ixan dodaz, zeuei gauza tamalgaŕi onetzaz zeredo-zertxu esan biaŕ neutzubela-ta geyago ikaratuko zintzazela-ta esan - ezkero, ta ixilīu nintzan; aldi geyagon baña ezin ixiīik - egon; Jaun - maīakunak bultzauten nau kistaŕ lez gaitz onetzaz zer eritxi biaŕ dogun, ta zein osabide erabili biaŕ-dogun zeuei esaten.

Osasuna ez ludiko bixitz au ez dira gixonaren on-gurena, ezta erija ta erijotza be gixonaren gaitz andijena, geure ixatiari berez yagokozanak dira, ta aldiko bixitz au amaibako bixitzearentzat dan-ezkero, Jaun - Goikuak gexuak, ixuŕijak ta erijotza bidaltzen dauskuz, geukon betikoŕak euren bidez lortu dagikeguzantzat, bai obenak nekaltzen, bai geure atseginkerijak garbitzen, bijotzak luŕetik aldenduta donokiruntz jaso dagikeguzantzat, geyago irabazi, gatxok jasan ta maīez eruaten.

Umetxuak min - dabenian ¡aīa! diadaŕ egiīen daben lez, Jauna'ren irudija dan goguak be, oñazez dagonian eta nekiennekez estu-laŕi-danian, Jauna'ri oyu-egiīen dautso. Aldi atan goguak argi ta garbi irakasten dau, nai-ta len, zorijonaldijan, itxulastuta lez ixan-aŕen. Aldi atan obenak ziatz aztertuten dira ta atsegin guzuŕak ezetsi; egipen txaŕen itxusija ekusten da, ta auŕerantzan obe-ixateko erabagiīen da; bijotz gaŕbaiz Jauna'ri oben - azkeskixuna eskatzen da, ta seme lez Bere eŕukija eskatu, ta onan geure ixatiari berez yagokon gatxa, Jauna'ren on-egiīez, gaitz andijena, gaitz bakaŕa dogun obenetik aldenduteko bide - egiīen yaku ta gu Jauna'gaz batu ta ondu.

Nekaltzen gauzan gaitz au onan etsi biaŕ dozube, ta aulan etsi - ezkero, amen geure egin-biaŕak: Lenengoz obena goŕotau, ainbeste galtze-sorkuna dalako. Ondo dakixube Jauna'k, esku zabalez, gixona gexo barik ta erijotz barik irazan ebala, ta Adam lenengo gixonak oben - eginda, eskaŕez ixan ebazan emokunak galdu ebazala ta obenagaīik ixate utsez geratu zala, Jauna'ren zigoŕ zuzenez; bai dakixube Jaun-Goiko zuzenak lenengo gixona lez, eŕijak be nekaltzen dauzala; kistaŕ-irakaskintza-bidez dakixube Ixaŕel zenbat bidaŕ zematu eban, eta beste eŕi askori euren obenen zigoŕtzat ze ixuŕiīe ta gudate bidaldu eutsezan, baīa neke oŕen zegaīija adirazteko; oŕegaīik ba bakaŕ-bakaŕik gomutarazoko dautzubet, ondo ta egoki-egoki yakulako, Ezekel igaŕliak diñoskuna Ixaŕel'ek Jaunak bidalduriko neke ta oñaziak igaroten ebazanatzaz. «Ataz ezpatea, baŕuanixuŕija ta gosia» zegaīik? «Ixaŕel'en gaiztakerija andi-andija da, luŕa odolez beterik dago ta urija dongakeriz».

Geure obenagaīik gaŕbaīu gaīezan ta ondu, ta gaizkatuko gara.

Bigaŕena Jauna'gana geure bijotzok jaso daiguzan, otoi - egin Bere eŕuki - eske.

Geure Aīta da, atsegekidia, geure onuragaīik zigoŕtauten gauzana, ta azkesteko besuak zabalik. Donoki goi - goyan eta Ikuŕton deun-deunan geure eskarijen zain onesteko.

¿Ez zarie gomutaten Salomon Bakaldunai, Txadon edeŕ-andija iragi ebanian zein abintza pozkaŕija egin eutson? Gabaz ageŕtu yakon, esatsola: «oŕtzia ertziko ba'neu ta euririk ezpalitz jausiko, otijak egoŕiko ba'neuz luŕa sakaildu dagijen, ta ixuŕija neure eŕijagana bidalduko ba'neu, ta ene eŕija apalestu, otoi-egin, neure biīaibiīi ta gaiztakerijatzaz gaŕbaīu - ezkero, donokiīik entzun, obenak-azketsi ta luŕa osatu neuke». Abintza ori zala - ta, eŕijak gustiz ustetsu esaten eban: «Gatxik geuganatuten ba-da, zemai-ezpatarik, ixuŕirik, goserik, etxe (txadon) onetara ta Zeure auŕera elduko gara, geure nekaldijetan oyu-dagiketzugu, ta Zuk entzun eta geu gaizkatu». Geuk be uste oso-osoz eskatu dayogun.

Gaitz au askorena da, otoyak be askorenak ixan biaŕ, gustijen auŕian egin biaŕ dira; jauparijak adoretu dagijezala euren elistaŕak, agintzen doguzan aŕentzak egiīteko.

Batez bere lekaime guŕgaŕijei bijotzez eskatzen dautsegu eŕi-aldez otoi-dagijela. Eurak, bixitz latz-ildu gaŕbiīasun ta otoi bixiz, tximistoŕatzak lez yakuz, Jaunaren asaŕia jausi ez daiīen. Otoi sutsubak gogo Ezkona dan Jaun-Goikua'ganuntz goratu, ta neba-aŕeben osasun-aldez eskatu dagijela, Ester'ek bere eŕi-aldez gaizkakixuna eskatu ta loŕtu eban lez.

Otoyak, eskarijak Goīiko indaŕa dabenez, oso eragikoŕ ta eskieŕak yakuz; au-ta be jaupari guŕgaŕijak, jakidiak erakusten dautsezan osabidiak, ixuŕija aldendu ta gitxiīuteko, arduraz zaindu ta erabiīi begijez; txadonak ta eŕedixak aixeztu ta *desinpetau*, gexuak urgaziīa, norberen soñekuak *desinpetau*.

Geure Goteŕki maīe - maīiak otoyak Jauna'ganatu dagizala, zoritxaŕ onetzaz aldendu gagizan; ta agintzen dogu:

1.º Txadon - nagusi gustijetan, txaunburuak ixendauko daben egunian, aŕentzak egiīteko. RITUALE ROMANUM, Tit. IX, 4 - 10 eraz.

2.ª Lekaimien etxe gustijetan *Deunen Aŕentzak* egiīteko Jauna agiri dala *(Exposición menor)* iru egunian. (Cap. 10. Tit. IX eraz), gopatzak beria ez ba-dau.

3.ª Jaupari gustijak, nai lekaide, nai ez ixan, bateko jaupan (privada), beste agintzaŕte, esango dabe *Pro vitanda mortalitate* otoya, laketuten danian. Ez dira esango *Pro Papa* ta *Pro pace*.

Jaupa abestuetan *et famulos* esango da, aldi onetan egin biar doguzan eskakixunak otoi oŕek ondo bildurik dauzalako.

Gazteiz'en 1918'ko Uŕiīa'ren 9'gn.

† LEOPOLDA,

GAZTEIZ'KO GOTZAÑA.

ORRI BALTZAK

Azkenengo amabost egunetan il dira geure adizkide onek:

ETXAGUEN-ZIGOITIA'n, Aretxederreta'tar Basili gure bazkidia ta bertako txaunburua.

SORALUZE'n, Areitzaga'tar Piīipa, jauparija ta gure bazkidia, ta Garmendia'tar Gotzon gure bazkide Jon'en anaya.

MAÑARI'n, gure bazkide Bustintza'tar Ebaistaren anaya.

AREATZA (LAS ARENAS)-en, gure bazkide ta ongille Sota-Llano'tar Erramun'en seme Joseba Mirena, amasaspi urteko gaste azkarra.

Euron senidiei lagun dagitsogu tamal aldijan ta irakurliok otoi bana, arren, egizue euren gogo - aldez.

Jaungoiko - Zale

VII' urtia
Amabosterokua

Zornotza 1918'. Azilla 1.n

109'g zenbakija
Arpidea laurleko bi

Goteun-etorkunde osteko ogetalaugarren igandia

GOIZPARKIA.

MALDI ATAN: JESUS bateltxora sartuta, Bere ondoren sartu ziran Bere ikaslariak be. Eta ekaitz (naspil) andia egin zan itxasuan, bateltxua uin edo olatuak estaltzeko bestekua. Baña Bera lo zegoan. Eta ikaslariak beraganatu ziran, eta esnatu eben esaten eutsoela: — Jaunoi: gaizka gaizuz galduak garalako.— Ta Jesus'ek diñotse: — Zeren bildur zare ziñeste gitxidunok?— Orduan sutundu zan, ekaitz-itxasuai agindu eutsen, eta bare-bare egin ziran. Gizonak arrituta esaten eben: —¿Nolakua ete da au, axe-itxasuak ba, men-egiten dautsie? — (MATTH., 23 - 27).

* * *

KISTAR MAITE: Goizparki onetan azaltzen dan jazokuna, gizonen bizitza, ta batez be, kistar bizitzaren irudi bizia da. Geure gogoa Jainkoa'ren eskuetatik urten eta ludi onetako itxaso - ziar betikotasunera doyan bateltxoa lez da. Ta gure bizitza sarri - sarritan ikaragarriki ekatxak naspiltzen daun itxasoa da. Ekatxak dira gure gorputzentzat gexoak, ondasun-galtzeak, izen ona galtze ta senitarteko ezbiarrak. Ekatxak dira geure gogoentzat gizatxarren ikasbidiak, gokaiztoaren ziltz edo tentaziñoak, ta aragiaren girna txarrak; gogoko illuntasun eta biotzeko leortasunak, samintasun eta atsekabeak. Eta Jesus joyan batelaren inguruan be ekaitz bildurrgarri au sortu zan lez, Jesus'en bizitza daben ta bere aizkide diranen biotzetan be, ekaitz bildurgarriak sarritan jaikiten dira. Biar ba da, barriz beste batzuetan baño sarriago, ekaitz gustiak baretu al dauzen Jauna eurakaz daroyelako. Ekaitz - aldi oneitan aurkitzen garanian, zer egin biar dogu? Jesus'en-ikaslariak irakasten dauskue, uste oso-osoaz Jesus'gana joaten biotz-biotzez esanaz: «Jaunoi, gaizkatu gaizuz, galduak gara-ta». Ta une baten Jesus lo dagola irudiarren, estu - aldian ez gaitu laguntza barik itxiko. Bera ba, adi - adi daukagu, bere laguntzagaz etsayen kaltez burrukan diardugunian. Ziñeste bizi ta uste betia bakarrik eskatzen dausku, ta esnatzeke uste izan biar dogu Jesus'ek geure biotzeko ekatxak baretu leikezala, ikaslariari lez agirika egin eztaigun: ¿Ziñeste gitxidun gogo ori, zerdala - ta, bildurtu zara? ¿eztakizu neu zintzo maite nabenari, berak ondatzeke igaro ezin leiken ekatxik eztautzadala bialduko?

Estutasun aldietan ba, David igarlariagaz esaizu: «Jauna da neure argi ta indarra: noren bildur ba izango naz? Jauna da neure bizitzaren zaindari: noregaitik ikaratuko naz? Neure kaltez gudarozte edo ekertzitu bat jarkita be, nire biotza ezta bildurtuko». (PSALMO XXVI, 1 - 3).

Eta ekaitz ondoren baretasuna ta gentza biurtuko da geure biotzetara. Ez ba bildurtu kistar biotzekua, ludi onetako itxaso asarratuan, zintzoki maite dozun artian, Jesus zeure zaindaria izango da-ta.

GABIREL,

DEUNORO EGUNA J.Z. – 1918-109-168

Urrez eta argiz Ama yantzi da,
yualak alai deitzen dagoz,
«Poztu biotzez, ene semeok,
poztu barrendik, poztu gogoz».

Oroitzen zara zeure anaya
ludiko txiro ta otzanaz,
negar ta gosez, zuzen-egarriz
eta errukitsu izan zanaz?

Ene semeoi, oroitzen zara,
biotz garbidun anayatzaz,
gentzatsu eta ona zalako
yasarpenpean bizi zanaz?

Begira orain Yaunan ondoan
donoki-lurrez yabeturik,
zorun-zorunez ase-aseta
negar-malkoak leorturik.

Begira orain Goi-Errukiak
Bere seme lez maitetuak
dirala, pozez donoki-goyan
beti-betiko zorunduak.

Eleiz Amagaz poztu, kistarroi,
yualak alai deitzen dagoz:
«Poztu biotzez anai-zorunaz,
poztu barrendik, poztu gogoz».

Deunoro eguna

Urrez eta argiz Ama jantzi da,
yualak alai deitzen dagoz:
«Poztu biotzez ene semiok,
poztu barrendik, poztu gogoz».

¿Oroitzen zara, zeuen anayaz
ludiko txiro ta otzanaz,
negar ta gosez zuzen - egarriz,
eta errukitsu izan zanaz?
¿Oroitzen zara ene semia
biotz - garbidun anayagaz,
gentzatsua ta ona zalako
jazarpen - pian bizi zanaz?

Begira Goyan Jauna'n onduan,
donoki - lurrez jabeturik,
zorun - zorunez ase - aseta,
negar malkoak leorturik.
Begira orain Jauna'n errukiz,
Bere seme lez maitetuak,
daozala pozez donoki Goyan,
beti - betiko zorunduak.

Eleiz - Amagaz poztu kistarra
yualak alai deitzen dagoz:
«Poztu biotzez anai zorunaz,
poztu barrendik, poztu gogoz.

Gokaxoen eguna

Soñeko baltzaz Ama jantzida,
yualak itun deitzen dagoz:
«Negar biotzez, ene semiok,
otoi barrendik, otoi gogoz».

Bere lepuan gurutz aztunaz
bizitz ontatik igarota,
ikusten dozu, anai gaxua
izerdi, autsez zikinduta?
Donokiratu baño lenago
garbitzen dago su - garretan.
¡Erruki nitzaz! — didarrez diño,
¡ez aztu nitzaz otoyetan!

Eleiz - Amagaz otoi kistarra,
yualak itun deitzen dagoz:
«Erruki gugaz, anai maitia,
negar biotzez, otoi gogoz».
Poztu zaitez ba, anai - zorunaz
erruki anai - nekiakaz,
beti - betiko izan zaitezen
zoruntsu zeure anayakaz.

GABIREL.

Yuale = *campana.* Ludi = *mundu.* Txiro = *pobre.* Otzana = *manso.* Gentzatsu = *pacífico.*

¿Zergaitik....?

Berrogetamar urte inguru izango ditu. Urduri, artega, zurbil, ezpanak lior, betozkoa illun, gogua illunago, min soroz, barrengo korapillua azkatu guraz, aspaldiyan itxiriko iturria lez, bat - batian daragoyo urrengo aurkitzen daun jaupariyari:

— Baña ¿zergaitik ainbeste zoritxar? ¿zergaitik ain gogorki zigortzen nau ni Jainkuak? ¡Iru nagosi... ta... bost urteko kutuna egun bi barruban!

Eta begi idorrak, malkorik samiñez ezeriyuen begi gazi zuriyak, yosita, arrituta gelditzen da. Ixillaldiya. ¿Zer erantzun gogo samiñari? ¿nundik sortu gogo gaziya gozatzeko itzik?

Naibage aitziñan (aurrian) itzik ederrena, ixilla da.

Barriro bere leluari dakiyo, naibage, zoritxar lelua, ***¿zergaitik?***

—Jainkoa, neure Aita dala... ain ona...

GOKAXOEN EGUNA – J.Z. – 1918-109-168-169

Soñeko baltzez Ama yantzi da
yualak itun deitzen dagoz:
«Biotzez negar, ene semeok,
otoi barrendik, otoi gogoz».

Bere lepoan gurutz aztunaz,
bizitz ontatik igarota,
ikusten dozu anai gaxoa,
izerdi-autsez zikinduta?

Donokiratu baño lenago
garbitzen dago su-garretan,
Nitzaz erruki! didarrez diño
ez aztu nitzaz otoyetan».

Eleiz Amagaz otoi, kistarra,
yualak itun deitzen dagoz,
«Gutzaz erruki, anai maitea,
negar biotzez, otoi gogoz»

Itaun-erantzunak

Egun baten Jaunartze bi.—Goxean Jaunartuta, egun atan bertan ilteko zorian jarri ezkero: ¿bigarrenez, Jaunartu leike?

—Egun baten birritan Jaunartzia gebenduta egon arren, artu legi bigarrenez ilteko zorian jartzen danak. (C. J. C. c. 857).

—

Oroimen txarra. — Zor bat euki neban, eta uste dot ordaindu nebala, eskier (seguru) eztakit baña, aldi askotxo igaro da-ta: ¿Zer ordaindu biar dot?

Eztaukazu ezer ordaindu bearrik.

—

Jakin gura.—Nekazkak (parkamenak) bizientzat, esaterako aizkide batentzat, irabazi ete neikez?

—Zeuretzat izan ezik, ondiño ludian bizi diranentzat ezin zeinke irabazi nekazkarik, bai baña Doipuru (Aita Santuak) emondako gustiak, Garbitokiko gogoentzat; emoten dabezanian uarren bat egiten ez-padau. (C. J. C. c. 930).

—Eta nekazkak irabazteko Jauna'ren aizkidetasunan edo grazian egon biar ete da?

—Bai, ziñez, norberentzat nekazkak irabazteko, eta askoren eretxiz baita ildakoentzat irabazteko be. Onez ganera emolliak ipiñi dabezan baldintzak (kondiziñoak) bete biar dira.

—

Galdeti.—Erderazko *Virgen* adirazteko euzkeraz Neskuts itza egokia ete da?

—Etzakidaz etorri olako itaunekaz, Bazkun onetan ba ezkiñan bildu euzkera irakasteko, Kistar-ikastia euzkeraz irakasteko baño-ta. Batekoagaitik ba-da neure eretxia esango dautzut. Euzkel-gayetan jakitunak diranak aurrez darabille itz au euren idazki ta idaztietan. Ta beste gai batzuetan jakitunai jarraitzea zuzena ba'da, ¿gai-orretan jarraitzea bide ertzetik joatia izango ete da? Eztot uste. Barriz orain arte Doibatz-baimenaz argitaldu diran idaztietan be aurrez agertzen da itz au. Ni enaz ba iñor danen aurka, egokia eztala esateko. Oihenart jakintsuak Neskaso erabilli eban. *Neskaso bat Amatako Galileako Nazareten bazia.* (Prov. 195-13). Baña Neskuts itza be, egokia dala dirudi, ba, *ezti utsa=ezti garbia, ardao utsa=ardao garbia* ta abar, adirazteko erabilli oi dogun lez, bardin Neskutsa *Neska garbia* adirazteko erabilli geinke, itz orregaz Birjiñaren Amatasuna bastertzeko bildur barik. Alan ba, erderaz *Virgen Madre* esaten daben lez euzkeraz Ama Neskutsa erabilli daroe. Nik dakidana esan dautzut. Batzuri belarritik ondo etxakela sartzen? Ba, nik belarriko miñik osatzen eztakit. Egokiagorik aurkitzen bo'zu erabilli, orregaitik eskara asarratuko-ta. Unusquisque in sensu suo abundet.

M. 'taŕ G.

NESKATILA EUZKELDUNEI

Zeuentzat be JAUNGOIKO-ZALE izpaŕingi au idazten dogu.

Jauparijei asko lagunduko dauskuzube orain neskatila onak eta gero ama onak ba-ziñakeze.

Gura dogu zeuek kistaŕ-irakaskintzea ta irakastola onetan erakusten diran gauzak ondo jakitia; bata josten, gaŕbitzen, *plantxaten,* egaluntzen, kaltzeŕdi ta soñekuak egiten ta eskaratz gausetan gustiz trebiak batez bere lapikokua egiten. Irabazten dozubenetik zerbait beti auŕeratu txiro-ezeukijak ez ixateko. Etxeko egikixunak ondo atondu ta txindija ondo eralgi. Eskontzarako Jauna'k detuten ba-zatube obe dozube laguntzat, senaŕtzat, *soñian soñekuak* dauzan gixon zintsuba, gaste aŕo-putza baño. Ume euzkotaŕ onak azixubez ta naiko da.

Aberaztasunak galtzen dauzanak asko galtzen dau; aizkide bat galtzen daunak geyago galtzen dau; burua galtzen daunak gustija galtzen dau.

Arrañak uretatik atara ezkero azkatasuna galtzen dabe: olantxe geure gogua be Jaungoikua gandik aldendu ezkero estuntzapian jausten da.

Jaungoiko - Zale

VII' urtia — Zornotza 1918'g. Azilla 15.n — 110'g zenbakija

Amabosterokua — Arpidea laurleko bi

Goteun-etorkunde osteko ogetaseigarren igandia

VI POST EPIPH.

GOIZPARKIA

ALDI ATAN: Jesus'ek gizoztiari esan eutsen ipuin au: Goi-ala, (zeru-erreñua) zerba aledunaren antzekua da: berau lugiñak artuta bere soloan erein eban.

Garau ori txikarrena da: baña azi danian barazkirik andiena ta areitza egiten da, ta axe-txoriak datorkoz ta bere adarretan biziten dira.

Beste ipuña esan eutsen: Goi - ala legami (lebadura) antz - duna da: ta etxeko andereak artuta, iru ontzikada urunetan ipinten dau, gustia legamiatu arte.

Gauza gustiok Jesus'ek gizoztiari ipuinantzez esan eutsezan ta ipuin barik itzegiten ez eutsen, bete zedin Iragarliak esana: Nire abo au ipuñetaz edegiko dot: ludi - asieratik ezaugiak argitalduko dodaz». (MATT. XIII, 31 - 35).

* * *

Kistar maite: zerba (moztaza) garau txikia erein eta zugatz ostrotsu ta eder biurtzen dana Doibatza'ren (Elexa) irudi bizia da. Txikia, apala, gizonen aurrian ezer etzirudiana asieran, ta lurperatua lez iru gizalditan egon ondoren ludi gustian bere adar eder ostrotsu ta igalitsuak edatu (luzatu) dituana. Bere Iraslia, Jesus, gizonik txikarrena lez jayo, ixil-ixilik Nazareth'en bizi, ta ogetamairu urtedun zala, gizadiari Goiko egiak azaldu ondoren, Judarrak gaizkille bat lez gurutzan erail eben. Baña lurperatuta irugarren egunian berpiztu zan, bere ospea ludi gustitik zabaldu, ta Jainko egizkotzat etsi eben. Bere Irakatsiak irudi ta ipuin bidez, ekarekarki, (kon senzillez) bere ikaslariai azalduta, bialdu ebazan, «Zoaze ta irakatsi gustiai» esanaz. Baña amabi arrantzale, txiro ezjakin, irakaste arazoetan ezertarako gauza etziranak: ¿zelan azaldu egi ain latzak jakitun, agintari ta girnaz itxututako gizonai? Goteunak (Espiritu santua) sendatuta: ikaslari txiro ezjakin, entzute bakuok zabaldu ziran erri gustietara. Soñeko urratuakaz, autsez ta izerdiz zikinduta eltzen ziran errietan azaldu eben, girña ta zalekeri gustien aurka joyan Kisto'ren ikasti Goitarra. ¿Noren izenian? Gurutzan erail eben gizon baten izenian. Ta giza-arrokeria, girña zitalak ta agintari gustiak aurrez jarri ziran arren, euren zanetako odolaz bustitako ziñeste-azi txikia erne zan, azi zan, sendatu zan ta bere adar mardulak nundik nai zabalduta, igali eder ta zerutarrez ludi gustia bete eban. Ta alantxe dirau orriak aldatu ta mardulagoak emoten, igali barri ta geroago ta ederragoak, gozatsu ta ugariagoak emonaz, beti zar eta beti gazte, Jainkoak damotson indar bizi ta gastetasunaz iñoz baño andiago, zabalago, ta mardulago. Ta axe-egaztiak zerba zugatzan euren bizitokiak ipinten dabezan lez, izkuntz ta oitura gustietako erriak bere gerizpian artzen ditu. Ta ekaitz bildurgarriak sortu diran arren, beste zugatz gustiak lurreratuteko añakoak, Goiko indarra daben zugatz bakar oneri, usteldutako adar bat edo beste baño eztautsoz kendu, arrak jo-

tako igali batzuk baño eztautsoz eratsi, ta len baño lerden eta garbiago dirau.

Doibatzaren kaltezko ekaitz aldietan ba, ez aldendu zugatz onen kerizpetik. Jesu-Kisto'n itzak dira: «Zeuokaz egongo naz, egun gustietan, gizaldiak amaitu arte». (MATT. XXVIII. 20) Eta «Jainkua gugaz ba'dago: ¿nor gure aurka?» ROM. VIII-31).

GABIREL.

Doibatz - Egutegija

IGANDIAK: 17'gn; 24'gn, Gurutzaren Jonkaŕmeldaŕa autorlia.

Igande gustijetan kistaŕ orok jaupa osua entzun-biaŕ dogu ta otsein-lanik ez dagikegu.

EGUN IXENDABAK 21'gn, Ama Neskutza, Auŕkezkundia.

22'gn. Deun-Koikilę ereslari-Zaintzalia, neskutza, ziñopea.

26'gn. Miren eta Joseba'ren Eztegubak.

30'gn. Deun-Ander, Belduba.

Gabon'ez amaitzeko laramaŕ — 40 — Aguŕ Mirenezko eraspena gauŕ asten da.

* * *

Ama-Neskutza-Auŕkezkundia esanaz, iru urtedun zala, Miren-Deuna, Josu-Kisto'ren Ama, Hyerosolym'go Jauretxe albuan zan ikastolara, etxe oneko neskatileari jaokazanak ikasteko, bere guraso deunak eruanda, eldu zala, atzaltzen dogu.

Jokin.

Onbidez bixi-dan laterrija gorafuko da, gaizpidez ta arrokeriz bixi-dana barriz, lur-joko dau.

Justitia elevat gentes, miseros autem facit peccatum.

Kistar - Tkasti atzalbena

Jainko - Legeko boskarren agindua

II

Iñoren bizitzazko eginbiarrak

—Iñor erailtzen daunak ¿oben astuna ete dagi?

—Oben astuna ta izukoya, bai Jaungoikoa'ren aurka ta bai giza-aurka dagi, iñor erailtzen daunak.

A). ZER EGIN DOZU? zirautson Jauna'k Kain, lenengo giza erailliari: ZURE ANAYAREN ODOL-OTSA NEURI DIARKA DAGO LUDITIK.

Jainkoa'ren nagositasunari bakarrik dagokiyo giza - bizitz jabetasuna. NEUK ERAIL DAGIKET, ETA NEUK BIZI-ERAZI DAGIKET. (Deut. XXXII - 39). Erailtzeko alak bizierazteko alari (poderiari) darrayo; beraz bizierazteko ala Jainkoa'ri bakarrik dagokiyon lez, erailtzeko ala be Berari bakarrik dagokiyo.

GIZA-ODOLA IZURTZEN DAUNARENA BE IZURIKO DA; JAINKOA'REN ANTZERA EGIÑA DA BA GIZONA. (Gen. IX - 6). Giza antzeskiya gorrotoz apurtzen daunak gizonari dagiyon iraña, dagiyo Jainkoa'ri bere antzezkiya apurtzen daunak.

G). Ludi ontako emaitzik ederrena da bizitza, erailliak emaitz ederrenau kentzen dautso gizonari; zuzena ba'da, betiko ogasunak irabazi ta geitutzeko bidia itxiten dautso, ta oben larriyan badago, garbatzeko astiya kendu, ta betiko galtzeko zoriyan ipiñi. Ezin lekiyo gizonari kalte andiyagorik egin.

K). Giza-batzarrak gizon bakotxaren iñarkun eskubidia dau; bakotxa bere egikizunetan gizabatzar onerako bizi gara; giza-erailliak iñarkun onek ostutzen dautsoz gizabatzarrari. Ta gizonak nasaiki

SEASKA, GURUTZA, ILLOBIA –J.Z. 1918-110-178

Aurtxoak yayota seyaskatxoan
negar-zotin dagi
aman ondoan.
Laztan bat emonaz amak diñotso:
Zer izango az i,
ene kutuntxo?
Izango ete az osasuntsua?
Ala erkiña ta
gaxo-gaxoa?
Oso aberats eta yakintsua?
Ala ezyakiñ ta
txiro-txiroa?
Noiz arte bizirik iraungo dok ik?
erantzun egidak
zerbait badakik.
-Esango neuskizu ezer baneki.
«Ilgo naz» besterik
iñok aldaki?

Atzo yayotako aur gizondua
bide lakar-zear
goirantza doa;
Gurutz aztun-latza daula lepoan,
indarrak nekauta
ezin eroan;
Alan be, aurrerantz aberrirantza
yarraitzen dau beti,
beti goirantza.
Noizko elduko dan bere elburura?
Ez izan alperrik
au yakin gura.
Gurutzdun gizon au indargeturik
bide-ertzean datza
gustiz auldurik.
Gogoak iges dau bere barrutik
yoanda bizia
gorputz ortatik.
Illobian datza giza-gorpua
arren yanari ta
auts biurtua.
Ara or gizonen bizi gustia:
SEYASKA, GURUTZA,
eta ILLOBIA.

Seaska, Gurutza, Illobia

Aurtxoak jayo ta seaskatxoan,
negar-zotin dagi,
aman onduan.
Laztan bat emonaz amak diñotso:
¿Zer izango az i
ene kututxo?
Izango ete az osasuntsua?
¿ala erkiña ta
gaxo-gaxoa?
¿Oso aberatsa ta jakintsua?
¿ala ez jakin ta
txiro-txirua?
¿Noiz arte bizirik iraungo, dok ik?
erantzun egidak
zerbait ba'dakik.
—Esango neuskizu ezer ba'neki:
Ilgo naz, besterik
iñok aldaki?

—

Atso jayotako aur-gizondua
bide latza-ziar
gorantza dua.
Gurutz astun latza daula lepuan
indarrak nekauta
ezin eruan.
Alan be aurrerantz aberrirantza
jarraitzen dau beti,
beti gorantza.
¿Noizko elduko dan bere elburura?
Ez izan alperrik
au jakin gura.

—

Gurutz dun gizona indargetuta
bide ertzian datza
oso aulduta.
Gogoak iges dau bere barrutik,
joan da bizia
gorputz ontatik.
Illobian datza bere gorpua
arren janari ta
auts biurtua.
Auxe da gizonen bizi gustia:
SEASKA, GURUTZA
eta ILLOBIA

GABIREL.

Seaska=*cuna* — txiro=*pobre*— illobi=*sepulcro*.

ITAUN - ERANTZUNAK

Aita besoetako. —Jaunartza egin daben amar urtedun mutiko bat aita besoetakotzat aukeratu gura neuke. ¿Zillegi ete da?

—Ez: «aita besoetako izateko amalau urte biar dira, abadiari benetako ziyoen bategaitik, gasteagoa artzia ezpaderitxo» (C. J. C. c. 766-1º)

Jakin—gura.— ¿Garbitokiak, ¿noiz arte iraungo ete dau? —Epai orokar edo Juizioko egunerarte. Gogo bakotxak, ¿noiz urtengo ete dau Garbitokitik? —Ori eztakigu: baña bai, azkenengo txurikoraño ordaindu arte iñor eztala zeruratuko. (Mat V. 26)

Beste itaun bat. — Iñoz entzun dodala-ta nago, Garbitoki'ra doyazan gogo gustiak suzko nekia eztabela igaroten: batzuk beste neke batzuk igarota, donokiratzen dirala. ¿Egia ete da?

—Zuk diñozuna ziñeste-egia izan ez arren, jakintsu askok irakasten dabena da. Ta ala dirudi. Baña uste dot egokiena izango yakula, bizitza onetan, garbitokian albait aldirik gitxien igaroteko bidia artzia: ¿Ezteritxozu?

M'taŕ G.

Jaungoiko - Zale

VII' urtia
Amabosterokua

Zornotzà 1918'g. Lotazilla 1.n

111'g zenbakija
Arpidea laurleko bi

Jabieŕ'taŕ Pantzeska Deuna.

¡Zure jayeguna ospatzen dogun egun aunetan, pozez zugana eltzen gara

JAUNGOIKO-ZALE

argitaldu ta irakuŕten dogun gustijok: gure burubak zure babespian daminguz ta ustakidatsu zuk lagun dagiskuzula, bijotzez daskatzugu.

Napaŕtaŕ zindo ori, gutzaz eŕuki zadiz, gure lanak donetsakezuz, euzkotaŕok geruago ta euzkeldun sutsubago gagixuz, Jauna'k emon dauskun elez ludijan Bera onetsi ta donokijan Bera elesariztau dagigun. Olantxe.

Elgaroko Bigarren Igandia

GOIZPARKIA.

ALDI ATAN: Jon'ak Kisto'ren egiñenak espetxian entzunda, bere ikaslietatik bi bialduta, itandu eutson: ¿Zu zara etorteko dana (Mesias) ala beste bati itxaron biar ete dautsogu? Eta Jesus'ek erantzuten esan eutsen: Zoaze, ta Jon'i entzun eta ikusi dozuena edestuyozue: Itsuak ikusten dabe, errenak bai-dabiltz, gorrak entzuten dabe, usteridunak garbitzen dira, illak berpizten dira, txiroai goizparkia (ebangelioa) azaltzen yake: ta zoruntsua nitzaz obeneratzen eztana. Arek joan ziranian Jesus Jon'atzaz gizostiari esaten azi zan: Eremuan, nor ikusteko urten zare? ¿Axeak astintzen daben ingen (kañabera) bat ete? Baña zer ikusten urten zare? guriki (bigunki) jantzitako gizonen bat ala? Guriki janzten diranak ara bakaldun-jauregietan izaten dira. Zer baña ikusten urten zare? ¿Igarlen bat ala? Ori bayetz diñotzuet, eta igarle baño geyago be. Onexetzaz idatzita dago: Ara neuk bialtzen dot neure aingerua zeure aurrera, zeure aurretik zeure bidia gertuko dautzuna. (MATTH. XI, 2-10).

* * *

Kistar maite: Jon deuna, Jesu-Kisto bere irakaskixun eta bizitza-laztasunakaz gizonen biotzak gertau ta Jesu-Kisto'ganatzeko, Jainkua'k bialdua izan zan. Jon deunak ondo ekian ba, Jesu-Kisto nor zan. Bizitza gustia Bera goraltzen emon eban eta, Herodez gaiztuak espetxetuta euki arren, bere nekiakaz aiztuta, Jesus goraltzen ziarduan. Bere ikasle batzuk Jesu-Kisto'n ospea egunerik egunera zabaltziari ondo ez eritxoelako, oneik be, Jesu-Kisto'ganatzeko asmuagaz, beragana bialdu ebazan galdetzen: «¿Zu zara gizadia gaizkatzera etorteko dana, ala beste bati itxaron biar ete dautsogu ?Eta Jesu'Kisto'k, Bera nor zan adirazteko itzak baño egiñenak indar geyago eukela-ta, euren aurrian alatz (mirari) andi batzuk egiñaz erantzun eutsen: «Zoaze, ta entzun eta ikusi dozuena Jon-i azalduyozue.» ¿Bide zuzenagorik autu ete eikian bere Jainkotasuna egiztuteko? ¿Jainkua'k bakarrik egin leikezan mirariak egiten ebazana, Berak bialdua ez ete zan izango? Zalantz edo ezpai gustiak ezereztuteko biderik labur eta indartsuena aukeratu eban ba, iñok ezin eikian ukatu gizadiaren Gaizkatzalle bakarra Berau zanik, Beronegan egiztu zan Isaias iragarlariak esan ebana: «Jainko berbera etorrita gaizkatuko zaitue. Orduan itsuen begiak idegiko dira, gorren belarriak zabaldu; orduan errena bazauntza lez jaikiko da, ta izgien (mutuen) miña azkatuko da.» (XXXV. 4-6).

Gero goraldu eban Jon'an zintzotasun ta ziñeste sendotasuna ta bere bizitza laztasuna, axeak batera ta bestera darabillen, inge landara lez etzala, ezta bigunki bizi zana be, ziñeste sendo, maitasun zintzo ta laztasun bidez Jesus'en etorrerako bidiak laututen ebazana baño. Onez gañera Iragarlari gustien gañetik egoala adirazi eban. Kistarrok be, Jesu-Kisto'n goralbena irabazteko, ta geure biotzen barruan bizi daiten gura ba'dogu, laztasun bidez lurreko gauzatatik aldendu biar gara ta ziñeste sendo ta maitasun zintzo bidez lautu bere bidiak, geure «Jakituri bakarra Jesus Gurutzaldua Juda tarrentzat oben-bidia ta gentillentzat sorakeria izan zana» biotz-biotzez maitetuta.

GABIREL.

—Lenen iraindu dauna, edo iraiñik astunena egin dauna, sayatu biar da aizkidetzeko. Onena da, baña, biyuen aizkidia, adibidez, yaupariya, bitarteko ipiñi.

—*¿Zetatik sortzen da gorrotoa?*

— Gorrotoa bekaitzetik (inbidiyatik) sortzen da. Geidia bekaitzez dakuskunian, bere zoritxarrez poztu, ta zoriyonez tamaltzen gara.

—*¿Gaizkeri asko sortzen ete dira gorrototik?*

— Gaizkeri asko sortzen dira gorrototik; susmo txarrak, gaiztetsiyak (juzgoak), mur - murrak, irañak, izekak, burrukak eta, gustiyoen buru, erailtza. Berauxez diño Jon deunak: *Bere anaya gorroto dauna, gizerallia da.* (I - III - 15).

Erailtza gustiyak — olde osokoak beintzat — zuster onen igaliyak dira. Kain'ek *gorrotoz* erail eban bere anaya: *gorrotoz* erail nai eben Jesukristo gure Jauna parixetarrak.

—*¿Zek bultza erain biar dausku irañak azketsi ta asarria ibitzeko?*

— Irañak azketsi ta asarria ibitzeko, arestian yarritako ziyoak, eta batez be Jesus Gurutzatuaren irakatziyak erain biar dauskube. Etsayez inguratuta, begiyak norantz itzuli ez ebala, ara Jesus'en otoya: *Aita, azketsi yezu, zer egiten daben ez dakiye - ta.*

Gurutz.

Miren - Sorkunde Garbiari

Illargia lez eder - eder ta
eguzkiaren izpia lez,
Garbia Jaunak egin zinduzan
oben - kutsuge, bakar Sortzez.

Eguzkiaren argitasuna
bardintzen bo'gu Zeuriagaz
argi bizia bardintzen dogu
gabarik illun baltzenagaz.

Zure onduan edur zuria
baltza da azaltzen ikatza lez:
ta lili eder - zuritasunak
iges argitik illunak lez.

Izanik ba Zeu Jainkoak Berak
Ama'tzat autu zinduzana,
¿zelan obena asartuko zan
zitalki eltzen Zure'gana?

Guztiz-guztiz ba, ederra Zara,
orban - izpirik eztaukazu,
Goi - eskarrezko jantzi orregaz
Jainkoa Bera dirudizu.

Zu zara kistar oron pozkarri
Zu zara gure maitasuna:
Zeure izenaz beste bagarik
geu zoriontzen gozuzana.

Hierosolym'go aintza zara Zu,
Ixarreldarren zoriona:
obendioen aldezlari ta
Ama maitati on - biguna.

Zeu izan ezik beste guztiok
emen gaukazuz zauriturik,
adimen - illun, naimen - indargez,
girñan estuntzaz zapaldurik.

Begira; Zeure semiak gara,
ez aiztu, arren, iñoiz gugaz;
Ama, estuntzok Zeuk urratuta
bizi gaitezan beti Zu'gaz.

GABIREL.

Oben-kutsuge=*pekatu-bage.*—Goi-eskarra=*graziya.* — Obendia=*pekatari.* — Aldezlari=*defensor.* — Estuntza=*katea.* — Adimen=*entendimiento.* — Naimen=*voluntad.*

Jaungoiko - Zale

VII' urtia — Amabosterokua | Zornotza 1918'g. Lotazilla 15.n | 112'g zenbakija — Arpidea laurleko bi

Elgaro'ko (Abendua'ko) laugarren igandia

GOIZPARKIA.

TIBERI kaiser'aren agintzaldiko amaboskarren urtian, Pontio Pilatos Judea'ko jaurlari (gobernadore) zala, Herodes Galilea'ko erki-jaun, eta Pilippo bere anaya Iturea ta Trakonitides lurraldeko, ta Lisania Abilinia'ko erki-jaun zirala, Anas eta Kaipas Jaupari - buru: Jauna'k bere itza Jon'i, Zakarias semiari, adirazi eutson. Eta Jordan ibai - ertzeko erri gustietara etorri zan, oben - gaizkapenerako obenneke (penitentzi) ugutza (batiua) zabaltzen, Isaias iragarliaren iragarki-idaztietan idatzita dagon lez: Lekaruan (basamortuan) oyu dagianen abotsa: Jauna'ren bideak gertau: bere bide txigorrak zuzendu egizuez: aran gustiak lubetuko dira: mendi ta muruak lautuko dira: eta bide okerrak zuzenduko dira: eta latzak lautu, eta gizon orok Jainkua'ren Gaizkatzallia ikusiko dabe. (LUK. III, 1 - 6).

* * *

Kistar maite: Gaurko Goizparkiak zoritxar andi bat, eta zorion andiago bat adirazten dauskuz. Zoritxarra geure lenengo gurasoen oben galgarria, Jainkuaren aserrepian ipiñi genduzana, zeruko atiak itxi ta gaiztokikuak zabal - zabal egin ebazana. Laburki, gizonaren zoritxar gustien sustarra. Zoriona barriz, ta zorion andiagoa, geure gaitz gustiak osatu, zeruko atiak idiki, ta gaiztokikuak itxiteko, donokitik lurrera jatsi zan Osalari, Gaizkatzalle ta Zorion bakarra danaren etorrera gomutaratzen dauskulako. Lau milla urtian eta geyago Lege Zarreko deun gustiak egindako otoyak Jauna'k entzun ditu. Jainkua'k intza lez Zuzena bialtzeko egiten eutsen eskariari erantzun dautso. Isaias Iragarliak esan eban: «Jainko berbera etorriko da, eta gaizkatuko zaitue». (ISAIAS, XXXV, 4) ta «Jaun Gaizkatzallia bai dator, ur dago; ta gertau bideak, gertau biotzak berari arrera ona egiteko» diñosku Jon deunak. ¿Zelan? Oben bidez jaurti gendun geure biotzetik eta obenau geure biotzetatik jaurti biar dogu, Jainkua geure biotzetan barriro artzeko. Obennekea (penitentzia) da orretarako bide bakarra, nekia obenaren geriza lez da-ta. Pekatu bide txigorrak zuzendu: Jesu-kisto ta Elexea'k irakasten dauskuen bideari ziñiste bizi, asmu onagaz ta maitasun sutsuagaz jarraituta, arrokerizko mendi ta muruak biotzeko apaltasunagaz lautu, otoi bero - beroa egin apaltasunagaz, girna gaiztoak ipinten dauskuezan lakioak urratuta, Jainkua'ganantz zuzen joateko. Laztasun ta garbai - bidez jaurti geure biotzetik gaiztakeria, otoi - bidez jaso geure biotza Jainkua'gana, bere erruki ta laguntza eske, ta bide lau ta zuzenak aurkituko ditu Jesus'ek geure biotzetara etorteko. Orduantxe, poz-pozik ikusi ta maitekiro artuko dogu geure barruan, geure zoruna dan Gaizkatzallia.

GABIREL.

Josu Aurtxoari

—

Aur txikitxu ta polita
jayo yaku Belen'en
goazen pozez ikustera
goazen danok lenbait - len

—

¿Zer da begiz dakusguna?
aurtxo samur polita,
otzaz dar - dar aska baten
eztauko zer jantzi ta.

—

Abeletxe baten dago
Miren ta Joseba'gaz,
abereak berotzeko
dauz arnasa lurrunaz.

—

Ene ederroi, ¿etzara Zu
donoki - lurren Jabe?
¿Zelan zagoz, kutunori,
iñon laguntza gabe?

—

¿Ez dozu Zeuk piztu goyan
eder - eder euzkia?
¿Non dago ba bere Jaunai
bialtzeko argia?

—

Egaztiak Zeuk eztozuz
apain jantzi ederrez?
¿Eztozuz aran - mendiak
jantzi lora - bedarrez?

—

¿Non dira ba bialtzeke
jantziak eskar onez,
ikusirik euren Jauna
billozik dar - dar otzez?

—

¿Lo zagoze txoritxuok?
¿Lo zagoze gaxuok?
orain abestezpozue,
betiko itxi abuok.

—

— Txoritxuok ixil gagoz,
eztogu abestuten:
¿ez dantzuzuz ba gotzonak
Jaun- Aurtxoa goraltzen?

«Donokian aintza ta aintza,
Jaungoiko Altsuari:
gentza - zoruna lurrian
gogo zintzodunari».

—

Eguzkia iges dua
Josu, jayo dalako:
« ARGIA » dagon onduan,
eguzkia ¿zertako?

—

Jantzi barik dar - dar dago
Josu otz - ikaragaz,
nai daulako berotzia
geure maitetasunaz.

—

Zatoz, Josu biotzeko,
zatoz, maite, gugana:
geu - biotzok eskintzera
jun gaitezan Zu'gana.

—

Jaungoikua Aur eginda
jayo yaku Belen'en,
maitasuna eskintzera
goazen danok lenbait - len.

GABIREL.

Nazaret'etik Betlen'era

Jerusalen'dik iper alderantz, ogei ordu inguruko bidian, dago Nazaret. Mendi bizkartxuan, pikuz, intxaustiz ta matsgorriz or-emen yosita, txori abiya orleya edo gorantz orriyak zabaltzen dauzan lilli-ostoa dirudi. Toki egokiya norberen baitan (barruban) sartu ta Jainko-gaiz so (begiratu) egiteko.

Ementxe bizi ziran Joseba ta Miren deunak, maiteki ta zoruntsu, bata zurgintzan, eta Miren, lasterr yayoko zan aurtxoaren oyalak gertatzen. Gaba igesiyaz yoyan, eguna elduaz. Jainko - Semia, gizon eginda, yayotzeko orduak yo eban.

ITAUN - ERANTZUNAK

Jaupa erdi bi.— Jai-egunez jaupa (mesa) bat konsagraziñotik azkeneraño entzun, eta beste bat asieratik konsagraziñoraño entzuten dabenak: ¿Mesa osoa entzuteko biarkuna betetan ete - dau?

—Batera jaupa erdi biak entzuten ba'ditu, eztau betetan: baña bata bestien ondoren entzuten ba'dituz, bai.

Efa...—Lenengoa konsagraziño ostetik azkeneraño, ta bigarrena konsagraziñoa egin arte entzuten ba'dau?

—Eztau Jaupa osoa entzuten; Jaupa osoa entzuteko konsagraziñoa ta Jaunartza Mesa batekuak izan biar dira.

Beste bat.— Jaupa entzuten daunak, baña Elexa'ren agindua betetako asmu barik. ¿Beste bat entzun biar ete dau?

--Ez; naiko da jaupa entzutia, legia betetzeko asmurik euki ez arren.

Jaunartza aurreko barua.—Gaberdiko amabiak joten azi ta amaitu bitartian zerbait artzen ba'da: ¿Jaunartu ete leike?

—Ez, ordua lenengo kanpai otsagaz betetan da-ta, Baña ordua joten asten danian, abuan daukazuna eztago bota biarrik.

Zalantza.—Gabaz zerbait artu dabenak, eztaki baña, (eskier) ziur amabiak aurretik ala ostetik artu daben: ¿Jaunartu leike?

—Bai, ziñez, barua ausi daula ziur eztakianak Jaunartu leike?